

t tipi-ttapa

«URTEAK PASATU DIRA BAINA NIRE BARNEKO MINA EZ DA DESAGERTU»

Zortzi urtez eskola jazarpenaren biktima izan zen eskualdeko herritar baten lekukotasuna bildu du TTIPI-TTAPAK. Geroztik urte aunitz pasatu badira ere, oraindik «tarteka zauria irekitzen» zaiola aitortu du. Anonimotasuna mantenduz kontatu ditu bere bizipenak. / 10



Jostunen lana ikusgai Iturenen

Diseinu eta moda eskolako ikasleen lanekin moda desfilea egingen dute igandean Iturenen. Horrela, jostuntza baloratu nahi dute. / 8

SINADURAK



ZOKKETA / 60



Ekhiñe Zapiain Berako bertsolariarekin kontu kontari / 16



Leitzako Energia Berriztagarrien Komunitateaz Mikel Diosdadorekin / 30



Olaia Elizalde elizondarra Berroetan egin nahi duen proiektuaz / 44

BERA LESAKA

Agenda 2022

EKAINA

www.berakoagenda.eus
www.lesaka.eus

LESAKAKO
UDALA

<p>ERAKUSKETA RAMON ZABALEGI</p> <p>Larunbat eta igandeetan 16:00-20:00 Ikastolako areto nagusian Antolatzailea: Labiaga Ikastola</p> <p style="text-align: center;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">4</p> <p>ANTZERKIA LA BONA GERMANOR</p> <p>LABURBATA 19:00 Hiriendoa Kultur Etxea Sarrerak 6€ www.lesaka.eus eta Hiriendoa Kultur Etxean goizetan eta egunean bertan sarrerarik.</p> <p style="text-align: center;">LESAKA</p>	<p>ALTZATEKO BESTAK EKAINAREN 10ETIK 12RA</p> <p style="text-align: right;">BERA</p>
<p>BETI GAZTE ELKARTEAREN ASTEA MAIATZAK 27TIK EKAINAREN 6A ARTE Antolatzailea: Beti-Gazte</p> <p style="text-align: center;">LESAKA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">5</p> <p>LIBURU AURKEZPENA M AMA* EME* UME*</p> <p>IGANDEA 18:00 Lesakako udalako plano aretoa Antolatzailea: Xabuirinak</p> <p style="text-align: center;">LESAKA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">10</p> <p>MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA</p> <p>ORTZIRALEA LESAKA Jubilatuaren Aukapeetan</p>
<p>MUGAZ GAIN ANTZERKI JAIALDIA Ekainak 3-DBH: Goizez Ekainak 9 eta 10-LH: Goizez 18:00 Ate irekiak</p> <p style="text-align: right;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">6</p> <p>ENTZUNALDIAK BIOLIN ENTZUNALDIA</p> <p>ASTELEHENA 18:00 Kultur Etxean Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udai musika eskola</p> <p style="text-align: center;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">11</p> <p>MERKATUA BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA</p> <p>LABURBATA BERA 10:30-13:30 Berrandetan</p>
<p style="text-align: center; font-size: 2em;">4</p> <p>VI.IBARDINGO IGOERA (PONTUNGARRUA) NAFARROAKO TXAPELKETA</p> <p>LABURBATA Nafarroako junior txapelketa 2022 Sasi txapelketa 13:30 Lehen parte-hartzailearen itxera 12:00etan errepide mozketak Antolatzailea: Zibarko Sport</p> <p style="text-align: right;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">8</p> <p>ENTZUNALDIAK TRIKI ENTZUNALDIA</p> <p>ASTEAZKENA 18:30 Kultur Etxean Antolatzailea: Isidoro Fagoaga Udai musika eskola</p> <p style="text-align: center;">BERA</p>	<p style="text-align: center; font-size: 2em;">11</p> <p>DANTZA BERAKO DANTZARI TITI EGUNA</p> <p>LABURBATA BERA Antolatzailea: Gure bakoa dantza taldea</p>
		<p style="text-align: center; font-size: 2em;">12</p> <p>KIROLA LESAKAKO MENDI ITZULIA</p> <p>IGANDEA LESAKA Antolatzailea: Beti-Gazte</p>
		<p style="text-align: center; font-size: 2em;">15</p> <p>KONTZERTUA MUSIKA ESKOLAREN KONTZERTUA</p> <p>ASTEAZKENA LESAKA 18:00 Hiriendoa Kultur Etxea</p>

LIDERRAK gure eskualdean

baita azterketa egiterakoan CIESek Nafarroa Garaiko mendialdean hartu duen 111 udalerrien eremuan ere.

Berria

3.000 irakurle

Gora

3.000 irakurle

Diario de Navarra

6.000 irakurle

Berte batzuk

7.000 irakurle

Diario de Noticias

12.000 irakurle

30.000 irakurle azken hilabetean

ADINAREN ARABERA

14-19 urte	20-24 urte	25-34 urte	35-44 urte	45-54 urte	55-64 urte	+64 urte
7,5%	6,2%	12,2%	16,9%	18,5%	15,5%	23,2%

IKASKETA MAILAREN ARABERA

Dinarrizko ikasketak	Dinarrizko batxilergoa	Goi mailako batxilergoa	Unibertsitatea
11,2%	18,9%	29,8%	40,2%

SEXUAREN ARABERA

% 50,8
EMAKUMEAK

% 49,2
GIZONAK



NIRE TXANDA

MIEL M. ELOSEGI IRURTIA LUZE

Zapoa katuskan

Gogoan dut hiru edo lautan gertatu izana. Bajeran oina katuskan sartzen hasi eta ezin, barruan zapoa zegoelako. Katuska lurrean etzanda geldituz gero, zapoek barruan gordetzeko bost izarreko hotela aurkitzen zuten. Beste garai batzuk ziren. Apirilean Leitzako erreka elkarriz itsatsitako zapo-mordoiloiz eta hauek errundako arrautza-sokez betetzen zen. Bordatxora bidean udaberriko gau euritsuetan milaka zapo ikus zitezkeen errepidean poteka eta ondoren ikuskizun latza: kotxeek zapaldutako egundoko «zapu-talo» pila. Zalantzarik gabe, zapoak ugari ziren gurean.

Gaur egun kosta egiten da zapo-mordoak eta arrautza-sokak aurkitzea errekan. Inguru erabat eraldatu izanak, nekazaritzako produktu kimikoek, klima aldatzeak eta abarrek ez diete batere mesederik egin izanen. Eta gure bajeran, nahiz eta zaporen bat dabilen jakin nahian katuskak propio etzanda utzi, alerik ere ez da barruan sartu. Gauzak nola diren! Garai batean «zapu zakar honek beste lekuri ez al zun»? pentsatuko nuen zapoa katuskatik ateratzerakoan. Orain bat aurkitu nahi izan dudanean... ezin!

**«GAUR EGUN
KOSTA EGITEN DA
ZAPOAK
AURKITZEA...»**



EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

Lagunarteko konpetizioa

Hiru urte dituztenetik haurrei notak jartzen dizkien irakasleak entrenatzaileari, 14 urteko alaba lehen entrenamendura laguntzerakoan: 'Niri ez zait konpetizioa gustatzen'. Batzuk film sobera ikusi dituzte eta gure zelai eta frontoietako partida gutti. Lagunarteko jolasak ikusten ditut aunitzetan eta kamera geldoan azken segunduan garaipena ematen duten gol gutti.

NABARMENTZEKOAK



JOSEBA
LARRALDE
LASTERKARIA



JULIAN
IPARRAGIRRE
PILOTA ADITUA

Sasoi puntu bikainean dagoela erakutsi du Joseba Larralde beratarrak. Berroetako Mendi Maratoi Erdia irabazi zuen maiatzaren 16an, eta 21ean Goizuetako Goizutrail.

20 urtez Euskadi Irratian pilota partidetan aditu gisa bere iritzia ematen ibili ondotik, maiatzaren 29an utzi zuen lan hori Julian Iparragirre Leitzan bizi den arantzarrak.

GIBELERA BEGIRA



2012-05-31 · TTIPI-TTAPA · 567 zk.

Berako abesbatzak 25 urte

Duela hamar urte bete zituen Berako Abesbatzak 25 urte, eta data borobil hori ospatzeko besta eguna antolatu zuten ekainaren 3an. Fatima Gonzalez abesbatzako zuzendariarekin solastatu zen TTIPI-TTAPA, eta 25 urtetan «aldaketa aunitz» izan zituztela kontatu zuen: «Zuzendaritza lanean hiru pertsona izan gara eta bakoitzak zuzentzeko gure modua izan dugu, abeslariak zuzendu bakoitzari egokitu behar izan dira». Data berezi hori ospatzeko, kontzertu bereziak gain kaleratu zuten diskoaz ere mintzatu zen Gonzalez: «CDan agertzen diren kanta aukeratzeko argi genuen kanta alaiak, euskaldunak.. nahi genituela, eta Berako Banda eta txistulariak gurekin egotea nahi genituela». Herritarrei abesbatzan parte hartzeko deia luzatu zien.



erran.
eus

TOKIKOM

Argitaratzailea
Ttipi-Ttapa Fundazioa
Koskontako bidea, 7 - 1.
31770 LESAKA
T. (+34) 948 63 54 58
F. (+34) 948 63 54 57
WhatsApp 744 48 43 61
info@ttipi.eus

Zuzendaria
Aitor Arotzena
Erredakzioa
Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea
Publizitatea
Amaia Odriozola
Arantza Agirre
Berriemaileak
Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,
Arantza eta Iraia, Irune Elizagoien,
Maider Petrirena, Oihana

Kalparsoro, Ainhoa Ansa, Fermin Etxekolonea, Aintzane Leiza, Pablo Irastortza, Maite, Ana eta Itziar, Juan Mari Barriola, Marga Erdozain, Maitane Maritorea, Arantza Iturralde, Arantza Gamio, Jaione Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea Mortalena, Virginia Oteiza, Jean Louis Bessonart, Ainhoa Astiz, Ganex E., Xabier Maritorea, Maialen Iantzi, Jaione Mindegia, Olatz Mutuberria.

Fundazioaren Presidentea
Pello Apeztekoa
Kudeatzailea
Joxemanuel Irigoien
Administrazioa
Amaia Goia
Lege Gordailua
NA-1324/85
ISSN
1578-4673
Tirada
6.000 ale

Erakunde laguntzaileak
Leitza, Goizuetako, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Malerrekako Zerbitzuen Mankomunitatea.
2022ko harpidetza sariak
Baztan, Urdazubi eta Malerrekako 42
Leitza 33
Hego Euskal Herria 50
Ipar Euskal Herria, Europa 98
Amerika eta Australia 147



KOLABORAZIOAK

JOSE RAMON AMOROS OSKOZ

Nun hago, zer larretan?

Begien bistakoa da gero eta ardi gutxiago dagoela gure larreetan, eta, jakina, gero eta artzain guttiago. Gaia hobekiago ulertzeko informazioa bilatzen aritu naiz Nafarroako Gobernuako web orrian eta eskualdeko albaitariak ere datuak eman dizkit. Azken 20 urteotan, TTAPI-TTAPA aldizkaria banatzen den Nafarroako eremuan izandako bilakaera azalduko dizuet.

	2000		2019	
	Ardiak	Artzainak	Ardiak	Artzainak
Bortzirriak	21.796	305	12.957	239
Malerreka	24.748	282	16.145	220
Bertizarana	1.431	14	818	9
Baztan	44.086	346	34.195	301
Xareta	5.901	42	3.432	36
Leitzaldea	16.824	217	10.624	159
GUZTIRA	114.166	1.206	78.171	964

Gainbehera haundia eta segur aski aurtengo datuak ikusiko bagenitu kopuru hauek oraindik murriztagoak izanen lirateke.

«ARTZAINZTA GURE KULTURAREN ETA IDENTITATEAREN IKUR BAT DA»

Gainbehera haundia eta segur aski aurtengo datuak ikusiko bagenitu kopuru hauek oraindik murriztagoak izanen lirateke. Ba, niri pena ematen dit. Gainera, iruditzen zait artzaintzaren gainbeherarekin denok galtzaile ateratzen garela. Gure kulturaren eta identitatearen ikur bat da. Mendi kaskoetan ageri diren monumentu megalitikoak eraiki zituztenak artzainak omen ziren. Baserrien sorrera ezin da ulertu artzaintzarik gabe. Edo gure baso eta mendi guztietan sakabanatutako ardi bordak eta artzain etxolak. Eta inauteriak, joareak, euskal artzainak Ameriketara... Gure gastronomian ikur diren hainbat jaki: gaztanbera, gasna, bildots haragia... Hizkuntza aldetik artzaintzari lotutako hiztegia ere galduko dugu.

Gehiago gaineratuko nuke, gure belai berdeek, larreek eta mendiek belarjaleak behar dituzte. Artzaintza estentsiboa eta natura errespetatzen duena onuragarria da ingurumenarentzat, espezie aunitzentzat mesede da larre garbietan edo arboladi irekietan bizitzea. Atzendu gabe eskualde honetan bizi garen gehienok artzain familiakoen ondorengoak gara.

Oraindik gure inguruan badira artzainak, baina galtzeko arriskuan dagoen espeziea dela iruditzen zait. Gure esku dagoen guztia egin beharko genuke artzaintza jasangarria, ekologikoa eta errentagarria mantentzeko. Bertze ogibide bat da eta lanpostuak sortzen ditu. Gazte gehiago, mutilak zein neskak, artzaintzan aritzea ona litzateke.

Eta guk zer egiten ahal dugu artzaintza babesteko? Ba, bertzeak bertze, artzainek ekoizten dituzten produktuak kontsumitu, bidezko prezioan eta bertakoak. Badakizue artzainek bildotsak orain dela 30 urteko prezioan saltzen dituztela? Artilea dohainik ematen dutela?

Ea lortzen dugun!



MAIALEN SOBRINO LOPEZ

Hitz ugarpena

Hitzei erreparatu nahi diet gaur, nola polisemiaren komodinik gabe erranahia aldatu edo galdu arazten diegun hitz batzuei. Horretara natorkie: nahasmenaren erdian hitzak arrantzatzer.

Badakizue *adrendua hartzea* zer den? Nik berriki ikasi dut zerbaiti adrendua hartzen diogularik horretan trebatu gara. Adibidez: «Iduri du lagunak hartu diola adrendua auto berriari». *Adrendua hartu*, ederra, trebetasun edo ikasitako hori ukigarri egiten du kasik. Hartu diot adrendua honi, harrapatu dut, neureganatu dut jakintza pusketa berri hau.

Bertzalde, ohartu berri naiz guk *eltxitxu* deitzen genuena *eltzeitsua* idazten dela. *Itsulapiko* mila aldiz irakurriko nuen, *eltzeitsu*, aldiz, ez zait maiz ageri begi parean. Badira hitz batzuk ahoan sarri eta begietan urri izaten ditugunak, ez da hala? *Eltzeitsu*, itsulapikoren sinonimorik absolutuena segur aski, da horietako bat.

Lekutu aditza. Nonbaitetik lekutu: giroa okertzen hasi zen eta segituan lekutu ginen handik. Ospa, alde, hanka, ihes egin. Lekutu. Beti baikaude lekuren batean, denak baitu lekuren bat, hau ez bada bertzea. Lekuz leku, lekutu, leku egin arte.

Badago hitz bat ezkontzetan, andregaiaren lagun joan ohi ziren emakumeetako bakoitza izendatzeko: aialdekoa. Ez dakit aialdekorik dagoen gaur egungo ezkontzetan, edo izana bera izan zen lehendabizi galdu arazi genuena, baina badugu hitz bat horretarako.

Ez dugu hitzik ordea, aunitzetan, gehiegitan oraindik, inguruan pasatzen zaizkigunak izendatzeko. Alaine Agirreri irakurri nion badugula hitz bat gurasoren bat galdu duen haurrarendako: umezurtza da. Badugu bertze hitz bat bikotekidea galdu duenarendako: alarguna. Nola ez dugu izenik seme edo alaba galdu duen gurasoarendako?

Batzuk erraten dute hitzek ezin dutela deus aldatu, baina hitz batzuk eta gero dena ez da berdin, nahiz eta asmo onez bota. Dena den, arrantzatu badugu zerbait edo hitzak sortzeari adrendua hartu badiogu, ez gaitzezen izan hitzen eltzeitsu, ez ditzagun lekutu izenak, leku egin diezaiegun izanei, ahoan zein begietan hitzen umezurtz eta alargun baikara gaurdaino. Eta emakumeok hitzak behar ditugu bizitzan aialdeko.

«AHOAN ZEIN BEGIETAN HITZEN UMEZURTZ ETA ALARGUN GARA»

11 GALDERA LABUR

BEÑAT APEZETXEA GOIZUETAKO PILOTARIA

«Aita niretzako erreferentziazko pilotaria izan da»

Goizuetako pilotari gaztea da Beñat Apezetxea, baina gaztea izanda ere maila ona erakusten ari da pilotalekuan. Maia-tzean egindako Zornotzako VII. Master Kaiolan txapeldun izan da jubenil mailan, eta etorkizura begira horrela segitzeko asmoa du.

Nola definituko zenuke zeure burua?

Ilusioz betetako Goizuetako gazte bat naiz.

Zein dira zure zaletasunak?

Kirola, motoak, baserria eta parranda.

Zer ikasi nahiko zenuke?

Leitzako ikastetxean batxilergo lehenengo maila egiten ari naiz eta oraindik ez dakit seguru zer ikasiko dudan, baina kirol mundua asko gustatzen zait.

Noiz eta zergatik hasi zinen pilotarekin?

Goizuetako Pilota Eskolan apuntatu nintzen sei edo zazpi urte nituelarik. Aita pilotaria izana da, eta etxean asko aritu naiz eta berarekin frontoian asko bizitu dut pilota.

Eta txapelketetan lehiatzen?

Bederatzi bat urterekin hasi nintzen txapelketetan parte hartzen.

Zornotzako VII. Master Kaiola irabazi duzu berriki. Espero zenuen?

Zaila ikusten nuen, baina ez da esperantza galdu behar, nahiz eta frontoian bakarrik egon eta lana norberak egin behar duen. Urduri xamarra naiz eta lasaitzen ikasi behar dut.

Zenbatero entrenatzen zara?



Astean bi egunez fisikoa eta beste bi egunez teknika.

Lortu nahi duzun helburu edo ametsik?

Orain Berribeitin semifinaletan nago, ea finalean sartzen naizen eta irabazteko aukera dudan. Horrez gain, denok izaten dugun ametsa: egunen batean profesional mailan jokatzea.

Erreferentziazko pilotaririk al duzu?

Goizuetarra izanik erreferentzia asko dauzkatzat: Aimar eta

Asier Olaizola, Jon Apezetxea, Iker Salaberria... eta naiz eta ez dudan pilota txapelketetan parte hartzen ikusi, nire aita. **Nolako maila ikusten duzu eskualdeko pilotarien artean?**

Inguruko herrietan hainbat mailatan ongi jokatzeko duten pilotaria asko daude.

Zure asmoak epe motzera eta luzera?

Epe motzera ikasketekin eta pilotarekin segitzea. Epe luzera, berriz, egunen batean profesional mailan jokatzea.



1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak
Mantelak
Kuxinak
Edredoi nordikoak
Ohe estalkiak
Maindireak
Toailak
Edredoi-azal nordikoak



IRAKURLEAK MINTZO

Nafarroako haur eskolak baldintza duinen alde

MONIKA ARANBURU ZURUTUZA, AMAIA DORRONSORO GOIKOETXEA, NERE INDA GOIKOLEA, AINHOA ODRIOZOLA ALDALUR ETA MARI SEARA EIZAGIRRE

GIPUZKOAKO HAUR HEZKUNTZAKO HEZITZAILEAK

Badira urte batzuk Erkidegoan (EAE) antolatzen diren Prest Garako formakuntzaren eskutik, Elizondoko Haur Eskola ezagutzeko zortea izan genuenetik.

Unean bizitakoak sortutako miresmenaren distirak ez itzaltzeaz gain, bertan ikasitakoa eredu bihurtu da eta oinarriko ezagutzak ezarri ditugue gure ibilbidean leiho eta ate berriak irekiz.

Horretaz gain, Hik Hasik Gipuzkoan ematen dituen formakuntzetan Nafarroako haur eskolak erabili dituzte formazioaren osagarri eta eredu gisa. Bide honetatik, ezagutu dugu Nafarroan 0-3 urteko hezkuntzan dagoen kalitatea.

Nola bermatu eta mantendu kalitate hau beharrezko baldintzak ez badira betetzen? Azken urteotan 0-3 Plataforma deituriko taldea jarraitu dugu eta beraien egungo egoera ezagutu ondoren, benetan harrigarria iruditzen zaigu nola lortzen duten horrelako kalitatea eskaintzea.

Idatzi honen bitartez beraien aldarrikapenekin bat egiten dugu eta baldintza duin batzuen aldeko aldarrikapenak geureak egiten ditugu.

Nafarroako LGTBI+ genealogia, orain euskaraz ere bai

JOSEBA OTANO VILLANUEVA
ADMINISTRAZIOAN EUSKARAZ TALDEA

Genealogía del movimiento LGTBI+ en Navarra lana aurkeztu zuen Nafarroako Gobernuak 2022ko martxoaren 18an. Gaztelania hutsean aurkeztu ere. Egiaz, ustekabe desatsegina izan zen, ez genuen horrelakorik espero.

Arartekoan kexa jarri, eta Berdintasunerako Institutuak erantzun zuen apirilaren 11n Euskarabidera bidali zituztela testuak, euskaratzeko (gaztelaniazkoa aurkeztu eta ia hilabetera).

Bada, azkenik, eta inolako publizitaterik gabe, euskaraz dugu *LGTBI+ mugimenduaren genealogia Nafarroan*. Bertan topatuko dituzue Nafarroako LGTBI+ mugimenduaren mugarriak, lekukotzak, argazkiak... Goza ezazue! <https://genealogialgtbi.igualdadnavarra.es/eul/>.

BOTA BERTSOA



ANDER FUENTES MUJIKA
ITTURRI
ZUBIETAKO BERTSOLARIA

Eman gabekoak

Doinua: 20 años kantuarena

*Sarritan senti gaitzke
izaditik aparte
bakarrik, sentitzen dugu
ez gaituztela maite.
Ezinegonak ditugu
bizitza denen parte
zergatik saiatzen gara
gu sufrizen jo ta ke?
Minak ez konpartitzea
ez al da gure kalte?
zoriona itozkeo
lotuta zenbat kate?
Minak sentitzen ditugu
baina ai, ai! Noiz arte?
besarkada estu batek
Asko aska ditzake.*

*Lagundu baitezake ez
sentitzen errudunak
arintzen ditu bameko
korapilo astunak.
Baretuz argitzen ditu
begi triste ilunak
zenbat adierazten duen
bere isiltasunak.
Haurrak, zaharrak, gurasoak
maitaleak, lagunak
goxoak, ezustekoak
jostariak, lizunak.
Ikur politagorikan
ba al du maitasunak?
nora joaten ote dira
eman ez ditugunak?*

IRAKURLEAK MINTZO

Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.




Koskontako bidea, 7 - 1, 31770 LESAKA - info@ttpi.eus - 948 63 54 58

Zaindu maite duzun hori...

Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!

 info@ttipi.eus

 744 48 43 61

Zein da zuzena?

* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

*'Elkar ezagutzen dira' ala 'Elkar ezagutzen dute'?

- *Elkar ezagutzen dira ala Elkar ezagutzen dute?,
- *Elkar ikusiko gara ala Elkar ikusiko dugu?

Euskaltzaindiak dioenez, esaldi trakestzat jo behar dira elkar izenordainarekin osatutako bide okerreko berrikuntza hauek:

- *Denok elkar ulertzen gara > Denok elkarri ulertzen diogu.
- *Elkar etorri dira > Elkarrekin etorri dira.
- *Ez dute elkar hitz egiten > Ez diote elkarri hitz egiten / Ez dute elkarrekin hitz egiten.
- *Elkar ezagutzen dira > Elkar ezagutzen dute.
- *Ortziralean elkar ikusiko gara > Ortziralean elkar ikusiko dugu

Bertze edozein izenordainek hartuko lukeen kasu-marka hartu behar du elkarek. Adibidez: nirekin joan > elkarrekin joan; niri (nirekin) solas egin > elkarri (elkarrekin) solas egin...


Horrez gain, elkar izenordainak kasu-marka guztiak har ditzake, ergatiboarena (NORK kasua) izan ezik: *elkarrek forma ez da existitzen. Eta singularra dagokio beti:

- *Ikasitakoaren berri ematen diete elkarri > Ikasitakoaren berri eman diote elkarri.
- *Elkar ikusiko ditugu > Elkar ikusiko dugu.

Elkar izenordainak elkarrekikotasuna adierazten du, alegia, A-k B-ren egintza jasaten du, eta B-k A-rena (Nik zu ikusi, zuk ni ikusi = elkar ikusi). Horrelakorik ez denean, desegokia da elkar erabiltzea:

- *Guztiok elkarren desberdinak gara > Guztiok desberdinak gara.

Osatu erranairua



The crossword puzzle consists of several words to be completed on a grid:

- Across 1:** N O N (Illustration: a black cat)
- Across 2:** E E (Illustration: a green chili pepper)
- Across 3:** T E N (Illustration: a sun)
- Across 4:** G R (Illustration: a snail)
- Across 5:** (Illustration: a turtle)
- Across 6:** (Illustration: a tulip flower)
- Across 7:** (Illustration: a branch)
- Across 8:** (Illustration: a window)



Pili Garate Maritorea iruritarra, joskintza lanetan. Bestarekin lotutako lau diseinu aurkeztuko ditu igandean Iturenen.

Joskintza baloratzeko desfilea dute Iturenen

Diseinu eta moda eskolan ari diren hamasei ikasleren lanak ikusteko eta baloratzeko desfilea antolatu dute igande honetan Iturengo Tresanea ostatuko lorategian. Bere garaian garrantzi handia izan zuen joskintzak eta galbidean dagoen ofizioa izan arren, afizio gustagarria da aunitzentzat

AITOR AROTZENA ITUREN

Iruñeko Yolanda Gaviriaren diseinu eta moda eskolak desfilea antolatu du ekainaren 5ean Iturengo Tresanea jate txeko lorategian. 23 urte ditu akademiak eta lehendik zenbait desfile antolatu badituzte ere, lehen aldiz hurbilduko dira Bidasoaldera, ikasturtean zehar egindako lanak erakustera eta baloratzera. «Landa eremura hurbildu nahi izan dugu moda eta diseinuaren mundua, ikasle aunitz inguru honetakoak izan ditugula kon-tuan hartuz», aipatu dio TTIPI-TTAPARI Gaviriak berak.

Ekaineko lehen igande goizetik diseinadoreek beraien joskintza lanak eta bildumak ikusgai paratuko dituzte eta zenbait stand paratuko dituzte, salmentarako. Ondotik, bazkaria izanen dute Tresa-

nean bertan. Arratsaldean lehiaketa izanen da eta ikasleen lana baloratzeko epaimahaia ere izanen da. 18:00etan hasiko da desfilea. Diseinatzaile bakoitzak bere diseinuak eta modeloak erakutsiko ditu eta 28 lagun ibiliko dira desfileatzen, batzuk eskualdekoak. Ikasturte bukaerako eta zenbaitzutan, ikasketa bukaerako lanak ikusgai paratuko dituzte hamasei ikasle. Horien artean eskualdeko ikasle bat izanen da, Iruritako Pili Garate Maritorea, gaur-gaurkoz Iruñeko diseinu eta moda akademian ari den eskualdeko pertsona bakarra. Epaimahaian Elizondoko Piko-Piko dendako Mamen Goñi, zilarrezko titarea izan duen Doneztebeko Blanca Bañares jostuna, Donamariako Rosa Mindegia eta Iciar Mikelperizena Berako margo-

laria izanen dira epaimahaian. Olari jatetxeko Ruben Garatek eta Cristobal Zelaietak aurkezle lanak egingen dituzte. Sorpresaren bat ere izanen omen da, arratsaldea girotzen laguntzeko.

Patroiak egitea

Gaur egun Pili Garate da Iruñean joskintza ikasten ari den bakarra, baina aunitz izan dira bertan ikasi dutenak eta horietako batzuen testigantzak bildu ditugu. Guztiek ttikitatik maite zuten jostea eta, gehienetan, profesionalki bertze

«ZEROTIK HASI, NEURRIAK HARTU ETA PATROIAK EGITEA POLITA DA»

bide batzuk hartu badituzte ere, gustura daude ikasitakoarekin. Pili Garatek bosgarren ikasturtea du, baina segitzeko asmoz dago: «hobby moduan hasi nintzen eta hala segitzen dut, bertze lan batean ari naitzelako Dantxarinean. Lauz-pabortz urte eri egon nintzen eta neure buruari erran nion zerbait berezia egin nahi nuela bizitzan eta josten hasi nintzen. Ez dakit etorkizunean lana izaten ahal den, baina oraingo hobya bertzerik ez da. Hainbertze gauza ikasten dituzu: orain badakit zein oihal diren onak, zein oihal behar diren galtza batzuk egiteko edo soineko bat egiteko, kamiseta bat egiteko prozesua luzea dela... Ez da josi eta kitto, lan aunitz da. Gehien gustatzen zaidana patrioiak egitea da. Zerotik eta gure neurriekin hasten gara eta gero familiakoen, edo lagunen neurriak hartuta egiten ditugu patrioiak...». Iturengo desfilea lau diseinu aurkeztuko ditu, «besta (ezkontzak, etab.) gaitzat hartuta egindako lau konjuntio, gorpuzkera ezberdinei egokituak... Orain buru-belarri ari naiz horiek akitzen. Niretako berezia da Iturenen izatea desfilea, etxean jokutzen dut, baina horrek gauzak ongi egiteko ardura berezi bat ere sortzen dit, presio pixka bat eta urduritasuna...».

Mirentxu Goienetxe amaiurtarrak lotura bikoitza izanen du igandeko desfilearekin, ikasle ohi moduan, eta Iturengo Tresanea ostatuko kudeatzaile gisara. Goienetxek aipatu digunez, «denetarik ikasten genuen: nola egin kremailera bat, sakela, lepokoa, eskumuturra... Orduko tela guztiak altxatuak ditut. Korteia eta patronajea ikasi nuen, hau da, neurriak hartuta edozein arropa egiten... Tela moztea zail egiten zitzaidan niri. Gero, matematika hutsa zen: geruntzean baldin badituzu hainbertze zentimetro, gero hemendik hainbat kendu behar duzu, etab.».

Denbora gutiz lan politak egin ditzakezu


Duela 22 urte aritu nintzen ikasten, 2000-01 eta 2001-02 ikasturteetan eta denetarik ikasi nuen. Ttikitatik aunitz maite nuen jostea, izeba bat jostuna izandakoa nuen eta bere arrimuan edo josten ibiltzen nintzen. Apuntatu nintzenez nire ametsak nituen, ikasiko dut diseinatzen, eginen ditut nire bildumak... Baina ikustea zenbat denbora pasatu behar duzun kremailera simple bat egiten eta horren truke zenbat kobratu dezakezun... Nire kasuan banuen bertze irtenbide bat, gizarte lana, eta hortik segitu nuen. Merez du, deus jakin gabe, denbora gutiz lan politak egin ditzakezu. Batzutan diruagatik erosi ezin duzun soineko bat zeronek egin dezakezu, tela on bat erosita eta zeronek diseinatuta. Tela on bat zer den eta ongi jostea zer den baloratzen ikasi genuen, kalitatea non dagoen. Azken finean, orain arropa denda kateetara joaten gara eta horietako batean erositako galtza batzuei *dobladilloa* egiten hasi nintzenez ohartu nintzen: 'Ostra, hau nola dago josita?'



Amaiurko Mirentxu Goienetxe.

Arropa berria sortzea da politena

48 urte nituela hasi nintzen akademian, 2000. urtean, eta titulua atera nuen hiru urtez. Aitzinetik zerbait aritzen nintzen josten, betitik afizioa izan dut, baina orduan ikasi nuen. Denetarik ikasi nuen, baina arropa berria sortzea, bakoitza bere neurriekin... hori da politena. Geroztik jostun lanak egin ditut -Zilarrezko Titarea ere jaso zuen 2014an Doneztebeko Santa Luzia egunean- eta joskintza ikastaroak ere eman ditut Donezteben, Ezpelura emakume taldearen eskutik. Aurten ere eman dut. Pena da gaur egun gure herrietan gazteek ez dutela jostea maite eta ez dute ikasten. Egindako lana ez da ez estimatzen, ezta behar bertze ordaintzen ere, eta ez diot etorkizun handirik ikusten. Baina igandean hamasei gazteren lana ikusiko dugu Iturenen eta horiek ikustea eta baloratzea egokituko zaigu. Epaimahaikide izatea suertatuko zait Iturenen eta joskintza baloratuko dut, nola dagoen moztua, dena bere lekuan kokatua egotea... Ardura pixka bat ere izanen da, baina ahal duguna eginen dugu.



Blanca Bañares doneztebarra.

Orain ere patrioiak atera eta aritzen naiz


Hiru ikasturte egin nituen, arras maite nuelako joskintza. Denbora aunitz pasatu da, 2008tik 2011ra. Lehenbizi haurrak Elizondoko konzentrazioan nituenean hasi nintzen, guraso elkartearen bidez antolatu ziren joskintza ikastaroetan. Gero, Iruñean lanean hasi eta orduan eman nuen izena akademian. 2013an Doneztebera etorri nintzen lanera eta Blanca Bañaresekin hasi nintzen. Erizaina naiz eta nire lanbidearekin ez du zerikusirik, baina betidanik gustatu izan zaizkit eskulanak eta jostea. Amak ere aunitz josten zuen eta ez dakit horregatik edo. Gehienbat apuntatu nintzen patrioiak nola egin erakusten zutelako: soineko bat egin nahi banuen, neurriak hartu... prozesu osoa erakusten zuten. Gauza pila bat ikasi nuen eta gustura gelditu nintzen ikasitakoarekin. Gero segitu nuen ikasten, baina pandemia honekin arras bazter utzia dut. Kontzentrazioa behar duzu eta ez da manerarik, pena da. Halere, orduan ikasitakoa aunitz erabili dut eta egin izan ditut abrigoak, soinekoak, gonak... oraindik ere zerbait egin nahi dudanean, patrioiak atera eta hasten naiz.



Kristina Urrutia amaiurarra.

Familiarendako josteko baliatu dut

Aspaldian egin nuen ikastaroa, duela kasik hogei urte, 16-18 urte bai bederen. Niretako esperientzia arront ona izan zen. Etxerako eta familiarendako josteko baliatu izan dut, baina kanporako ez, profesionalki ez naiz sekula horretan aritu. Niri aunitz gustatzen zait jostea eta esperientzia aunitz ona izan zen ikastaroa. Ordurako seme-alabak handituak nituen eta Iruñera joateko denbora gehiago nuen. Hemendik Iruñera joan behar zenuen astean bitan, zerbait egiteko eta orduan ere ez zen erraza. Ordutik, arropak egin izan ditut, haurrendako batez ere eta poltsak egiten ere ibiltzen naiz, nire diseinuarekin, panpin batzuk... dena hobby moduan. Patronajea gustatu zitzaidan, patrioiak egin eta hori arropan transformatu... Patrio orokorra egiten erakusten dizute eta gero hori zeronek transformatu, hori dena ikasi nuen. Igandean epaimahaian egonen naiz Iturenen, ardura ere bada, eta orduko gauzak errepasatuak ekarri beharko ditut. Ongi egonen da eta erraza izanen dela iduritzen zait, ez dakit.



Donamariako Rosa Mindegia.



Eskola jazarpenaren biktima izan zenak sentitu zituen mina eta bakardadea ditu oroimenean gordeak.

«Badakit jendea aldatzen ahal dela baina ez dut atzenduko egin zidatena»

ESKOLA JAZARPENAREN BIKTIMA BATEN BIZIPENAK

Zortzi bat urtez eskola jazarpenaren biktima izan zen eskualdeko herritar baten lekukotasuna bildu du TTIPI-TTAPAK. Geroztik urte aunitz pasatu badira ere, oraindik «zauria» ez zaio desagertu

G. PIKABEA

«Urteak pasatu dira, baina nire barneko mina ez da desagertu; Tarteka zauria irekitzen da». Haurra eta nerabea zela, eskola jazarpenaren biktima izan zen eskualdeko herritar baten hitzak dira. Agerikoa da mina bere solasetan, begiak malko artean dituela mintzo baita orduan sufritutakoaz. Bereziki «sentitzen nuen bakardadea» da oroimenean iltzatua duena. Gaur egun «ongi» dagoela dio, «kontent» bizi dela; «baditut nire lagunak eta badut nire bizi». Baina gaiaz solasean hasi denean aitortu du espero ez zuena sentitu duela: «Ez nuen uste barrena hainbertze mugituko zitzaidanik». Gaiaz aritzea

«gogorra» egin zaio, baina badu gertatutakoa kontatzeko gogoia, gertatutakoa salatze gogoia. Baina hori bai, anonimotasuna mantenduz, badaezpada ere, ez duelako inork, eta gutiago min egin zioten haiek, solasean ari dena bera dela jakitea nahi. **Noiz hasi zen dena?**

Ikastetxean. Hasmentan, gelako bertze batekin hasi ziren; hurrengo ikasturtean ahulenak ginen edo beraien eredukoak ez ginen bertze hiruron kontra segitu zuten, eta hurrengo ikasturtean argi gelditu zen nire kontra zeudela. Ez ninduten sekula jo, baina nirekin solastatzeari utzi zioten, ni agertzean eskapu egiten hasi ziren... Gertatutako egoera batzuek oroitzen

naiz. Ikastetxeko kanpaldi batean, adibidez, lehendabiziko egunetik bakarrik utzi ninduten, logelan aparte, txangoak egiterakoan eskapu joaten ziren, ez ninduten kontuan hartzen... Bigarren egunerako arras gaizkinengoen eta etxera deitu nuen. Gurasoei nire bila joateko erran nahi nien, baina ez zeuden etxean eta ez nuen lortu haiekin egotea. Irakasleei ere erran nien ez nengoela ongi eta etxera joan nahi nuela, baina gelaz aldatu ninduten eta horrela lasaitu nintzen. Gerora jakin nuen irakasleek ez zietela deus aipatu gurasoei. Hurrengo urtea okerragoa izan zen, aitzineko ikasturtean kanpaldian gertatu zena eguneroko martxa bihurtu zen.

Bakarrik sentitu zinen...

Bai, bakarrik eta arras gaizki. Barnean iltzatua dudana sentitzen nuen bakardadea da. Orduko arras oroitzapen txarrak ditut, eta eskola ondotik zuzenean etxera joaten hasi nintzen. Ez nuen bertze deus egiten: ez atera, ez jostetan ari... Gero eta liburu gehiago leitzen eta pelikula gehiago ikusten hasi nintzen, huraxe izan zen nire ihesbidea.

Babesa non aurkitu zenuen?

Gurasoein. Aunitz lagundu zidaten eta ahal zuten guztia egin zuten ni horrela ez sentitzeko. Aitortu behar dut hasmentan ez niela deus erran nahi izan, alde batetik, ez nituelako kezkatu nahi, eta bertzetik, ez nuelako bertze haurengurasoei deus erratea nahi. Baina sufri-mendua jasanezina bihurtu zen, barneko mina nolabait atera nahi nuen, eta kontatu behar izan nien. Zorteko sentitzen naiz gurasoak aunitz mugitu zirelako laguntzeko. Ikastetxera ere jo zuten, eta irakasleari kontatu zioten. Horren bidez, orientatzaile batekin gaia lantzen hasi ginen. Nirekin klasera joan zirenak horretaz oroitu ko dira. Orientatzaileak lehendabiziko egunean bat banaka klasetik atera eta galdetu zien ea bazuten niri egingako erasoen berririk. Denen baiezkua hartu omen zuen. Baina hilabete baten buruan baja hartu zuen eta kasuak ez zuten segidarik izan. Errekreotan klasean gelditzen hasi nintzen. Gaizki pasatuko nuela baldin banekien, zertarako aterako nintzen? Gurasoek psikologoarengana ere eraman ninduten, baina ez nuen behar bezala probestu. Momentu hartan, ez nuen nire onerako zenik ikusten eta ez nion egia guzia erraten. Batzuetan engainatu ere egiten nuen, lagunak egin nituela, asteburuetan haiekin elkartzeko erratan zidatela... Dena gezurra zen.

Eskolan ez zenuen babesik izan?

Behar nuen arreta irakasleekin lortzen nuen, haiek behintzat solas egiten zidaten, baina kla-

Jazarpena Nafarroako ikastetxeetan

Itziar Irazabal Zuazua Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuko Bizikidetzaren arloko Aholkularitza Bulego buruak emandako datuak dira hauek. Gaiaren arabera sailkatuta, Hezkuntza Departamentura laguntza eske jo duten kasuak ageri dira. Edozein moduz, Irazabalek nabarmendu duenez, «datu hauek ez dute benetan Nafarroan dagoen errealitatea erakusten, laguntza eskatu dutenak baino ez dira». Datuak ez dituzte eskualdeka bereizten, eta horregatik Nafarroa osokoak bildu ditu TTPI-TTAPAK.

Gaiaren arabera	2012-13	2013-14	2014-15	2015-16	2016-17	2017-18	2018-19	2019-20	2020-21
JAZARPENA	45	24	70	197	229	113	116	45	56
ZIBERJAZARPENA	3	2	8	6	1	13	9	6	12
INDARKERIA SEXISTA	3	1	5	11	9	14	8	15	9
TRANSEXUALITATEA	0	0	0	11	11	26	24	8	13
GATAZKA- BITARTEKARITZA	33	47	38	85	61	44	62	60	78
DOLUA	0	0	0	5	2	3	6	1	7
SUIZIDIOA	2	3	2	24	18	22	28	16	47
BERTZEAK	35	27	76	127	92	57	49	10	32
GUZTIRA	121	104	199	466	423	292	302	161	254

se orduetan eta klaseko kontuez. Ezziren inoiz etorri zergertatzen zen galdetzerara, eta ni ere ez nintzen joan gertatzen zitzaidana erratera. Hain gaizki sentituta, irakasleekin solastatzeko desiatzen egoten nintzen baina ez nuen inoiz egin. Tutorea izan zen gaiaz solas egin zidan bakarra, errekreio denboran gelan gelditzen nintzela konturatu eta gero, eta gurasoak gertatzen zitzaidanaz solastatzera joan zirelako. Beraiek [erasotzaileak] baino gehiago izan behar nuela erraten zidan, harri bat bezain gogorra izateko, ez adierazteko nire mina, ez sentitzeko. Irakasle hura aunitz miresten nuen eta horixe sinetsi eta barneratu nuen; etxean bakarrik egiten nuen negar eta harri bat izan behar nuela pentsatzen nuen. Baina aldi berean ez nuen ulertzen zergatik egiten zidaten egiten zidatena, eta min handia sentitzen nuen. **Eskolan hasi zenak institutuan izan zuen segida?**

Bai. Eskola akitu eta institutuan segitu zuen jazarpenera. Gogotsu hartu nuen instituturako pausoa, atek zabaldu zitzaizkidan, eta bereziki ilusio handia egiten zidan bertze herri batzuetako lagunak egiten ahal nituela pentsatzeak. Aldi berean, beldurra ere sentitzen nuen, institutuan ere lagunik egiten ez banuen nire errua izaten ahal zela pentsatzen nuelako. Inoiz lagunak egiteko kapaz izan ez nintzenaren sentimendua arras barneratu nuen. Institutuan, hasmentan, betiko 'lagunen' [eskuekin komatxoekin] gibeletik ibiltzen nintzen, maleta bat bezala. Ez zidaten solasik egiten, ez zidaten aurpegira begiratzen, eta

«INOIZ LAGUNAK EGITEKO KAPAZ EZ NINTZELA IZANEN SENTITZEN NUEN»

hala ere, ni haien gibeletik ibiltzen nintzen. Bertze herrietako jendea ezagutzen saiatu nintzen, baina haiek ere ongi moldatzen ziren betiko 'lagunekin', eta ez ikusiarena egiten eta kasurik ez egiten hasi ziren... Halaxe pasatu nuen ia ikasturte osoa, klasera joanez baina inorekin solastatu gabe. Lasaitzeko idazten aritzen nintzen, eta behin nik idatzitakoa haietako batek leitu zuenean, izugarria izan zen. Negarrez utzi ninduen, lur jota. Ez nuen deus txarrik idatzi, nola sentitzen nintzen baino ez... Arras kolpe gogorra izan zen. Negar eta negar gelditu nintzen, eta egun hura desastre hutsa izan zen. Etxera lasterka joan eta ez nintzela gehiago

«ERASOAK AKITU ZIREN BAINA PRESIOA ETA BELDURRA EZ»

etxetik aterako erran nien gurasoei. Baina noski, institutura joanez segitu nuen. Hala ere, handik aitzinera ez nintzen gehiago hurbildu haiengana. Ordura arte bakarrik egon beharrean beraien ondotik ibiltzen nintzen, baina hura ere akitu zen. Eskin batean bakarrik gelditzen nintzen.

Zer gertatu zen horren ondotik? Uda hartan aste batzuetarako kanpora joan nintzen ikastera eta izugarria izan zen. Lagunak egin nituen eta lagunak egiteko gai nintzela ikusi nuen. Edozeinendako ergelkeria bat izaten ahal da baina niretako arras inportantea izan zen. Orduantxe zabaldu nuen orduko sare sozialik erabilienean kontua, egin berri nituen lagunekin harremanetan segitzeko. Ordura arte ez nuen konturik. Seguru nago izan banu, hori ere eraso egiteko probestu izanen zutela. Eta ez hori bakarrik; lagunik gabe zertarako nahi nuen sare sozial bat? Udako

→ gainerako oporrak familiarekin pasatu nituen, baina uda bukaera aldera, krisialdi bat izan nuen, ez nuelako institutura bueltatu nahi. Hain uda ona pasatu ondotik, berriz sufrituko nuela pentsatzeak min egiten zidan. Onartu behar dut eskolan isilik egoten nintzela, baina etxean gurasoei aunitz sufriarazi diedala, aunitz oiuhatu diedala... Uda hartan ere hala izan zen. Hutsetik hasi nahi nuen, berteze institutu batera joan, baina nire gurasoek betiko institura joan eta solastatzea erabaki zuten. Institutuko en erantzuna harrigarria izan zen: bullynga sobera hitz fuertea zela erantzun zieten, eta adinagatik gaiarekin behar baino kezkatuagoak zeudela erran zieten. Institutuan ez zuten deus egin, eta bazekiten zer gertatzen zen. Normalean isilik gelditzen saiatzen diren horietakoa nintzen, ahal bazen desagertzen saiatzen nintzen, inork ez ziezadan ez ikusi, ez ukitu eta ez deus erran. Baina egun batean ezinaren ezinez, egoerak gain hartu eta kristorena sortu nuen. Horregatik diot bazekitela gaizki nengoela, baina ez zuten deus egin. Orientatzailea ez zen sekula etorri niregana. Gure adinekoren taldeak berriz nahastea izan zen egin zuten bakarra, eta zorionez, jende berria ezagutzeko aukera izan nuen. Beldur nintzen haiek ere bakarrik utziko ote ninduten, baina ez zen halakorik gertatu.

Deus ez egiteak konplize bihurtzen dituela uste duzu?

Ez dakit... Baina ematen zuen ez zela deus pasatzen. Gisa horretara, indar guztia kentzen dizute, beti kezkatzen ari zarela eta zure fantasia bat baino ez dela sentiarazten dizute. Ez dakit benetan kontziente diren egiten dutenarekin. Aunitzetan aditu nuen haurren kontuak zirela, eta horrek ere ez du laguntzen. Zergatik nengoen horrela? Horrek bazuen zergatia. **Lagunak egin zenituela aipatu duzu... Hobeki sentitu zinen?** Bai, handik aitzinera egunerakoa ez zen tortura izan. Pixka-



«Ez nintzen etxetik ateratzen, ez jostetan aritzen...», dio jazarpenaren biktimak.

naka neure buruarengan konfiantza izaten hasi nintzen. Ez nituen urrun hainbertze min egin zidatenak, nahiz eta ordu-rako ez nengoen beraien buruetan, ezta min egiteko ere. Baina han zeudela eta zeinen gaizki pasatu nuen oroitzeko nahikoak ziren. Presio eta tentsio handia sentitzen nuen niregandik hurbil baldin baziren, zerbait errateko beldurrez egoten nintzen, zerbait aurpegi-ratuko zidaten edo irri egingen zidaten beldurrez. Ikusten nituen aldiro mina sentitzen nuen, baina banituen berteze lagunak, eta haiekin arras kontent egoten nintzen eta aitzinera segitzeko erraten nion neure buruari. Egiazko askatasuna unibertsi-tatera joaterakoan sentitu nuen. Horixe zen nire betiko ametsa, urrutira joatea. Nire herria maitate dut, baina momentu hartan, kartzela zen. Berteze norabait joan behar nuen nor nintzen jakiteko. Beti nahi izan dut nire herrian naizen bezalakoa izan, baina beldurra hor gelditu zait.

**«BARKAMENA
ESKATU ZIDATEN
ETA ZORTEKO
SENTITZEN NAIZ»**

Ikkeretek diote ikasleak zenbat eta tratu txar gehiago jasan, orduan eta tikiagoa dela eskola emaitzen errendimendua. Zure kasuan eraginik izan zuen?

Bai, nahi baino gehiago luzatu ziren ikasketak... Ez diet beraiei bota nahi errua, baina gerora izan ditudan arazo batzuk gestio-natzeko ezintasunak gertatu zenarekin lotura zuzena du. **Gainditu duzula erraten ahal da?** Minak hor segitzen du. Urteak pasatu dira baina oraindik ere tarteka zauria irekitzen da. Gertatutakoa nire parte da eta hala segituko du. Horrelako zerbait-ek indartsuago egiten zaituela erranen dute, baina ezta pentsatu ere, ni bederen ez nau indartsuago egin. Lur jota utzi ninduten, autoestimurik gabe, zerbaitetan desagertzeko gogoz. Gainera, momentu hartan ez nuen indartsuagoa izan behar, nik haur bat izan behar nuen eta listo. Baina tira, orain badi-tut lagunak, badut kuadrilla eta bederen alde soziala ongi dut, arazoa ni ez naizela ikusi dut.

**«GUSTURA
GALDETUKO NIEKE
ZERGATIK EGIN
ZUTEN»**

Eta alde emozionala?

Oraindik lantzen ari naiz. Berteze psikologo batekin nabil...

Gaur egun baduzu harremanik haiekin?

Nire lagunengana izaten segitzen dute, baina nireak ez. Ikusten badiut agurtuko ditut, eta nire lagunengana etortzen badira, ez diet zakar egingen, eta ez dut errabiarik sentitzen. Egoera batzuk kudeatzen ikas-tea lortu dut. Badakit jendea aldatzen ahal dela eta ez direla orduko pertsonak, baina ez dut atzenduko inoiz zer egin zidaten. Zorteko sentitzen naiz urte batzuen buruan batzuek barkamena eskatu zidatelako. Gisa horretara, baieztatu ahal izan nuen egin zidatena egiazkoa zela eta bazekitela min egin zidatela. Niretako arras garrantzitsua izan zen aditu nahi nuen guztia aditzea, nahiz eta aurpegi-rak bakarrik eskatu zidan barkamena. Espero dut egiatan konturatu izanen zirela zer min egin zidaten, eta espero dut ez dutela errepi-katuko. Beraien laguna, ordea, ez naiz inoiz izanen; ez gorroto ditudalako, baizik eta ez nintzatekeelako haietaz fidatuko. Erasoak aspaldi akitu ziren, baina presioak hor segitzen du. Eta nire izaeran ere eragin du. Ni herrian pertsona bat naiz, eta hemendik kanpo arras bertzelakoa.

Zerbait erran nahiko zenieke?

Gauza aunitz, eta batez ere gustura galdetuko nieke zergatik egin zuten egin zutena. Baina ez dut aukerarik izanen.

Zein aholku emanen zenioke halako egoeran dagoen gaztetxo bati?

Erraten duten guztia teoria da. Gaiari buruz aunitzetan leitu dut ez dela isildu behar, gertatzen dena kontatu behar dela. Baina zer egin behar duzu kontatu eta ez badizute kasu zipitzik egiten? Gurasoen aldetik ez nuen hori sentitu, baina inguruko gainerakoek ez zidaten batera kasurik egin. Ez dut hitzik horrelako egoeran dagoen gaztetxo batendako. Halako egoera batean dagoela jakinen banu, ez nuke hitzekin animatuko; zerbait egingen nuke.



Tokiko produktuen kontsumoa sustatzea da helburuetako bat. ARTXIBOKOA

Nekazaritzako elikagai sektorearen aldeko apustua

Cederna Garalur elkartearen babesarekin gauzatzen ari den 'Bidasoa Elikadura' plan estrategikora hamasei udal atxiki dira

TTIPI-TTAPA

Malerrekako, Bertizaranako eta Bortzirietako udalak nekazaritzako elikagai sektorea eta bertako produktuen kontsumoa bultzatuko duen *Bidasoa Elikadura* plan estrategikoa abian jartzeko eskualde mailako ekimenaren xehetasunak zehazten ari dira.

Plan estrategiko hori 2020an hasitako prozesu baten emaitza da. Malerrekako Mankomunitateak nekazaritzako elikagai sektoreari buruzko lehen diagnostikoa egin zuen, eta horretan elikadura kateko eragile guztiek parte hartu zuten: toki erakundeak, ekoizpen eta lanketa enpresek, eskolako jangelen kudeatzaileek eta herrietako dendariak. 2021ean, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateak antzeko azterlan bat egin zuen, eta sakonago aztertu zuen tokiko produktuen kontsumoan. Bi azterlan horiek Tokiko Agenda 21en finantziazioa hartu dute.

Azkenik, Beran eta Sunbillan egindako bi lan saioetan diagnostikoen emaitzak eztabai datu ondotik, plan estrategiko

bat landu dute, eta toki erakundeek plan hori martxan jartzea erabaki dute, Malerrekako/Bertizarana/Bortzirietako elikadura sistema garatze aldera. Lehen sektorea garatzea eta tokiko produktuen kontsumoa sustatzea hartu dute helburu.

Hamasei udal atxikiak

Oraingoan, hamasei udal atxiki dira ekimenara, Bortzirietako eta Malerrekako gehienak: Arantza, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Elgorriaga, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oiz, Urroz, Sunbilla eta Zubieta.

Gainera, gobernantza sistema bat diseinatu dute, eta horren barnean udal bakoitzeko ordezkariak osaturiko jarraipen batzorde bat, hiru batzorde betearazlerekin batera: ekoizpen sektorea, jantoki kolektiboak eta sustapena eta sensibilizazioa.

Horrez gain, Cederna Garalur elkarteak plana dinamizatu eta lantaldeak koordinatuko dituen pertsona bat kontratatuko du.

Ekainaren 3an bukatuko da Bortzirietako udaleku irekietan izena emateko epea

TTIPI-TTAPA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak udaleku irekiak antolatu ditu bortz herrietan. Izen ematea maiatzaren 23an hasi zen, eta ortzirale honetan bukatuko da. Online egin behar da, www.bortzirietak.eus webgunean. Eskaintza 2010-2018 urteen bitartean jaiotako haurrei eginen zaie; eta hurrek eskolatuak egon behar dute parte hartzeko. Behar bereziak dituzten haurren kasuan, adin muga 15 urtekoa izanen da. Herri bakoitzean gutxienez 15 haurrek izena eman beharko dute udalekuak antolatzeko.

Arantzan, Beran, Etxalarren eta Igantzin udalekuak uztailaren 4tik 29ra biak barne izanen dituzte. 10:00etatik 13:00etara, eta asteka izena emateko aukera izanen dute. Aste bakoitzak 22,5 euroko



2019ko udalekuak. UTZITAKOA

prezioa izanen du. Lesakan, aldiz, uztailaren 11n hasi eta abuztuaren 26an bukatuko dira, zazpi aste denera. Kasu honetan ordutegia 09:00etatik 13:00etara izanen da, eta asteka apuntatzeko aukera izanen da. Lesakan, 30 euroko prezioa du asteak. Izena ematen duen bigarren senideak % 15eko deskontua izanen du, eta hiru senide edo gehiagoren kasuan % 30eko deskontua izanen da.

Banatu dituzte Baztan-Bidasoko XXXV. bertsopaper lehiaketako sariak

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 27an egin zuten Berako Kultur Etxean Baztan-Bidasoko XXXV. bertsopaper lehiaketako sari banaketa ekitaldia. Denera lau kategoriatan banatu dituzte lanak, eta kategoria bakoitzean bi saridun izan dira. Sariak banatzearekin bat, irabazleek beren bertso sortak kantatu zituzten publikoaren aitzinean.

A mailan (10 urte artekoak) Lesakako Maialen Ormaetxea Errok eskuratu du lehen saria *Ikasketak* bertso sortarekin. Bigarren saria, Anizko Harriet Ruiz de Larrinaga Maritorenak lortu du *Nere urtebetetzea* sortarekin.

11 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek B mailan, Kattin Madariaga Apaolaza aranztarrak irabazi du sariketa *Paper*

txuriak lanarekin, bigarren saria, aldiz, Berako Loitzate Goñi Elortzak eskuratu du *DBH* bertso sortarekin.

15 eta 18 urte bitartekoek C mailan Berara joan da sari nagusia, Ziortza Goia Mitxelena irabazi baitu sariketa *Heltzeko goizegi* bertso sortarekin. Bigarren saria, aldiz, Arantzako Gaizka Zulaikak lortu du *Arantzako inauterik* izeneko lanarekin.

Sari nagusiak Lesakara

Maila nagusian, Lesakara joan dira bi sariak. Eneko Fernandez Maritxalar bertsolari lesakarrak irabazi du lehen saria *Amore ematea ez da aukera bat* bertso sortarekin. Bigarren saria ere, Lesakara joan da, Uxue Mesa lesakarrak irabazi baitu *Ikaslearen astea* lanarekin.



Berako dantzariak 2018ko Dantzari Ttiki egunean. UTZITAKOIA

Dantzari Ttiki eguna ospatuko dute ekainaren 11n

Berriozarko, Beasaingo eta Ibarako dantza taldeak etorriko dira Berara dantzara Dantzari Ttiki egunean

A. LARRETXEA

Dantzari Ttiki eguna antolatu du ekainaren 11n Gure Txokoa Dantza Taldeak. Herriko dantzariak, eta Nafarroatik eta Gipuzkoatik etorritako hiru talde ariko dira: Berriozarko Hulargi, Beasaingo Aurtzaka eta Ibarako Alurr. 10:00etan ailegatuko dira dantzariak herrira, eta 10:30ean aterako dira hiru taldetan banatuta Berako karriketan dantza egitera.

Talde bat Agerrera joanen da, bertze bat Legian barrena, San Esteban karrikara eta Burga plazara, eta azken taldea

lehenengo zahar etxera, eta handik Eztegarra pasealekuan barrena Ugalzuria karrikara eta Matzadara. Talde guztiak 12:00etan elkartuko dira Iamotenean, eta kalejira egingen dute Merkatu plazara. 12:30ean dantza jaialdia egingen dute bertan. Eguraldi txarra egiten izanen da.

Ondotik, kanpoko haurrak Berako haurren etxeetara joanen dira bazkaltzera, eta eguna bukatzeko 16:00etatik 18:00etara Jaiki Hadi taldearen eskutik erromeria izanen da Labiaga Ikastolako estalpean.

Ibardingo igoeraren 6. edizioa egingen dute ekainaren 4an

TTIPI-TTAPA

Ziharka Sport Bortzirietako Automobil Taldeak seigarrenez antolatu du Ibardingo Igoera larunbaterako. Parte hartzaileek 4,5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Altzatetik Ibardingo kaxkoraino. 12:00etan itxiko dute

Bera eta Ibardin lotzen dituen NA-1310 errepidea, eta 13:30ean abiatuko da lehen parte hartzailea.

Hiru kategoriatan banatuko dituzte sariak: Scratch mailan, taldeka eta Junior kategorian, eta sari banaketa Altzateko plazan egingen dute.

Guztiok taldearen aldeko futbol txapelketa solidarioa ekainaren 5ean

TTIPI-TTAPA

Zelaieta futbol txapelketa solidarioa jokatu dute Matzadara futbol zelaian igandean, ekainaren 5a, Bortzirietako Guztiok taldearen alde. Gure Txokoa Elkartek antolatu du txapelketa eta Infantil mailako Osasunako, Realeko, Baz-

tango, Doneztebeko, Beti-Gazteko eta Gure Txokoko taldeek hartuko dute parte. 16:30ean hasiko da lehiaketa.

Ez da lehiaketa hau antolatzen duten lehenengo aldia, 2009an antolatu baitzuten lehenengoz Genaro eta Unai Zelaieta futbolariaren omenez.

Altzateko bestak ospatuko dituzte ekainaren 10ean, 11n eta 12an

TTIPI-TTAPA

Egitarau oparoa osatu dute Altzateko bestetarako. Ortziralean hasiko dira bestak iluntzean botako duten txupinazoarekin. Ondotik, erraldoiekin kalejira egingen dute. Larunbat goizean Dantzari Ttiki egunaren barrenean, dantza-

riek emanaldia eskainiko dute Merkatu plazan. Auzo bazkaria izanen da eguneko protagonista, zikiro jatea izanen baitute akordeloiari alaituta. Igandean, ere ekitaldiak izanen dituzte. Egitarau osoa erran.eus atarian ikusten ahaliko da heldu den egunetan.

**Guillermo LARRAÑAGA doktorea**
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA / FLEBOLOGIA / LINFOLOGIA

- Barizeak, prebentzioa, diagnostikoa eta tratamendua
- Kirurgia integrala teknika pertsonalizatuekin
- Tratamendu estetikoak, armiarna eta malformazioena
- Ekografia kardiobaskular diagnostikoa-Ekointerbenzionismoa
- Zainetako ultzerak, gaixotasun linfatikoak



Centro Médico Bera
San Esteban 17, Bera

Telefona: 610 549 507

**BILTEGIA**
948 630 102
SAKELAKOIA: 633 480 563
Bidaxoa, 76 - atea 21-22 • BERA

**Manterola**
Tekniko instalatzailea
ITURGINTZA • GASA
KALEFAKZIOA
Zerbitzu anitzak &
Gremioen koordinazioa
629 449 602

Ainhoa Alzuguren Mitxelena

Abokatutza orokorrean • Herentziak
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com



Maiatzaren 21ean paratu zuten tailla herriko etxeko arkupeetan. TTIPI-TTAPA

Josu Goiak hasitako tailla paratu dute herriko etxean

Duela 30 urte hasi zuen Goiak tailla egiteko prozesua, eta auzolanean bukatu dute orain herriko hainbat lagunek

A. LARRETxea

Duela 30 urte Berako eta euskal kulturako hainbat sinbolo eta erreferentzia biltzen dituen zurezko tailla bat egiteko prozesua abiatu zuen auzolanean Josu Goia artistak. Hasi bai, baina, hainbat arrazoirengatik bukatu gabe gelditu zen proiektu hura, eta 30 urtez Goiak Etxalarren zuen etxeko sotoan egon da gordea egurrezko tailla. 2018an zendu zen Goia, baina, horren aitzinetik orduko udal taldeari tailla hori bukatu eta herriko etxeko arkupeetan paratzeko nahia adierazia zion. Iazko udazke-

nean Rafa Unsionen ekimenez tailla hori Etxalartik herrira ekarri eta auzolanean moldatzen hasi ziren. Alkaiagako pabilloi batera eraman, eta hamaika laguneko taldea ibili da lanean, Malerrekako Migeltxo Etxeberria, Jose Inazio Telletxea eta Luis Mari Esarte adituak gidari zituztela.

HERRI ETXEKO ARKUPEETAN PARATU DUTE EGURREZKO TAILLA

Maiatzaren 21ean egin zuten taillaren aurkezpena. Ekitaldia hasteko Aitor Elexpuruk hitz batzuk egin zituen, ondotik Ekhiñe Zapiain bertsolariak Josu Goiaren ibilbidea kantatu zuen sei bertsotan. Eskultura ikusgai paratu, eta aurrerua dantzatu zuten Gure Txokoa Dantza Taldeko hiru dantzarik. Ekitaldia bukatzeko, Migeltxo Etxeberria egin-dako lanaren nondik norakoak azaldu zituen.

Auzolanaren eredu

Lauki zuzen formako egurrezko tailla da, haritz egurrez egina, eta 5,94 metro luze eta 2,16 metro garai dena. Bertan, Euskal Herriko zazpilurraldeen armarrak ikus daitezke, baita Bortzirietako armarraria ere. Euskal mitologiako hainbat erreferentzia daude Bera inguratzen duten mendi esanguratsuen irudiak ere zizelkatuak daude, Berako hainbat auzotako izenekin batera. Horrekin batera lauburu eta Arrano Beltza ere ageri dira.

«Altxor» hau berreskuratzea «auzolanaren bertze adibide eder bat» dela azaldu du Aitor Elexpuru Berako Alkateak, eta tailla bukatzeko lan egin duten norbanako guztiak eskertu ditu: «Alkaiagako pabilloaren jabeak, adituak, zizelkatzen aritu diren boluntarioak, eta isilean, inurri lanean aritu diren bertze hainbat lagun, horiek gabe ezinezkoa izanen litzatekeelako amets hau egia bihurtzea».

Eztegara frontoia itxita mantentzeko erabakia hartu du udalak

TTIPI-TTAPA BERA

Udalak bando bidez jakinarazi duenez, Eztegara frontoia itxita mantentzeko erabakia hartu du. Orain arte, egunez irekia egoten zen, eta gauez ixten zuten. Hemendik aitzinera, ordea, erabili ahal izateko aitzinetik ordua hartu beharko da kiroldegian edo *Bera Hurbil* aplikazioaren bidez. Edozeinek erabili ahal izango du frontoia, baina modu «kontrolatu eta zentzuzko» batean.

Erabaki hau hartzearen arrazoi nagusia frontoiaren erabilera desagokia da. Erabilera desagoki horren hainbat adibide biltzen ditu bandoak: komunak ez zaintzea, eta tresneria xehatua agertzea; zaborra non-nahi agertzea; goiko harmailtako leihoak etengabe bortxatzea; goiko leihoe-tatik karrikatik doan jendeari objektuak botatzea; alarma behin baino gehiagotan zartaraztea; aldatzeletako markoa errotik ateratzea; sute txikiak piztea harmailtako aulkiak errez, sarreraok argiak haustea; su itzalguiluak behin eta berriz hustea...

Bertze udal eraikin batzuk bezala, hemendik aitzinera erabilera «kontrolatua» izanen du frontoia.

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 · Altzate, 17 · BERA

LABE ZAR
Astilabonetik
ortziriora:
07:15etik
aitzinerara
Larunbata
eta igandea:
08:00etatik
aitzinerara
948 631 076 • BERA

TTIPI-TTAPA SARE SOZIALETAN
facebook
www.facebook.com/ttipi.ttapa

Osatzuz
Psikologia- Psikoterapia Haurrak-helduak
Garbiñe Goia Irazoki
GESTALT PSIKOTERAPEUTA ETA BIKOTE ETA FAMILIA PSIKOTERAPEUTA
BAKARRAKO TERAPIAK: haurrak, nerabeak, helduak
619 343 755 Altzate 1 BERA

MARITX
• INGENIARITZA ELEKTRIKOA
• PROIEKTU ELEKTRIKOAK
• BOLETIN INDUSTRIA
• INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
T. (0034) 636 617 450
Legia, 23 - BERA

«Kontraesan konstante batean bizi dut bertsolaritza»

EKHIÑE ZAPIAIN ARLEGI BERTSOLARIA

Berriki irabazi du Ekhiñe Zapiainek Hernandorena bertso sariketa, eta plazaz plaza ere aritzen da. Bertsotan «gustura» aritzen den arren, bertsolaritzarekin harreman «gorabeheratsua» duela dio

A. LARRETXE BERA

Bertsolaritzarekiko daukan «kontraesan konstantea» emakume eta gazte izatearekin lotu du Ekhiñe Zapiain bertsolari beratarak. Haurra zela hasi zen bertsotan, eta berriki irabazi du Hernandorena sariketa.

Pasa dira egun batzuk Hernandorena gazte sariketa irabazi zenuenetik. Zer sentsazioekin zaude?

Nahiko sentsazio onarekin. Egia da ariketa batzuk bertzeak baino hobe joan zirela. Giroa ere goxoa zen, eta niri behintzat saioaren hagitz oroitzen ona gelditzen zait. Bertze bertsolariak lagunak nituen, eta uste dut horrek ere lagundu zuela sentsazio hori izaten.

Hernandorena sariketa etorri da orain, baina, 2020ko otsailean Getxoko Abra irabazi zenuen. Zenbateko garrantzia dute horrelako sariketek bertsolari gazteen ibilbidean?

Uste dut horrelako sariketek pisu handia dutela bertsolari gazteengan. Ez dakit horrela beharko lukeen, baina, zoritxarrez markatzen dute erabat gero izanen duzun bertso ibilbidea. Aunitzetan sariketa horiek mugatuak eta gutxi izaten dira, eta sariketa horietan nola egiten duzun erabakigarria da zure bertso jardunean. Erakusleho garrantzitsua ere badira, baina, ezin da bertsolari gazteon jarduna gazte sariketetara mugatu. Alde baikorrek ere badituzte,



Ekhiñe Zapiain bertsolaria. UTZITAKOIA

baina, ez nuke nahiko hori izatea gure plaza edo erakusleho bakarra.

Nafarroako Bertsolari Txapelketan ere ikusi zintugun iazko udazkenean. Nolako esperientzia izan zen?

Gorabeheratsu oroitzen dut. Lehenengo aldia zen izena eman nuela, eta gehiegi pentsatu gabe apuntatu nintzen. Nahiko lasai joan nintzen galtzeko deus ez nuelako, lehenengo aldia zenez, ez nuen inolako presiorik, ez bazen nik neure buruari jartzen niona, eta nahiko handia zen hori. Alde horretatik lasai, ez nuelako deus demostratu behar. Bertze alde batetik, uste dut neure buruari presio handia jarri niola, eta uste dut ez nue-

la nahi nuen gisa prestatu, eta saio aurreko aste horiek nahiko urduri pasa nituela. Hala ere, uste dut nahiko esperientzia ona izan zela. Ez nituen bertze bertso-kideak horrelako egoera batean ezagutzen, eta nahiko harrigarria izan da lehia hori ikustea.

Plazaz plaza ere bazabiltza. Nolako izaten ari da?

Nahiko gazi-goza. Orokorrean gustura nago, eta nahiz eta nire ibilbidearen hasiera pandemia testuinguruan izan zen, eta plazak erabat murriztu ziren. Uste dut orain hasi dela lehengo martxa hartzen. Plaza formatu diferenteak ezagutu ditut: bertso musikatuak, bertso afariak... Orain arte gazte sariketetan eta jaialdietan bakarrik kantatu izan dut. Gustura nago probatzen, ikusten zeinetan nagoen eroso, lehenengo aldiz kantu-kide diferenteekin kantatzen... Gustatzen ari zait esperientzia.

«SARIKETEK ERABAT MARKATZEN DUTE BERTSO IBILBIDEA»

«GUSTURA NAGO PLAZA FORMATU DIFERENTEAK PROBATZEN»

Uda iristearekin bat goiti egiten dute bertso saioek. Nolako uda aurreikuspen duzu?

Udako aurreikuspena ez dut argiegi. Bertsolaritzarekin dudan harreman gorabeheratsua da, batzuetan iruditzen zaidalako hagitz gustura nagoela, denbora eskaini nahi diodala, baina, bertzeetan nire beldur, konplexu eta segurtasun faltak sekulako papera jokatzen dutela bertsotan ere. Aunitzetan pentsatzen dut hobe dela tarte batez lasaiago hartzea ni hobeki sentitzeko. Beraz, ez dakit uda honek zer ekarriko didan, ez neure buruak nondik jokatuko duen.

Zein leku du bertsolaritzak zure egunerokoan?

Bertsolaritzak sekulako lekua du nire egunerokoan, baina, bertsotan aritzeko horrek ez hainbertzekoa, orain aurkitzen ari naiz zenbateraino sentitzen dudan neure burua bertsotarako gogoz. Aunitzetan saio on baten ondotik izaten dut gogoia denbora eskaintzeko, lantzeko... Baina, egia da saio guztiak ez direla onak izanen, eta badirela saioak ez zarena hain eroso sentitzen. Horrelakoetan ere pentsatzen dut zenbaterainoko gogoia dudana. Kontraesan konstante batean bizi dut bertsoa.

Emakumea eta gaztea zara. Nabaritu duzu zapalkuntzarik izate horretatik?

Bai, eta uste dut nire kontraesan konstante hori izatearen arrazoietako bat dela banai-zela gaztea eta emakumea. Eta ez bakarrik bertsotan, orokorrean bizitzan horrek suposatzen duen pisu horregatik guztiagatik ematen dizkiodala hainbertze buelta bertze batzuk ematen ez dizkioten gauzei. Emakume eta gazte izateak eragiten du gure jokatzeo moduan, edo izateko moduan. Uste dut horregatik bizi dudala bertsoa horrela, eta bizi dudala bertsoarekin kontraesan hau: batzuetan horren gustura eta bertzeetan hainbertze beldur, konplexu eta segurtasun faltarekin.



Etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldan izena eman nahi dutenek Nasuvinsaren Doneztebeko bulegoan egin dezakete

Nasuvinsa
Navarra de Suelo y Vivienda, S.A.

Bere zerbitzuen estaldura indartu du Nasuvinsak, batetik, landa eremuetako herritarrentzat bereziki beharrezkoa den zerbitzu publikoa hobetzeko, eta bertetik, herritarrei informazioa eskuratzeko eta tramite administratiboak egiteko aukera emateko. Gisa honetara, orain arte Iruñeko edo Tuterako bulegoetan egiten ziren tramiteak, orain Nasuvinsaren edozein bulegoan egin daitezke, betiere, aitzinetik hitzordua hartuta.

Nafarroako Gobernuaren etxebizitza babestuen eskatzaileen erroldan izena eman nahi dutenek tramite hori aurrez aurre egin dezakete Nasuvinsaren bulegoetan. Eskatzailearen errolda-herria edozein dela ere, aitzinetik hitzordua hartu baino ez da egin behar horretarako.

Doneztebeko bulegoaren kasuan, hitzordua 848 420 140 telefonora deituta har daiteke, astelehenetik ortzirralera, 09:00etatik 14:00etara.

Horrez gain, Doneztebeko bulegoan Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboaren DaVid programari (Etxebizitza Eskuratzeko Kenkarien Programa) buruzko informazioa eska daiteke, baita horrekin lotutako tramiteei buruzko informazioa ere (Eskaera, aldaketa, bankuko ziurtagiriari aplikaziora sartzea, berritzea...).

Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboko bigarren programa EmanZipa da, gazteei emantzipatzen laguntzeko programa. Horri buruzko informazio eskaerak emanzipa@navarra.es helbide elektronikoaren bitartez egin beharko dira, eta tramiteak, orain arte bezala, lotura honetan:



Nasuvinsaren aurrez aurreko arreta Internetez ematen dituen zerbitzuen osagarri da. Internet bidezko zerbitzuak aldaketarik gabe segituko du, eta informazioa biltzeko eta tramiteak egiteko aukera izanen da webgune hauen bidez:

Nafarroako Gobernuaren webgunean:

- Etxebizitza babestuen eskatzaileen errolda



- Etxebizitzarako Eskubide Subjektiborako programak:

- DaVid



- EmanZipa



Nasuvinsaren webgunean:

- Etxebizitza babestuen eskatzaileen errolda



- DaVid



ETXEBIZITZAK ZAHARBERRITZEKO LAGUNTZAK, BAITA HONAKO HAUEK ERE:

Etxebizitza publikoen sustapena

Alokairu poltsa

Hirigintza

Garapen jasangarria

Lurzoru industrialia

DONEZTEBE/SANTESTEBAN
Mercaderes 6 - 31740

☎ 948 456 103
📧 baztan-bidasoa@nasuvinsa.es



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Beti Gazteren Astea bukatzeko margoak, argazkiak eta dantza

Igandean VI. Argazki Rallyaz eta margo azkarreko IX. Lehiaketaz gain, lerro dantza taldea ere plazan ariko da

AITOR AROTZENA

Beti Gazte Astearen barrenean azkeneko ekitaldiak izanen dira ekaineko lehen asteburu honetan.

Ekainaren 3an, ortziralean 16:30ean, eskola futbola izanen dute Mastegin eta 19:00etan mahai joko txapelketen finalak Beheko Plazan.

Ekainaren 4an, larunbatean 08:00etan mendi irteera izanen da. 10:00etan futbol txapelketak. 12:00etan erraldoi konpartsa aterako da. 14:00etan bazkari herrikoia. 18:00etan Muxikoak eta 20:00etan musika Plaza Zaharrean.

Ekainaren 5ean, igandean, argazkilariak eta margolariak ikusiko ditugu herriko txokotan. Alde batetik, Elias Garralda IX. Margo Azkarreko lehiaketa antolatuta du Beti Gaztek, udalarekin eta Lesakako Zerbitzuen Elkartearekin elkarlanean. Lehenbiziko saria 700 eurokoa izanen da, bigarrena 350 eurokoa eta herritar baten margolan onenak 150 euro jasoko ditu. Haur Margolarien Eguna ere izanen da eta, adinaren arabera, hiru katego-

riatan banatuko dituzte lehiaketara aurkeztuko diren haurren lanak. Maila bakoitzean margolan onena sarituko dute.

Bertzetik, VI. Argazki Rallya ere izanen da. Izen ematea 09:00etatik 10:00etara egin daiteke eta argazkiak 14:00 arte atera daitezke. Lanak aurkezteko epea ekainaren 12an bukatuko da, argazkilaritza@betigazte.net helbidean. Lau gai proposatuko dituzte eta gai bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu, bazkide baten argazki onenak bezalaxe. Gainera, 150 euroko saria izanen da bilduma onenarentzat. Igandea borobiltzeko, 19:00etan lerro dantza taldea ariko da.

Maiatzeko azken aste honddarrean hasi ziren Beti Gazteren Asteko ekintzak: Ezagutu Dezagun Lesaka sari banaketa, Errekaren Eguna, Beti Gazte Kantari, margolaritza tailerra, mahai-joko txapelketaren hasiera eta *Mendiak 1976* filmaren proiektzioa izan zituzten orduan. **Ekainaren 12an**, azkenik, Lesakako Mendi Itzulia egingen dute.

'La bona Germanor' antzezlana ekainaren 4an

Xavi Morató katalanak idatzi eta zuzendutako *La Bona Germanor* antzezlana ikusgai izanen da ekainaren 4an, larunbatean, 19:00etan Harriondo kultur etxean. Antzezleen artean Lesakan sortutako Javier Petrirena dago. Sarrerak sei eurotan Harriondoan salgai.

Bertso Eguna antolatu dute ekainaren 5ean

Bortzirietako Bertso Eskolak Bertso Eguna antolatu du ekainaren 5ean. Igandean bertsoak kantatzeko aukera izanen du nahi duenak 12:00etan Antoiun, 12:30ean plazan eta 13:00etan Onin ertzean. Gero bazkaria izanen dute Arranon (txartelak: 618 96 30 11).




XULUFRINAK

Xulufriren bila mendi ateraldia

Emakumeen* mendi buelta egin zuten maiatzaren 15ean xulufriren bila. Lorea Flores Compains taldekideak xulufriren inguruko azalpenak eman ondotik xulufriren dauden leku batera joan ziren «gure sare feministari izena ematen dioten loreak ikustera eta usaintzera».

Xabier Valverde Nafarroako txapeldun

Nafarroako trial txapelketa burutu zen maiatzaren 15ean Lizarran. Infantil mailan, Lesakako trial taldeko Xabier Valverde suertatu zen txapeldun eta Goiuri Urta taldekidea laugarren. Hasiberrien kategoria mistoan, txapeldunorde izan zen Uxuri Portu.



la 250.000 euro saihesbiderako eta baserri bideetarako

Asfaltoarekin edo hormigoiarekin zuloak eta arraildurak estaltzen eta pendoitzak indartzen inbertituko ditu udalak

IRUNE ELIZAGOIEN

Saihesbidean eta baserri bide nagusietan mantentze-lanak uda hasieran egitea aurreikusi du udalak eta denetara 246.704 euro inbertituko ditu herriko saihesbidea eta Urritzokietan, Larrapil-Sarriku, Lurriztiederra, Lakain-Apezborro eta Gorosurreta auzoetako bide nagusiak hobetzeko. Oraingoan mantentze-lan hauek kanpo gelditzen da Etxalartik Zugarramurdi eta Baztan aldeko bidea. Horretarako dirulaguntza eskatua zion udalak Nafarroako Gobernu-

ri baina azkenean ez du dirulaguntzarik hartuko.

Asfaltoarekin edo hormigoiarekin bideko zuloak eta arraildurak tapatzen eta beharrezkoa den tokietan pendoitzak indartzen 246.704 euro inbertituko ditu udalak bere diruetatik. Proiektu honek, zehazki, honako gastu-banaketa du: Urritzokietan, 61.181 euro; Larrapil-Sarriku, 19.119; Lurriztiederra, 45.621; Lakain-Apezborro, 67.361; Gorosurreta, 32.416; saihesbidea, 4.280; ingeniari-tza, 8.263; zuzendaritza, 8.263.

Igerilekuetako lanak egiteko lau lagun kontratu nahi ditu udalak

I. ELIZAGOIEN

Udal igerilekuetako funtzionamendu lanak betetzeko eta sorosle lanetan aritzeko lau lagun kontratatu nahi ditu udalak uda honetarako. Lan kontratuaren iraupena ekainaren 24tik abuztuaren 29ra bitartekoa izanen da. Instalazioak

zioak 11:00etatik 20:00 arte zabalik eduki beharko dira, besta egunak barne.

Baldintza guztiak www.etxalar.eus webgunean eta udal idazkaritzan daude interesatuen eskura. Eskakerak aurkezteko epea ekainaren 1eko 14:00etan bukatuko da.



ARTXIBOKOA

Eskolako krosa ekainaren 9an

LH6ko ikasleek krosa antolatu dute ekainaren 9an, 10:00etan. Haur Hezkuntzakoek 200 metro eginen dituzte lasterka; 1., 2., eta 3. mailakoek 700 metro; 4. eta 5.ekoek, irakasle eta helduek 1.200 metro. Izen ematea (euro bat, gosaria eta zozketa barne): etxalarkolh6krossa@gmail.com.

Asteburuko Gasna Feria egunerako dena prest du Altxata elkarteak

I. ELIZAGOIEN

Ekainaren 4an, larunbatean 22:00etan Andre Mari dantza taldeko dantzari helduenek dantza saioa eskainiko dute, herriko musikariak, koroak eta bertze hainbat lagunek lagunduta. Ekainaren 5ean, igande goizean, gasna eta artisau feria izanen da frontoian. XXIX. Altxata gasna lehiaketako sari banaketa eginen da 13:30ean eta segidan bertso bazkaria izanen da frontoian Oihana Iguaran eta Unai Mendizabalekin. Eskulan ikastaroko lanak ikusgai egonen dira eskola zaharretan. Goizean Iriondoan baserriko lan tresnen erakusketa zabalik egonen da eta herria trikitilariak alaituko dute.

'Gure genealogia feministak' ikastaroa

Euskal Herriko mugimendu feministaren historiari buruzko *Gure genealogia feministak* izeneko ikastaroa izanen da Emagin elkartearekin Etxalarko Kultur Etxean, ekainaren 3an, ortziralean 17:00etan. 1960. hamarkadatik emandako urratsak azalduko dituzte.

Bidasoaldeko kantu zaharren bazkaria larunbatean

Kantu zahar bazkaria eginen dute Etxalarko bentan ekainaren 4an. 13:00etan ongi etorri koktela eta 14:00etan bazkaria: Bankako kantariak, Beñat Mitxelena, Aitor Mendiluze... Txartelak salgai daude 50 eurotan eta kantu zaharren liburu ere eskura daiteke.

KAGU LIBURUDENDA
Tel. / Fax 948 638 232
Koskontako bidea, 7
(osasun-zentroaren parean)
31770 LESAKA

- PAKETEAK JASOTZEROKO GUNEA
- LIBURUDENDA
- KOLORETAN FOTOKOPIAK
- LIBURU EGINAKO INPRIMAKETAK
- ESKALERRAK
- ESKOLA MATERIALA
- INFORMATIKAKO MATERIALA
- BULEGOKO MATERIALA
- EGUNKARIAK, ALDIZKARIAK

Zalain
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria
astelehenetik ortziralera

Zalain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zalain.info



Giro polita izan zuten jubilatuen bazkarian. MAITE, ANA ETA ITZIAR

Hogei bat lagun elkartzen dira azken aldian jubilotekan

Zuzendaritza kontent dago, hasieran uste baino gehiago direlako eta Berrizaundik hiru etortzen direlako

MAITE, ANA ETA ITZIAR

Hasierako saiakera hutsik gelditu bazen ere, badirudi oraingoan gogoz hartu dutela herriko jubilatuek Gizarte Zerbitzuak antolatutako Jubilotekan parte hartzeko deialdia. Azken egunetan ia hogei lagun elkartu dira saioetan eta, beraien solasetan, giro ezin hobean aritzen omen dira, alde fisikoa nahiz kognitiboa lantzen (gihar luzaketak, memoria ariketak, psikomotrizitateko ariketak eta bertze hainbat). Zuzendaritzak erran duenez, hagitik kontent daude, uste baino lagun gehiago el-

kartu direlako eta batez ere Berrizaun auzotik hiru pertsona joaten direlako saio horietara.

Jubilatuen bazkaria

Joan den maiatzaren 20an, Igantziko zein Lesakako Arkupeak elkarteko kideentzako bazkaria egin zen Baratzondon. Bazkaria Igantziko kideek antolatua zen eta bertako talde polita elkartu zen eta giro ederrean ospatu zuten beraien eguna. Aspaldian horrelako otordu batean biltzeko aukerarik gabe zirenez, gogoz hartu zuten aurtengoa.



MAITE, ANA ETA ITZIAR

Sendabelarrak ezagutzeko ikastaroa

Maiatzeko igandeetan sendabelarren inguruko ikastaroa egiteko aukera izan da. Inguruko sendabelarrak ezagutu, bildu eta horiekin ukendu, enplastu, olio edo eta kremak egiten ikasi dute. Talde polita elkartu da eta eguraldia lagun, antzinako sendagaien erremedioak ikasi dituzte.

Igerilekuak zabalik ekainaren 11tik irailaren 10era

Aurten ere Igantziko Udalak igerilekuak kudeatzeko deialdia atera zuen. Lehenengo deialdia hutsik gelditu bazen ere, bigarrenean gazte batzulan hau egitera animatu dira. Beraien betebeharrak konunak garbitzea, leihatila kudeatzea eta ostatuko lanak izanen dira. Sorosle lanetarako berriz, udalak bi langile kontratatuko ditu. Igerilekuak irekiak izanen ditugu ekainaren 11tik irailaren 10era bitartean, biak barne. Bonuak nahi dituenak udaletxean izanen ditu esku-ragarri.

Eskola kanpaldiak eta dantza afrikarrak egunotan

Kurtso bukaera heldu da eta eskolako jarduera politenak ere hurbiltzen dira. Ekainaren 6an eta 7an Irrisarriland-era joatekoak dira Haur Hezkuntzakoak eta 8, 9 eta 10ean, berriz, LHko 1. mailatik 4. maila artekoak Hondarribira joanen dira. Bertzalde, iaz izandako arrakastaren ondoren, aurten ere, Lorzazi Emakume taldearen eskutik ekainaren 5ean eta 12an afrikar dantzen bi saio antolatu dituzte. Olatz Amalur izanen da gidari, eta zuzeneko perkusioaz gozatzeko aukera izanen da.

Arotxa

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18
31730 IRURITA
arotxa.taller@gmail.com
www.arotxataller.com

GARAJEKO ATEAK | **HORMANN** banatzaile ofiziala

TOLDOAK - ESTOREAK | Etxea-merkataritza-ostalaritza

Eguzkiaz babestu teldo batekin

Arantza Rocken 25. urtebetetzea abuztuaren 20an

Ekainean eta abuztuan pilota eta frontenis txapelketak antolatu ditu gazte asanbladak

NEREA ALZURI

Berriz ere ohikora bueltatzen ari gara eta Arantzako Gazte Asanblada ere udako ekitaldi handiari begira jarria da. Arantza Rock jaialdiaren 25. edizioa abuztuaren 20an egingen dutela jakinarazi du.

Horren aitzinetik, hala ere, ekainean eta abuztuan, Arantza Rocken aldeko pilotakadak antolatu ditu frontoian: alde batetik, ekainean 11n pilota txapelketa egingen du eta bertetik, abuztuaren 5ean frontenis txapelketa. Bi kasuetan izen ematea zabalik dago.

Izen ematea

Pilota txapelketan parte hartzeko ortzegun honetarako, ekainaren 2rako, eman behar da izena, 611 43 72 53ra idatzita. Eta frontenis txapelketan ari nahi dutenek uztailearen 2ra arteko epea izanen dute. Parte hartzeko 689 13 50 27ra deitu beharko da. Herritarrei eta herritik kanpokoei egin die parte hartzeko gonbita gazte asanbladak.

Bikoteko zortzi euro ordaindu beharko da eta eskuz edo Bizum bitartez egin daiteke ordainketa.



UTZITAKOA

Gure pilotariak Ezkiokoekin

Maiatzaren 21eko asteburuan Ezkioko pilota eskolakoak bisitan izan ziren Arantzán, eta Ekaitza Elkartekeo pilota eskolakoekin elkartu ziren. Larunbat arratsaldean elkarrekin pilotan eta jostetan aritu ondotik, merienda izan zuten eta aski arratsalde ederra pasatu zuten.

400 lagunetik goiti bildu dira hamargarren mendi itzulian

TTIPI-TTAPA

Giro paregabea eta harrera ezin hobea izan du X. Mendi Itzuliak. Duela lau urte egin zen hondarrekora, pandemia tarteko, 2020an ezin izan zelako egin. Aurten gogoz zegoen jendea maiatzaren 22a ailegatzeko eta 412 lagunek egin zuten buelta. Tartean, itzuli erdia egin zuten herriko 28 haur eta gaztetxok, Ekaitzatik herrira.

Parte hartzaileen gehiengoa ingurukoa izan zen, eta Euskal Herriko bertze hainbat lekutatik etorritakoek ere gozatu zuten. Itzuliaren ondotik, men-

dizale guztiei oroigarri bana eta hamaiketako eman zieten.

Bertzalde, hiru sari ere zozketatu zituzten: Arantza hotelean gaua, Juan Pedro Indak eraman zuen; Ekialde landetxean gau bateko egonaldia Iraia Arozenak eta Amaia ilepaindeko bonua Rosa Maizi tokatu zitzaion

Ekaitza Elkarteak, eskerrak eman nahi izan dizkie modu batera edo bertzera lagundu duten guztiei: herritarrek, parte hartzaileak, laguntzaileak, babesleak... Egun hau auzolan edo elkarlan ederra izan dela azpimarratu du antolakuntzak.



Mendizaleak hasierako metroetan eta haurrak Ekaitzan. MIKEL LARRETXEIA / MARIBEL TABERNA



EGUNEKO MENUA
SAGARDOTEGI MENUA
KARTA
OGITARTEKOAK
PLATER KONBINATUAK ...

T. 948 625 472
Alasta karrika - BERA
zubiondojatetxea.com

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA



Denda. 948 631 217
T. 630 136 863
Julio Caro Baroja, 6 - BERA
jaurenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean
Erreformatik, etxe berriak
Lantegietako mantentze-lanak

Etxetresnen salmenta, instalazioa
eta etxetresko konponketa
Antenak, satellite bidezko instalazioak



Zuhaitzak erosi, bota eta ateri
Piketeak eta sutarako egurra

Pio Baroja, 3 | Obenea | Bera | T. 617 981 427



Osasunaren egun ederrak elkartasuna hedatu du herrian

Minutuko isilunea gorde zen 39 urtez mediku izandako Pilar Martinezen omenez eta bi desfibriladore martxan jarri zituzten

MAIDER PETRIRENA

Egun borobila izan zuten maiaztaren 21ekoa Sunbillan, osasunaren aldeko eguna. Martxari hasiera eman baino lehen minutu bateko isilunea egin zuten, 39 urtez herriko medikua izan zen Pilar Martinez Jimenezen oroimen gisa eta bi globo, urdina eta arrosa, aineratu zituzten.

Martxa arrosa eta urdinarekin abiatu ziren plazatik eta estazioko pisuetarako bidean, labaderoan, lehen geldialdia egin zuten, bertan dagoen desfibriladorea martxan jartzeko. Ondotik estazioko pisuetatik, Juanemeneko iturritik pasatuz, goiko auzora joan ziren eta handik zubi zaharra gurutzatuz, herriko karrika nagusira. Bertan, bertze geldialdia egin eta udaletxeko atalpean, bigarren desfibriladorea martxan jarri zen. Martxan jartzea, Ramon Camposekin egin zuten. Hau Madriletik orain hiru hilabete ikastaro bat ematera etorri zen eta larunbatean osasunaren eguna zela eta, desfibriladoreak martxan paratu eta sunbilarrekin batera besta ederraz gozatzea etorri zen, baita bigarren ikastaro bat ematera ere. Martxa akitutakoan, haurrak murala margotzera joan ziren eta bitartean helduek Saray elkar-teko kideek emandako solasaldi ederra aditzeko aukera izan zuten.

175 lagun bazkaltzen

175 lagunek eliz atarian eskainitako bazkariak eta giro ederrez gozatzeko aukera izan zuten. Tartean sari ederrak zozketatu zituzten eta bingoa

ere izan zuten. Gaztettoek ere dantza egiteko aprobetxatu zuten musikaz lagundurik. Arratsalde partean, Ramon Camposen eskutik, bihotzeko baten aurrean eta itotzen ari den baten aurrean nola jokatu ikasteko aukera izan zen. Gaztaren pisaketa eta arratsaldeko bingoaren txanda ere ailegatu zen. Parte hartze haundia izan zen guztietan eta sariak ezin hobekak.

Taloak dastatzeko aukera ere izan zen. Sorpresa ere jaso zuen beti taloak egin eta zerbitzatzeko prest dagoen taldeak. Taula gainera igo eta bakoitzari mandarra xuri bat oparitu zieten. Ondorengo Jartzen du mandarrean: «Eskerrik asko umorez eta alaitasunez egiten duzun lanarengatik». Taloak dastatu eta tragoak edan bitartean mariatxiak aditu eta dantzatzeko aukera izan zen Chuchin Ibañez eta Jesus Tapizen eskutik.

Enkantean 1.530 euro

Osasuna, Reala, Athletic, Eibar, Ezkurdia, Altuna eta Zetak-en kamiseten truke enkantean parte hartzeko aukera 20:00etan akitu zen. Ondotik, Aitor Ibarra *Jaliskok*, emaitzak nola gelditu ziren aipatu zuen. Guztira 1.530 euro eskuratu dira bi elkarteei, Saray eta MPSri emateko. Bi lote ederren zenbakiak ere atera zituzten eta Urko Gastearena eta Iñigo Calderereri egokitu zaizkie. Guztira 7.500 txartel saldu dira. Mariatxiak akitu eta giroak aitzinera segitu zuen gauerdia arte, *Jaliskoren* eskutik musika paratuz.



Herriko etxeko arkupeko desfibriladorea erakusten. MAIDER PETRIRENA / AMAIA ARRETXEKA



Martxa arrosa eta urdina karrikaz karrika ibili zen.



Jalisko, Campos eta Anzizar, desfibriladora erakusten.



«Umorez eta alaitasunez» egiten duen lana eskertu zieten talo taldekoei.



Eguraldi ederra izan zuten Zumalekura egindako mendi ateraldian. JON ANZIZAR

Hainbat ekitaldi izan dituzte aurten ere Asteburu Kulturean

M. PETRIRENA

Giro ederrean joan zen guraso elkarteak, Antrotokik eta udalak antolatutako Sunbillako Asteburu Kulturala.

Maiatzaren 13an, ortziralean plazako jokuetan parte hartu zuten haur, gazte eta helduek. 19:30 inguruan Hurih taldeko Pitxi eta Olaiaren eskutik kontzertu akustikoa izan zen plazan. Akitutakoan bokata jatea plazan. Aitor Ibarra *Jaliskok* paratitako musikaz gozatzeko aukera ederra ere izan zen. Gauean afari autogestionatua izan zuten Ulibeltzak elkartearen.

Larunbateko ekitaldiak mus txapelketarekin abiatu ziren. Zortzi bikotek parte hartu zuten eta lehen biek sari ederrak eskuratu zituzten. Horrez gain, bikote txapelduna, Maria Jesus Iriartek eta Xabi Olazarrek osatutakoak, maiatzaren 28an Donamarian ospatzekoa zen

Malerrekaren egunean jokatuko den finalerako txartela lortu zuten eta beraiek izan dira Sunbillako ordezkari.

Goiz eta atsaldetz puzgarriak izan ziren. Eguraldi ederra lagun saltoka gozatu zuten neska-mutikoek. 14:00etan Bustitzen bazkaria izan zuten. Arratsalde partean tortilla lehiaketan sei taldek parte hartu zuten. Irabazleak Izaro Alzuri eta Xabi izan ziren. Ondotik, Aitor Ibarrek eta Jon Anzizarrek musika paratu zuten, bertan zeudenek musikaz eta dantzaz gozatzeko. Gau partean DJ Bullen eskutik giro paregabea izan zen.

Igandean ere, eguraldi ederra lagun izan zuten eta Zumalekurako mendi itzuliarekin hasi ziren. Zumalekun familia argazkia ateratu zuten. Eguerdian herrian barna gaiteroek giro ezin hobea jarri zuten.

Eneit Bertiz laugarren Alacanten

Eneit Bertiz Apezteak Superprestigio txapelketako hirugarren parte hartu zuten Tibin (Alacanten) maiatzaren 22an. Laugarren postua lortu zuen junior kategorian.



AMAIA APEZTEAK

Erreka elkartearen eguna ospatuko dute larunbatean

Bezperatik ere zenbait ekitaldi egingen badituzte ere, ekaineko lehen larunbatean egingen dute egun handiaren 14. edizioa

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Elkarteak, Udalarren eta Gazte Burrenaren laguntzaz, denboraldia behar bezala akitzeko, urteko besta nagusia antolatu du, Errekaren Egunaren hamalagarren edizioa. Ekainaren 4an, larunbatean, zehaztu dute hitzordua, bi urteko geldialdiaren ondotik.

Bezperatik mugimendua nabaritu da herrian. Ortziralean 17:00etan umeak eskubaloian ariko dira, aurrebenjamin eta benjamin mailakoak, eta akitzean merienda izanen dute. 17:00etatik 20:00etara puzgarriak izanen dira, kiroldegia atarian. 22:00etan Santa Luzia Plazan mus txapelketa handia jokatuko dute (irabazleentzat 300 euro eta bigarrenentzat 100 euro). Izena emateko 10 euro ordaindu beharko dituzte bikoteko.

Larunbatean egun osoko egitaraua

Ekainaren 4a, larunbata, izanen da egun handia. 08:30ean abiatuta, Malerrekaren barna bizikleta-bira izanen dute (56 kilometrokoa, Pepas kafetegitik abiatu eta Legasa, Gaztelu, Donamaria, Oiz, Urroz, Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra, Zubieta, Ituren eta Elgorriagan barna berriz ere Donezteben helmugaratuko dena eta bukaeran merezitako aperitiboak izanen duena). 09:30etik aitzinera kiroldegian gazteak eskubaloian ariko dira (alebinak eta infantil mailako neska-mutikoak); eta eguerdian, 12:00etan, Errekako Judo Eskolako erakustaldia izanen dute. Goizean pilota partidak izanen dituzte frontoian. Aki-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

tzean, hamaiketakoak izanen da parte hartu duten kirolari guztiarentzat

Arratsaldean, 16:00etan nesken eskubaloia partida jokatuko dute. 17:00etan Errekako jubenilen eta beteranoen arteko eskubaloia partida jokatuko dute eta 18:00etan Errekako talde nagusiaren eta Ohorezko B mailan ari den Zarautz taldearen artekoa. Erreka dantza taldeak ere bere emanaldia eskainiko du eta ondotik zozketak egingen dituzte.

Eguna borobiltzeko, 21:00etan herri afarian bilduko dira Santa Luzia Plazan. Afalondoan, Trikidantz taldearen eskutik, dantzarako tartea izanen dute.

HERRI AFARIAREN ONDOTIK TRIKIDANTZ ARIKO DA



Haur Hezkuntzako ikasleak baratzea lantzen. **ESKOLAK UTZIAK**

Kazetaritza eta baratzea lantzen ari dira Iturengo eskolan

Astelehenero aldizkaria argitaratzen dute 6. mailako ikasleek eta Haur Eskolako baratzea egin dute patioko lur eremuan

ARKAITZ MINDEGIA

Pulunpa eskolan lanean ari dira kurtso honetako azken egunetan. Alde batetik, kurtsoko azken hiruhilekoan seigarren mailako ikasleak kazetari lanak egiten ari dira eta astero astero astelehenetan argitaratzen dute aldizkaria, hainbat jakingarriekin.

Bertzetik, azken kurtsoan bezala, Haur hezkuntzakoak eskolako patioan dagoen lur eremuan baratzea sortu dute. Gelan landarearen inguruan lanean aritu dira, sustraia, zurtoina, hostoa, lorea, usaina... ikasi ondotik, horiek guztiak praktikan jarri. Gure etxeko txikiak lorezain bihurtu

dira, eta hortxe landatu dituzte tomateak, letxugak...

Bertsoekin han eta hemen

Herriko bertsolariak kantuan aritu dira berriki. Lekarozen ospatu den Aroztegiaren erresistentziaren urteurren bestako zikiro-jateko bazkalondan Iker Gorosterrazuk eta Alazne Untxalok bertso ederrak botatu zituzten.

Hala ere, ez dira izan herrikanpo bertsoa aitzakitzat hartu eta asteburuko plana egin duten bakarrak. Iturengo gaztetxoek bertso eskolako hainbat ikasle parte hartu zuten Arantzan maiatzaren 21-22an antolatu zen Nafarroako bertso eskolen egonaldian. Ginkana, bingo musikatua, ateraldia herrian barrena... Nafarroako eskolarteko bertsolari txapelketa aditzeko aukera ere izan zuten.

Aritz Fagoaga Berroetan

Berroetako V. maratoni erdia jokatu zen maiatzaren 15ean eta bertan Aritz Fagoagak parte hartu zuen. Herriko gazte honek gogotsu entrenatu zuen lasterketa honetarako eta lasterketa burutu zuten 89 kirolari artean 23. postuan akitu zuen (2.29.50).



UTZITAKOAK

Elgorriagako Mendi Itzulian beroa protagonista

Udaberriko egunik beroena izan zuten Elgorriagan, Mendi Itzulian ekiteko. Halere, hainbat herritarrek eta kanpotik etorritako bakarren batek ere osatu zuen hogeik kilometro inguruko ibilbide ederra.

'Lehen sektorean ekiteko gida' aurkeztu du Cedernak

TTIPI-TTAPA

Cederna Garalurrek maiatzaren 6an aurkeztu zuen Lehen sektorean ekiteko gida. Dokumentua bost urratsetan dago antolatuta, eta galderen bitartez ekintzaileek proiektuetan aurrera egin ahal izateko gaiditu behar dituzten alderdi tekniko eta ekonomikoak jasotzen dira. Era berean, gidak ekintzaileentzat lagungarriak izan daitezkeen hainbat tresna proposatzen ditu, eta laguntza ematen duten erakunde eta organismoak eta presakuntza-programa esanguratsueni buruzko bibliografia zabala biltzen du.

Gidan eredugarriak diren kudeaketa kolektiboko praktika onak jasotzen dira, eta kudeaketa-eredu berritzaileak eskaintzen ditu hainbat arlotan: ekoizpena eta eraldaketa, marken merkaturatzea eta sorkuntza, marketina, kudeaketa administratiboa eta instalazioen erabilera komunitarioa.

Noemí Salazar ingeniari agronomoa da gidaren egilea eta lehen sektoreak landa-eremuetan enplegua sortzeko egiten duen lana azpimarratzen du, «jarduera berriak sortuz, ustiategiak ordezkatzu edo dibertsifikatu». *Lehen Sektorearen Balorizazioa* izeneko proiektuaren barrenean egin den ekintzetako bat da *Lehen sektorean ekiteko gida*. Cederna Garalur da buru, eta Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasuneko LGENF funtsek finantzatu dute.



Errotako bidea moldatzeko lanak udan egingen dituzte

Arrixko eraikuntza enpresak egingen duen lanaren aurrekontua 36.400 eurokoa da eta Cederna Garalur elkarteak %70eko dirulaguntza emanen du



Errotara doan egurrezko bidea moldatuko dute. ARTXIBOKOA

FERMINTXO ETXEKOLONEA

Herriko erakargarri turistiko nagusia da Zubietako errota-museoa (2019an 2.468 bisitari izan zituen eta azken bi urtetan, pandemia bete-betean, 883 eta 934, hurrenez hurren). Gure herrietako eguraldi euritsua eta hezetasuna kontuan hartuz, ordea, bertara doan egurrezko bidea irris-ta suertatzen da batzuetan eta hori moldatzeko lanak egingen dituzte laister. Cederna Garalur erakundeak tokiko garapen proiektuak sustatzeko kudeatzen duen Landa Garapen Programaren (PDR) barrenean dirulaguntza lortu du udalak lan honi ekiteko. Arrixko eraikuntza enpresak egingen dituzten lanak, berea izan baita aurkeztutako proposamenen artean onena. Ekainean hasia espero dute eta bi hilabeteko iraupena izanen dute lanak. Lanen aurrekontua 36.400 eurokoa da eta Cedernaren dirulaguntza %70ekoa izanen da. Gainerakoa udalak hartuko du bere gain.

Herriko eskulangileak Beran laguntzaile

Berako Josu Goia zenak duela 30 bat urte hasi eta akitu gabe utzitako zur lana akitu dute zenbait lagunak auzolanean. Horrelako egur lanetan eskarmentu handia izaki, horiei erakusten eta gidari lanetan aritu dira herriko bi eskulangile ere, Luis Mari Esarte eta Migeltxo Etxeberria. Azken honek lanaren inguruko azalpenak ere eman zituen Beran maiatzaren 21ean egindako inaugurazioan.



**Elkarrekin
talde bikaina
osatzen dugu**

Zer garrantzitsua den ñabardurei arreta jartzea.
Ez baita gauza bera entzutea edo *kasu egitea*.

Honelakoa da gure Banka Pribatua.

Esaneko banka

www.cajaruraldenavarra.com








BERTIZARANA-MALERREKA



Joan den urteko frontenis txapelketako finalistak. ARTXIBOKOA

Sagardo Eguna Narbarten ospatuko dute hilaren 4an

Bi urteko geldialdiaren ondotik herriko aterpean eginen den bazkalondoa Hauspolariek taldea ariko da giroa jartzen

OLATZ MUTUBERRIA NARBARTE

Bi urteren ondotik, sagardoa kupaletik edateko, ongi bazkaltzeko eta musikaz gozatzeko aukera izanen dute ekaineko lehen larunbatean Narbarten ospatuko den Sagardo Eguneko parte-hartzaileek. 14:00etan bazkaria izanen dute aterpean: hasteko, entsalada, txorizoa sagardoan egosia eta bakailao tortilla izanen dute; ondotik, aukeran, idi-txuleta edo legatza eta akitzeko, sagardotegiko ohiko postrea: gazta, menbrilloa eta intxaurrak. Bazkalondoa Hauspolariek taldeak alaituko du.

Bigarren urtez frontenis txapelketa

Joan den urteko arrakasta errepikatzeko gozoz, aurten ere frontenis txapelketa eginen dute Narbarten. Txapelketa ekainean eta uztailean jokatuko dute eta izen emateak maiatzaren 30era bitarte egiten ahal ziren. Bikoteak zozketa bidez osatuko dituztela aitzindu dute eta izena ematerakoan pertsonako bi euro ordaindu behar ziren. Finala, uztaileko azken asteburuan eginen dute eta kopa eder bat eta sorpresa jokoan izanen direla iragarri dute.

Labaiengo Ittur-Ondo elkartearen eguna ospatu dute maiatzaren 14an

ARANTXA ITURRALDE

Urte pare batez elkartu ezinik egon eta gero, aurten itzuli da Beintza-Labaiengo elkartearen eguneko ospakizuna. Maiatzaren 14an, larunbatean, Labaiengo Ittur-Ondo elkartearen egin zuten bazkide egunaren bazkaria, giro ederrean.

Bazkaria eta gero mus txapelketa izan zen bazkideen artean, eta Periko Goñi eta Bibiano Urroz izan ziren irabazleak.

1999an eraiki zuten elkartearen auzolanean eta gaur egun 70 bat bazkide ditu Ittur-Ondok. Horietatik 55 bat bildu ziren ospakizunean.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

San Migelen irudia Ezkurran bisitari

Aralarko santutegitik atera eta herriz herri egiten duen erromesaldiaren barrenean, San Migelen irudia maiatzaren 16an etorri zen bisitan Ezkurrra. Lehenengo baserrietan geldialdi bat egin zuten eta gero herrian meza ospatu zuten, eguraldi eguzkitsu bikaina lagun.



TESTUA ETA ARGAZKIA: JAIONE ZABALO

San Isidro Egunean bildu dira jubilatuak

Joan den urtean ezin izan zuten elkartu, baina aurten ez dute hutsik egin Arkupeak elkarteko Ezkurrrako kideek. San Isidro Egunean, baserriarrei omenaldi bat eginez, Barranka jatetxean bildu ziren bazkaltzeko. Arkupeak elkarteko kide ziren hildako herritarren omenez meza entzun zuten.



Ittur-Ondo elkartearen eguna ospatu zuten maiatzaren 14an. ARANTXA ITURRALDE



“ERREFUS TXAPELKETA”

“LA RESTO COPA”



ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU RESTA Y GANA



ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU

183 Udalerri nor baino nor arituko dira 2 hilabeteen “errefus” gutxiago nork bilduko.

2022ko MAIATZAREN 2tik
UZTAILAREN 2ra

GUTXIAGO EDUKIONTZI BERDEAN/
GRISEAN ETA GEHIAGO URDINEAN,
HORIAN EDO MARROIAN

- GUTXIAGO GEHIAGO DA +

REDUCIR LA FRACCIÓN RESTO, TIENE PREMIO

183 Localidades competirán por ser las que menos cantidad de residuo “de resto” recojan en 2 meses.

DEL 2 DE MAYO AL
2 DE JULIO DE 2022

MENOS AL CONTENEDOR VERDE/
GRIS Y + AL AZUL, AL AMARILLO
O AL MARRÓN

- MENOS ES MÁS +



XII. Sagardo Eguna garagarrilaren 11n izanen da

Kultur Aroa borobiltzeko 16 etxetako sagardoa dastatzeko aukera izanen da

JUAN MARI BARRIOLA

Azken bi urte hauetan izan ez bada ere, aurtun bai, hamabigarrenez, Sagardo Eguna egingen da. 16 etxetako sagardoa dastatzeko aukera jarriko dute garagarrilaren 11n plazan, 19:00etatik aurrera.

Urtero bezala, herriko tabernek eta ostalariek ere beraien ekarpena egingen dute, eta beraien prestatutako pintxoak dastatzeko aukera izanen da. Aipatu behar da egun horretan herritar asko ariko dela laguntzen, auzolanean pesta aurrera eramaten.



2019ko Sagardo Eguneako irudia.

Goizean, berriz, autobusa antolatu du Jeiki abesbatzak Txillida Lekun egingen duen saiora joateko. Museoa eta Miroren erakusketa ikusteko aukera ere izanen da.



Gotzone Sestorain, Ester Montero eta Mirian Otxotorena Herri Aretoan. LEITZEKO

Elikadura burujabetza Nafarroan hitzaldia

JM BARRIOLA

Maiatzaren 19an LeitzEKO eta Habelarte elkarteek eskutik, Arrea elkarte agroekologikoko Ester Morenok Nafarroan dugun elikaduraren diagnostia egin zuen Herri Aretoan. Zer landatzen eta ereiten den, zer interes dauden atzean, transgenikoak, ureztatze sistema, elikagaien

industria bultzatzen ari dena eta gizarteak pairatzen dituen ondorioez aritu zen luze eta zabal. Ondoren NNPEKko Miren Otxotorenak bertako ekoizleen egoera jarri zuen mahai gainean, eredu aldatzeko beharraz aritu zen modu jasangarrian, ingurugiroa eta bizitzak ez kaltetzeko bideak erakustiz.

Plazaola aldizkariko azal lehiaketa zabalik

Santiburtzioak iragartzen dituen Plazaola aldizkaria prestatzeko garaia ailegatu da eta martxan da azal lehiaketa. Garagarrilaren 30era arte Aurrera elkarteak jasoko dituzte. Aldizkariko idatziak ere egun hori baino lehen bidali beharko dira aurrerake@hotmail.com.

Pestetan eraso sexisten kontrako mahaia martxan

Herriko hainbat eragilek deituta, jaietan eraso sexisten aurkako lanketa abiatu du berdintasun teknikariak. Materiala eskura jartzeaz gain, formakuntza egiten eta eraso bat gertatzen denerako erantzun protokoloak lantzen ari dira. Beste gaiak ere landuko dituzte.

Atekabeltzeko X. Film Laburren Txapelketa garagarrilaren 10ean

TTIPI-TTAPA

Ez daude geldirik egoteko AteKabeltzen, eta aldi honetan, gaztetxeko lagunek film laburren txapelketa antolatu dute hamargarren aldiz. Garagarrilaren 10ean izanen da.

Gehienez zortzi minutuko lanak onartuko dituzte eta garagarrilaren 8a baino lehen aurkeztu beharko dira. Film laburrak atekabeltz@gmail.com helbidera bidali behar dira edo egunean bertan USB batean eramateko aukera ere izanen da. Baina hala egitekotan, garagarrilaren 8a baino



lazko *Dioptriak* film laburreko irudia.

lehen jakinarazi beharko die AteKabeltzekoei.

Iaz sei lan aurkeztu zituzten eta *Akordatu bihar* lanak irabazi zuen eta *Dioptriak* izan zen txapeladunordea.



ALKE

Habitat erakusketa

Maiatzaren 23an Nabarralde fundazioko Beñi Agirrek *Habitat. Ezkutatu diguten historia* erakusketa aurkeztu zuen Herri Aretoan. Euskaldunek historian izan duten lur eremuaren habitata erakusten duten 14 panel dira, hainbat garaitako bizimoduak eta gertakizunak azalduz. 152 ikasle joatekoak ziren ikustera.



Sarai Robles eta Ane Labaka Audioko saioan. SEÑORA SARIKETA

Señora Sariketako finala larunbat honetan izanen da

17:00etan hasiko da sariketa Herri Aretoran baina egun osoko pesta antolatu dute

TTIPI-TTAPA

Larunbat honetan, ekainaren 4an, jantziko dute II. Señora Sariketako pamela Herri Aretoran. 17:00etatik aurrera sei bertsolari ariko dira: Aner Euzkitze, Sarai Robles Vitas, Ane Labaka Mayo, Amaia Iturriotz Etxaniz eta ohorezko bi señora gonbidatuak: Erika Lagoma Pombar lesakarra eta Uxue Fernandez Lasa. Maria Oses eta Olatz Zuazubiskar ariko dira aurkezle lanetan, eta Kataluniako glosadoreak ere gonbidatu dituzte. Sarrerak *bertosarrerak.eus* atarian daude.

Egun osoko pesta

Ez da, ordea, eguneko hitzordu bakarra izanen. Egun osoko pesta antolatu baitute antolatzailaiek eta Sastrakak eta Lañaiden herriko talde feministek, tartean, Garazi Zabaleta herri-tarrak. Kontatu duenez, «eguerdian bertso sorta feministak kantatzeko aitzakiarekin, bermut-bira egingen da herrian. Segidan, paella-jana gaztetxean; 17:00etan sariketa Herri Aretoran eta iluntzean, gurdi-musikatuarekin poteoa; gauean, bukatzeko, señora pesta izanen

da gaztetxean DJ Txillardegia eta Lilith Selektahrekin».

Bigarren edizioa

Iaz egin zuten sariketaren aurreneko edizioa, bertso plaza berriak sortu eta emakumeei zein azpiratutako identitateei ikusgarritasuna emateko asmoz. Hainbat bertsolarik eta bertsozale feministek, tokiko eragileen eta mugimendu feministako kideekin, antolatu zuten eta aurten eman diote segida.

Finalaren atarian bi saio egin dituzte, Hendaian eta Laudion, eta Danele Sarriugarte antolatzailaren hitzetan «oso erantzun ona» izan dute: «Bi saioetan jendea oso gogotsu ikusi dugu, bertsolariak umore handiz aritu dira eta bertsoaldi oso politak aditu ditugu». Eta sinetsita dago Leitzakoa ere hala izanen dela: «Bertsolaritzarekin lotura ttikia edo handia izan, oso giro polita sortzen da, kontu interesgarriak aditzen dira, irri egiten da... Anima zaitezte, egun ederra izanen da». Eta Zabaletak «Euskal Herri mailako bertso ekimen feminista honek herria kutsatzeko aukera ederra sor dezakeela» gaineratu du.

Leitzarrari «ederra» iruditzen zaio horrelako ekimenak antolatzea, hau da, «betiko bertsolaritza zirkuituetatik aparteak» egitea. «Garrantzitsua da, ez bakarrik emakume bertsolariak eta gizonetakoak ez bestelako identitateak dituztenak lehen lerrora ekartzen dituelako, baita gai forma eta ikuspegi alde-tik bestelako bersogintza bultzatzen duelako ere. Eta hori guztia, umoretik eta elkarlanetik». Hala, «feminismoa bertsolaritza feministago egiteko bere aletxoak» jartzen duelakoan dago.

Sarriugartek, berriz, «kultura, sorkuntza eta feminismoa elkartzen diren bidegurutze oparoan, sariketak ekarpen handia egiten duela» dio eta «feminismoa eta bertsolaritza mugimenduan mantentzeko bitarteko eraginkorra» iruditzen zaio.

«Gora señorak!»

Sariketaren izena bera hizpide izan du Zabaletak: *Señora*. «Erdi umoretik jarria dela esanen nuke, eta horrek ere badio zerbait sariketaren izaeraz. Antolatzaleei nonbait entzun diet garagardo artean sortutako ekimena dela, eta izena ere hortik atera izanen da, segur aski. Dena den, señora izaera aldarrikatze modu bat ere bada, urteetan hitz horrek ez duelako konnotazio oso ona izanzenbait girotan, eta nolabait, feminismitik horri buelta emateko eta hitza berriz gure egiteko intentzioa ere badagoela uste dut. Beraz... gora señorak!».

Feminismoaren begietatik bertsolaritzaz ere aritu da. «Aldatu» dela dio, besteak beste, «txapelketetara emakume bertsolari gehiago animatzen delako, finaletara eta plazetara geroz eta gehiago iristen direlako, feminismoaren gaiak geroz eta presenteago daudelako, publiko geroz eta anitzagoa delako...». Areago, «beste esparru askotan egin ez den lanke-ta egin da bertsolaritzan, hori bultzatu duten feministei esker. Baina oraindik asko dago egiteko».

Ekaina bukatuta itxiko ditu ateak Herri Aretok

TTIPI-TTAPA

Udako oporrei begira hasia da Herri Aretoa, baina aurretik ez da ekitaldi faltarik izanen.

Kultur Aroko egitarauaren baitan, batetik, ostegun honetan, ekainaren 2an, Itziar Azpilotz eta Koke Ardaizen *Naturaren leihoak* erakusketa zabalduko dute eta igandera ere ikusgai izanen da. Bestetik, ekainaren 8an, Mikel Illarregi *Leitza oinazpian* ikuskizuna aurkeztuko du, 19:00etan.

Ekainaren 12an *Sexberdinak* antzezlan egingen du Tanntaka konpainiak, 19:00etan.

Ekainaren 14an euskara zerbitzuak Joseba Sarrionandia gonbidatu du Herri Aretora. Solasaldia 19:00etan izanen da.

Uztailean eta abuztuan opor-rak hartuko ditu Herri Aretok, eta irailaren 12an irekiko ditu berriz ateak, *Bidaide* antzezlan erakusteko. Urritik aurrera zinearekin eta bigarren igandetan antzerkiarekin hasiko dira.

Bestetik, Herri Aretoko sarre-rak online erosteko aukera martxan jarri du udalak, *leitza.eus* web orrian zabaldu duten atal berriaren bitartez.

Herriko kontsumoa bultzatzeko bonu txartelak salgai

Udalaren eta Kaxkabeltza elkartearen ekimenez, aurten ere Leitza kontsumoa bultzatzeko bonu-txartelak jarriko dituzte salgai. 1.710 erosketa txartel prestatu dituzte eta herritarrek 20 euroren truke, 10 euroko hiru txartel eskuratzeko aukera izanen dute. Udalak 30 euro horiek osatzeko falta diren 10 euroak jarriko ditu eta hala, 5.700 euro ordainduko dizkio Kaxkabeltzari. Bonu txartelak ekainaren 6tik 12ra jarriko dituzte salgai, eta ekainaren 13tik uztailearen 13ra arte erabili ahal-ko dira.

«Kontsumitzen dugun energiaren zati handi bat guk sor dezakegu»

MIKEL DIOSDADO MIGUELTORENA LEITZEKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN KOMUNITATEKO KIDEA

Kontsumo arduraturako bidean eta herritarrek kontsumitzen duten energia gehiena Leitza bertan ekoizteko asmoz, Leitzaiko Energia Berriztagarrien Komunitatea sortu dute

G. PIKABEA

Kontsumitzaile huts izatetik haratago joan nahi dute Leitza, herrian dituzten baliabideak aprobetxatuz energia sortzen hasi nahi dute, eta deus baino lehen herritarrek kontsumo arduratsuen garrantziaz kontzientziatu nahi dituzte. Leitzaiko Energia Berriztagarrien Komunitatearekin (EBK) hasi dute bidea. Herritar guztiei irekitako proiektua dela adierazi du Diosdadok eta bazkide egiteko kanpaina zabalik dute. Ekainaren 6an bukatuko da.

«Gaur egun, gure ongizatea lortzeko daukagun energia menpekotasunarekin» kezkatuta, leitzar talde bat elkartu zarete. Herritarrek jakitun al gara menpekotasuna zenbatekoa den?

Ez, ez baitugu gure kontsumoaren eragina momentuan ingurumenean ikusten. Ez dugu ikusten guk kontsumitzen dugun hori lortzeko zenbat energia kontsumitzen den, ezta energia hori nola lortzen den ere, edo nondik eta nola garraiatzen den ere.

Zein izan da Leitzaiko EBK sortzeko abiapuntua?

Udalak urteak daramatza energiaren gaia Goienerrekin elkarlanean lantzen. Herriko kontsumo energetikoen diagnosi batetik abiatuta energia plan bat egin zuen eta hor zehaztutako helburuak lortu berri dituzte, sorkuntzarako saltoa egiteko pentsamendurekin zebilen. EBKren ideiatik abiatuta, udalak bideari bakarrik

ekin beharrean herritarren eskutik egitea erabaki du.

Zein helbururekin sortu duzue?

Leitzaiko herritarrek, ahal den neurrian, kontsumo arduratsu batean murgiltzea, eta bertan kontsumitzen dugun energia gehiena Leitzaiko ekoiztia izatea dira helburuak. Ahalik eta burujabetza energetikorik handiena lortu nahi dugu.

Zein onura ekarriko ditu?

Lehenik eta behin, oinarrizko baliabidea den energiaren inguruan herritarrek sentsibilizatu eta ahaldunduko ditu. EBK energiari lotutako edozein esparru lantzeko tresna izatea nahi dugu: kontsumo elektrikoak, loteen kudeaketa kolektiboak, partekatutako kotxeak eta abar eta abar. Aldi berean, herria eta herritarrek burujabetza energetikotik hurbil egonena dira, leitzarrok kontsumitzen dugun energiaren zati handi bat Leitzaiko sortua izanen baita. Horren ondorioz, ez gara enpresa handiekigotzen dizkiguten prezioen menpe egonen.

Halako komunitate ugari sortzen ari dira azken urteotan Euskal Herrian eta kanpoan. Baduzue ereduren bat oinarritzat hartua?

Goiener bidelagun dugunez, badugu parte hartzen ari den

«GURE PAUSO TTIKIEKIN GAUZA HANDIAK LORTZEKO GAI IZANEN GARA»

herrietako prozesuen berri. Horrek gauzak asko errazten dizkigu. Hala nola, Hernanin abiatu berri duten EBKren adibidea daukagu. Hala ere, izena emanen duten herritarrek, enpresek, elkarteek eta entitateek erabakiko dute nolako EBK izanen den.

Argindarraren prezioa maximo historikoetan dagoenean hasi zarete ideia garatzen...

Nahiz eta herritarrei maiatzean aurkeztu diegun proposamena, aurreko udan hasi ginen ideia lantzen. Baina, dirudienez, sekulabaino momentuegokiagoan abiatuko dugu Leitzaiko EBK. **Kooperatiba bat duzue begiz joa...** Proiektua juridikoki gorpuztu beharra dago eta, horretarako, legeak bi aukera ematen ditu: elkarre bat edo kooperatiba bat sortzea. Beste hainbat tokitan bezala, adibidez Hernanin, guk ere kooperatiba hautatu dugu, batetik, EBKk jarduera ekonomikoa izanen duelako, eta bestetik, izanen dituen partaideen figurak jasotzeko egokiagoa delako. Kooperatiba hau irabazi asmorik gabekoa izanen da eta, hortaz, lortu ahalko diren irabaziak beste proiektu batzuk egiteko edo sortutakoak hobetzeko bideratu daitezke. Horrek

«GUTXIAGO KONTSUMITZEAK EZ DAKAR BIZI KALITATEA GALTZEA»

ere alde handia markatzen du, izan ere, gure etxeetan kontratatuta ditugun enpresa gehienek etekinak bilatzea dute helburu nagusi eta ia bakarra. Kasu honetan, gauzak ongi eginez gero, proiektua etengabe berrindartu daiteke etorkizunean.

Zein izanen litzateke kooperatibaren funtzionamendua?

Kooperatiba integrala sortzea da asmoa, jarduera eta hainbat bazkide mota teiltatu beraren azpian jaso ahal izateko. Bazkide bakoitzak boto bat izanen luke batzarrean, eta erabaki nagusiak denon artean eztabaidatu eta adostu beharko genituzke. Gainera, bazkide izateko egin beharreko ekarpena ahalik eta txikiena izatea nahi dugu, inongo kasutan arrazoi ekonomikoa proiektu honen parte izateko oztopoa izan ez dadin. Hernani aipatu dut lehen, eta kasu horretan, hamar euroko sarrera ezarri dute. Beraz, kooperatibaren funtzionamendua demokratikoa, soziala, irekia eta gure komunitatearen aniztasuna barne hartuko duena izatea nahi dugu.

Aurkezpenean, besteak beste, aurreneko pausoa kontzientzia hartzea dela eta gero energia sortzeko gure inguruak sortzen dizkigun baliabideak aprobetxatzea dela aipatu zenuten. Zuen ustez, ez da aukera bat, behar bat baizik...

Larrialdi klimatikoan gaude, gure bizi kontsumoa ez dator bat ama lurra eskaintzen dizkigun baliabideekin. Gure kontsumo ereduak aldatzen ez badugu, gure ondorengoei utziko dieguna ez da guk ezagutu duguna bezalakoa izanen. Eta beste alde batetik, jendea pobrezia energetikotik ateratzeko, enpresa handien energiaren espekulaziotik at egoteko beharra gero eta handiagoa da.

Proiektuan parte hartzeko izen ematea zabalik da. Nola doa?

Maiatzaren 23an 110 bat lagun ginen apuntatuak, eta ekainaren 6a baino lehen gehiago apuntatzea espero dugu. Edoz nor apunta daiteke, herritarrek, elkarteak, enpresak, tabernak, komertzio ttikiak ... Horretan

rako esku orriak Maimur eta Astiz liburu dendetan eta udaletxean jarriak dauzkagu. www.leitzekoebk.eus atarian ere eman daiteke izena. Webgunean informazio gehiago ere bada.

Aurreneko proiektua ere esku artean duzue: Kiroldegian eguzki panel fotovoltaikoen instalazio kolektiboa. Azalduko zenuke?


Proiektua, laborazalduta, kiroldegia ren teilatuan panel fotovoltaikoak jartzean datza, animatzen garen herritarren kontsumoaren zati bat eguzki orduetan sortzeko gai izan dena. Sortutako energia sarera joan da kontagailu orokor batetik pasa ondoren. Kooperatibako kide bakoitzak bere kontsumoaren araberrako banaketa koefiziente izanen du eta eguzki panelek sortzen duten bitartean energiaren zati bat kontsumitua harko du. Hornitzaileak bakoitzari dagokion energia kopurua fakturan deskontatuko dio eta bere portzentajea osotara ez badu kontsumitzen konpentsazio bat jasoko du. Kooperatibista bakoitzak aukeratu du zein hornitzaile izanen duen, batzuek Iberdrola edukiko dute, besteek Goiener... Eta etxebizitzetan ez da inolako moldaketarik egin beharko.

Panel fotovoltaikoen proiektuaz gain, Leitzak zein aukera izan ditzake energia sortzeko?

Eguzkiak sor dezakeen energiarekin hasi gara, hori baita proiektua azkar martxan jartzeko aukera gehien ematen duena. Baina herriko basoen biomasarako aukerak eta urak eta haizeak eman ditzakeenak buruan ditugu. Hortaz aparte, badugu nahiko lan eguneroko kontsumo ohiturak aldatzen eta gutxiago kutsatzen ikasten.

Herri oso bat hornitzeko komunitateak sor daitezkeela uste duzu?

Herri bakoitzak hainbat baliabide dauzka bere lurren barruan. Gu, gurean dauzkagun baliabideekin, ahalik eta gehiena lortzen saiatuko gara. Betiere kontziente izan behar dugu arduratsu kontsumitu behar dugula, eta badugula denok zer ikasia. Izan ere, gutxiago kon-



EBKren talde sustatzaileko kide batzuk –15 dira–. Maiatzaren 6ko aurkezpen jendetsuaz geroztik, gehiagok agertu dute interesa.

tsumitzea ez dago lotua bizi kalitatea galtzarekin.

Kooperatiba, kiroldegiko proiektua... Zenbateko inbertsioa egin beharko da?

Lehenbiziko, kooperatiban eta eguzki panelen proiektuan parte hartzeko zenbat gauden prest jakin behar dugu. Proiektua animatzen diren kontsumo-egokituko da eta orduan jakinen dugu zenbateko kostua izanen duen, dirulaguntzaren bat edukitzeko aukerak edukiko ditugun eta nola finantzatu dugun. Egitasmoa % 100 zehazten ez den bitartean, izena ematen duenak ez du inongo konpromisorik hartuko.

Nola izanen da bazkidetza?

Hori bazkide izanen garen guttion artean erabakiko dugu.

Argi dugun bakarra da herritar guztiak parte hartzeko eskubide bera izanen dutela.

Zein mezu luzatuko zenieke herritarrei? Eta irakurleei?

Herritarrei animatzeko mezua luzatuko nieke, elkarrekin energia berriztagarria sortzeko aukera dugula, gure energia kontsumoaren zati handi bat guk sortua izateko aukera dugula. Irakurleak, berriz, beraien herrietan energia berriztagarrien komunitateak sortzera animatuko nituzke. Lehenago edo beranduago egingen den zerbait izanda, hobe lehenbailehen herri bakoitzak kontsumitzen duenaren energia gehiena bertan sortutakoa izatea eta talde-lanean izanda errazagoa eta jasangarriagoa izanen da de-

nontzat. Beste herrietan animatzen badira, Leitzeko EBK-koak prest gaude ikasten ari garena beraiekin partekatzeko. **Zerbait gaineratuko zenuke?**

Lehen aipatutakoaren bidetik, orokorrean tokian tokikoa eta gutxiago kontsumitzen hasi behar dugula barneratu behar dugu, egungo bizi ereduak sortzen dituen behar energetikoak jasangaitzak baitira. Energiarik garbiena, kontsumitzen ez dena da. Bide hau egiteko ezinbestekoa izanen da LeitzEKO kontsumo taldea, Kaxkabeltza eta beste eragileekin saretzea eta elkarlanean aritzea. Gaur egun, guk eman ditzakegun pausotitkiekin gauza handiak lortzeko gai izanen gara, eta denontzat merkeagoa izanen da.



Bi saio egin dituzte eraso sexisten aurkako protokoloa lantzeko. AMAIA PAZ

Eraso sexisten aurkako protokoloa landu dute

Herriko hainbat eragileekin elkarlanean bi saio egin ditu berdintasun zerbitzuak eta ekainaren 28an aurkeztuko dute

TTIPI-TTAPA

Eraso sexisten kontrako bidean «Goizuetako herriak beste pauso bat eman du aurrera, indarkeriarekin bukatzeko beste konpromiso bat hartu du». Halaxe adierazi du Amaia Paz Vallejo berdintasun teknikariak. Eraso sexisten kontrako protokoloa prestatzeko egin dituzten bi saioen harira egin ditu adierazpen horiek.

Festetan eraso sexistei aurre egiteko eta erantzuteko protokolo baten beharra sumatu zutelako hasi ziren lanean, baina berdintasun teknikariaren hitzetan, «urte osoan protokoloa izateko beharra zegoela sumatu genuen, erasoak ez direlako festetan bakarrik gertatzen. Eguneroko bizitzan ere gertatzen dira». Hortik abiatuta bi saioko lanketa egin dute berdintasun zerbitzuak, Umore Ona elkarteak, emakume taldeak, guraso elkarteak eta udalak elkarlanean.

Maiatzaren 9an egin zuten aurreneko saioa eta maiatzaren 23an bigarrena. Egindako lanarekin pozik mintzatu da teknikaria: «Maialen Apezetxea zinegotziarekin honi buruz

hitz egin dugu, eta balorazio positiboa egin dugu. Saio parte hartzaileak izan dira eta eragileek gaiari heltzeko nolabaiteko konpromisoa dutela ikusi dugu». Horrez gain, gai honetan «tabernak inplikatzeko beharra» ere jarri dute mahai gainean.

Aurkezpena

Bi saioak eginda, orain zirriborrea prestatzen ari direla argitu du Pazek: «Zirriborrea prozesuan parte hartu duten eragileei helaraziko diegu, ekarpenak egin ditzaten, eta ekainaren 28an aurkeztuko dugu jendaurrean». Protokoloa «sozializatzeko» hitzordua izanen da ekaineko azken asteartean eginen dutena eta «herriar guztiei zuzendua izanen da».

Gisa honetara, «eraso bat gertatzen denean modu koordinatuan erantzun irmoa emateko tresna» izanen dute, «herriarrek zeri heldu jakinen dute». Teknikariaren ustez, horixe delako beraien «kezka eta zalantza nagusia: eraso bat gertatzen dela ikustean zer egin behar duten jakitea».



JUANJO ELIZALDEK UTZITAKOA

Baserritarren egunean bazkaria

Maiatzaren 15ean, baserritarren zaindariaren eguna den San Isidro Egunean, herriko baserritarrek elkartzeko aprobetxatu zuten. Kuadrilla ederra bildu ziren bazkaltzeko eta mahaiaren bueltan kontu kontari tarte atsegina pasatu zuten.



Hodei Lujanbio, Alex Salaberria eta Joxe Mari Lujanbio. FELIX LOIARTE

Hodei Lujanbio lasterketako herritarrik bizkorrena

TTIPI-TTAPA

Beroari eta hego haizeari aurre eginez, herritarrek sasoiko daudela erakutsi zuten maiatzaren 21ean egindako Goizutrail lasterketan.

Lasterketa luzean, bigarren Hodei Lujanbio helmugaratu zen, eta bera izan zen lehen goizuetarra. Lasterketan egindako lanarekin «pozik» zegoela aitortu zion TTIPI-TTAPARI: «Niretzat oso emaitza ona da bigarren postua». Dena den, Goizutrail lasterketan sariak ez direnez pilatzen, bigarren goizuetarrari eman zioten herriko lehenarentzat aurrei-

kusitako saria; Alex Salaberriari. Zigor Sagarduik eta Garikoitz Lopezek ere egin zuten lasterketa luzea.

Lasterketa motzean, berriz, Joxe Mari Lujanbio izan zen helmugaratu zen lehen goizuetarra eta beraz, herritarren podiumera igo zena.

Bikoteka beste lau herritarrek parte hartu zuten lasterketan: Xabier Apezetxea, Aitor Aizkorbe, Iñaki Etxeberria eta Ander Apezetxea.

Hortik aparte, lasterketa aurrera ateratzen lanean aritu ziren 80 bat lagunengatik auzolanak ere nabarmentzeko da.

Plazaola Partzuergoan sartu da Goizuetako Udala

Plazaolaren hitzetan, «Plazaolaren lurralde osoko eskaintza turistikoa aberasten lagunduko du»

TTIPI-TTAPA

Plazaolako Turismo Partzuergoko Batzar Nagusiak maiatzaren 12an berretsi zuen Administrazio Kontseiluak apirilean hartutako erabakia, eta hala, Goizuetako Udala partzuergoko kidea da orain, Areso, Araitz, Arakil, Imotz, Irurtzun, Larraun, Leitza eta Lekunberriko udalekin batera.

Partzuergoaren irudiko, «Goizueta natur balio aparte-koa duen lurraldea da: Artikutzako basoak, mendi gailurrak, Urumea ibaiaren ertzak... Eta eskaintza horri, bertako kulturaren eta ondarearen elementu batzuk gehitu behar zaizkio: tradizio pilotazalea, inauteriak, ibilbide megalitikoak, arkitektura, euskara... Balio horiek erakargarritasun handia dute bisitarien artean, eta Plazaolaren lurralde oso-



Maiatzaren 12ko bilera. PLAZAOLA

ko eskaintza turistikoa aberasten lagunduko dute».

Goizuetako Udala partzuergoak saneamendu prozesua bukatuta sartu da. Horri aurre egiteko 2019an eskatu zuen mailegua orain gutxi amortizatu du. Garai hartan kide ziren udalek, besteak beste, kuotak handitu eta zorra barkatu zuten. Gaur egun, ordea, «partzuergoaren finantza-osa-suna ona» dela jakinarazi du Plazaolak.



IGARATZA APEZETXEA

Goizuetatik Aranolarara 16 lagun

Arainburu Mendi Taldeak antolatuta, Aranolarara mendi buelta egin zuten maiatzaren 14an. Argazkian ageri diren 15 lagunak eta kamararen atzean dagoen Igaratza Apezetxea bildu ziren eguraldiaz eta naturaz gozatzera. Giro ederrean ibli ziren.

Mendialdeko Azoka Ibiltaria igande honetan Goizuetan

TTIPI-TTAPA

Aurreko aldizkarian iragarri bezala, igande honetan, ekainaren 5ean, Goizuetak hartuko du Mendialdeko Azoka Ibiltarien lekukoa. 10:30etik 14:00etara elikagai ekoizleen hamalau eta artisauen hamai-ka postu jarriko dituzte. Egu-

raldi ona baldin bada, herrian barna antolatuko dute azoka, eta txarra baldin bada frontoian. 25 postu horietatik hamar goizuetarrenak izanen dira.

Egitarauaren barrenean, 13:30ean bertako produktuen saskiaren zozketa egingen dute.



UMORE ONA PILOTA ELKARTEA

Aranoko pilotari gaztetxoak

Neska-mutil asko bildu dira VI. Umore Ona Pilota Txapelketan, eta tartean lau herritar: Umore Ona pilota eskolako Manel Seges seinetan, Araitz Legarreta kimuetan eta Oihan Legarreta kadeteetan eta Hernaniko pilota eskolan ari den Oinatz Gaskon haurretan. Txapelketako partida batzuk Aranon jokatu dituzte.



ATEKABERTS

Mingaño Saltsan Aranoko elkartean

Mingaño Saltsan sariketako hirugarren eta azken finalaurrekoa elkartean jokatu zuten. Sei bertsolari aritu ziren: Aitor Etxebarriazarraga, Oihana Bartra, Ekhiñe Zapiain, Joanes Illarregi, Iban Urdangarin eta Eneritz Artetxe. Jende asko hurbildu zen eta giro bikaina sortu zen.

Udaleku irekiak uztailaren 11tik abuztuaren 5era

Ekainaren 27an bukatuko da udaleku irekietan izena emateko epea

ENERITZ IRAOLA

Kirol Mankomunitatearen eskutik, udaleku irekietan ongi pasatzeko aukera izango dute herriko haurrek eta gaztetxoek. Lau astez eskainiko dute zerbitzua, uztailaren 11tik abuztuaren 5era, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 13:00etara.

Izen ematea

Izena eman nahi duenak ekainaren 27ra arte izango du aukera, udaletxean bertan edo kirol mankomunitatera idatzita.

Prezioa 85 eurokoa da eta seme-alaba bat baino gehiagok izena ematen dutenean, bigarren edo hirugarren seme-alabagatik 63,75 euro ordaindu beharko dira. Guxtienez hamabi laguneko taldea osatu beharko da udalekuen zerbitzua martxan jarzeko.

Begirale bila

Udaleku hauetan, begirale lanetan aritzeko interesa dutenek kirolmankomunitatea@gmail.com helbidera mezu bat bidal dezakete.



JAIONE OLAZABAL

Haurrak eta gurasoak Igantzin

Aurrekoan iragarri bezala, hilabete hauetan hainbat ateraldi egiteko asmoa du guraso elkarteak. Horien artean aurrenekoa maiatzaren 14an egin zuen. Haurren eta gurasoen talde ederra bildu zen Igantziko Irrisarri Landen eta oso gustura ibili ziren. Ekainaren 11n Uitziko Kaskamotz Egunera joango dira.

Sanpedroak ospatzeko asmoa du Lagunarteak

Ekainean sartzerako, festa usainean hasi dira gazteak. Sanpedroak antolatze asmoa dutela jakinarazi dute eta bilerak egiten hastekoak dira festaren nondik norakoak lotzeko. San Pedro Eguna aste tartzetaz erabaki dute: aurreko asteburuan, ekainaren 24an eta 25ean. Hurrengo aldizkarirako lotuak izango dituzte xehetasun gehiago eta guztien berri izango duzue. Dena den, gazteek duten festarako gogoia ikusita aurreratu genezake, herri osoa jarriko dutela berriz ere dantzan.

Osasun zentroa berritzeko proiektua bertan behera

Osasun zentroa moldatzeko dirulaguntza eskaera egin zuen udalak, baina beste proiektu batzuk Aresokoaren aurretik gelditu dira eta ez dute laguntzik jasoko. Beraz, momentuz, proiektua ez da gauzatuko.



JAIONE OLAZABAL

Mikel Aingeruaren bisita

Nafarroako beste hainbat herritara bezala, Aresora ere hurbildu zen Mikel Aingerua. Pasa den maiatzaren 15ean, igandea, bisitan etorri zen eta hainbat herritarrek harrera egin zioten, tartean, argazkian ageri den neska-mutil kuadrillak.



Bizikleten salmenta eta konponketa.

- Kanltonberri, 1 | BERA
- T. 948 631 218
- joxemi@kateabike.com
- www.kateabike.com

SCOTT PINARELLO MIBISSI MERIDA BERGAMONT BH COLUER LOOK



Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



VALERIE THEN
AINHOAKO UDALA

«Ondare historiko, natural eta kultural handiko herria da Ainhoa»

Valerie Then Ainhoako turismo bulegoko langileak dioenez, herrian «bisitari aunitz» izaten dituzte. Turismo bulegoan herrian eta inguruan zer egin eta ikus daitekeen azaltzen dute. Urte guzian irekia dago, «baina apiriletik urria etortzen da jende gehien, eta azarotik martxora lan administratiboak eta prestaketak egiten ditugu gehiago». «XIII. mendeko herri ederra» da Ainhoa, eliza eta karrika nagusia dira gehien bisitatzen dituzten lekuak, baita inguruko paisaiak ere,

«batez ere Arantzazuko kaperak». Ondare historiko eta naturalaz gain, «ondare kulturala handia du Ainhoak, bertako ekoizle, artisauek eta produktuekin; Ossau-Irati gasna, Ezpeletako piperra, euskal zerria...».



RAMONTXO ARIZKORRETA
SUHALMENDI - SARA

«Zerriak ikusteko ibilbidea egin daiteke, panel informatiboekin»

«Sarako mendi ttiki bat» da Suhalmendi, eta euskal zerriak ditu bertan Ramontxo Arizkorretak 2015etik, «Sarako herriak sortutako proiektuan». Zerriak eta bertako animaliak ikusteko ibilbidea dago bertan; «oinez erraz egiten da eta panel informatiboetan zerrien inguruko informazioa azaltzen da, horregatik, familiei eta haurrei aunitz gustatzen zaie». Euskal zerria zuri-beltza da, buru eta ipurdi beltzarekin eta belarri handiekin, «behin ikusita, erraza da ezagutzeko». Zerriak haragitako

ditu, «urte batez izaten ditugu hemen guttienez, 140 kilo lortu arte». Haragiaren salmenta zuzena egiten dute Senpereko Hurbil dendan; «zerrien produktuez gain lekuko barazkiak, gasna eta bertze hainbat produktu ditugu».



MARIE-PIERRE AGERRE
URDAZUBIKO TURISMO BULEGOA

«Lezeak, monasterioa, errota, Trikuharry parkea... erakusteko aunitz du Urdazubik»

2016an ireki zuten Urdazubiko Turismo Bulegoa, «lehen Dantxarinean zegoen, baina jendea erosketak egitera joaten da hara, bisitak egin nahi dituztenak herrira etortzen dira». Mari Pierre Agerrek, bertako langileak, Urdazubiko eta inguruko informazioa ematen du, «Nafarroako eta Lapurdiko eskuorriak izaten ditut». Turismo bulegoak kultur aretoa dauka, «ekitaldiak, ikuskizunak, solasaldiak... egiten ditugu». Baina herriak «aunitzez gehiago» du erakusteko:

«lezeak, monasterioa bere arte erakusketa eta musoearekin, XVIII. mendeko errota, 1901eko zentral elektrikoa... Trikuharry parkean gaizki tratatuak izan diren animaliak daude; loroak, otsoa... eta ikuskizun interaktiboak egiten dituzte».



BEÑAT MITXELENA DANBORIENA
ARANTZAKO UDALA

«Herriko turismoa hagitz lotua dago mendiari eta naturari»

Arantzako Udaleko Beñat Mitxelenak adierazi duenez, «herriko turismoa hagitz lotua dago mendiari eta naturari. Pandemia hasi zenetik, jende aunitz etortzen da hori bilatzera». Putzubeltza da leku bisitatuenetariko bat, «masifikatu egiten da eta turismoa erregulatzeko ibilgailuen pasoa mugatzen duen ordenantza egin dugu». Asteburuetan «urte osoan» joaten da jendea, «baina uda partean jende gehiago etortzen da. Duela bi urte planteatu genuen nolako turismoa

nahi genuen, eta genuena hobetzea erabaki genuen; mendiko ibilbideak hobeki markatu, herri sarreran panel bat paratu, webgunea landu... ez dugu publizitaterik egin nahi izan masifikazio arriskua ikusten dugulako».





Amaiurko Sokatira Taldea hainbat talderen kontra ariko da. ARTXIBOKO IRUDIA

Sokatira torneoaren izanena da Amaiurren ekainaren 11n

Torneoaren ondoren herri afaria, kontzertuak eta gaupasa izanen dira

TTIPI-TTAPA

Amaiurko Sokatira Taldeak sokatira torneoaren antolatuko du herrian ekainaren 11n. «Euskal Herri guzitik» etorritako taldeak lehiatuko dira bertan. 17:00etan hasiko da torneoaren eta dohainik izanen da.

Hala ere, torneoaren ez da eguneko ekitaldi bakarra izanen, izan ere, taldearendako dirua biltzeko, herri afaria eta kontzertuak izanen dira torneoaren ondoren. Aferia 21:00etan hasiko da entsalada, paella, bildotsa txilindron erara, postrea, kafea era kopa

izanen ditu. Kontzertuak 00:00etan hasiko dira eta Unidad Alavesa, Los Zopilotes Txirriaos eta DJ Bull izanen dira oholtzaren gainean, gaupasa alaitzeko. Aferia eta kontzertuak edukiera mugatua izanen dute.

Txartelak

Aferia eta kontzertuetarako sarrerak 30 eurotan daude eskuragarri Elizondoko Intza tabernan, edo sokatira taldearekin harremanetan jarritz. Kontzertukoak bakarrik, berriz, egunean bertan egonen dira salgai zortzi euroren truke.



BAZTAN HAUR ESKOLA

Komertzioak 0-3 zikloaren alde

Elizondoko hainbat komertzioetako langileek 0-3 Plataformarekin bat egin dute, Nafarroako haur eskoletako hezkuntza duin baten alde, eta elkartasuna adierazi nahi izan diote hezitzaileen borrokari eta plataformak egindako aldarrikapenei.

**ANZABAL**
Inmobiliaria

- Inmobiliaria
Baserrri, borda, pisu, etab. salmenta eta alokairua
- Gestoria
- Zurich Aseguruak
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- Lan aholkularitza
Nomina eta Aseguru Sozialak
- Aholkularitza fiskala
Errenta Deklarazioa, BEZa...

Santiago, 15 ELIZONDO • T. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

Oharritz Auzoa z/g - LEKAROZ
T. 948 452 143 - 948 452 449
info@harrilan.com www.harrilan.com

**HARRI LAN S.L.**
KONSTRUKTIBOAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



Baztandarren Biltzarra elkarteak laguntzaile bila

Prestaketekin eta egunean bertan laguntzeko ekainaren 20ra arte eman daiteke izena

BAZTANDARREN BILTZARRA

Bi urteko geldialdiaren ondoren, abiatu gara mantso-mantso aurtengo Baztandarren Biltzarra eguna prestatzeko lanetan. Bi urtez ez dugu bestarik izan, eta gogotsu gaude guretako eta baztandarrendako hain berezia dugun besta eta aldarrikapen egun hau berriz bizitzeko. Gozamen eguna dugu Baztandarren Biltzarra eguna, baina, gozamen horren gibelean lan dezente dago, buruhauste eta izerdi franko. Lana, lana da, bai, baina zenbat eta jende

gehiagoren artean banatu errazagoa izanen da denendako. Hortaz, besta beti bezala egin nahi bada, zure parte hartzea ezinbertzekoa izanen da. Ekarpen ttikienak ere aunitz laguntzen ahal du eta doike, elkarteak kide berriak sartzea ere ezinbertzekoa da taldearen biziraupena ziurtatzeko.

Aitzineko egunetan eta egunean bertan laguntzeko, elkarteak galdetegi bat zabaldu du sare sozialetan eta ekainaren 20ra arte izanen da izena emateko aukera.

'Inhambaneko begiak' erakusketa Arizkunenean ekainaren 12ra arte

TTIPI-TTAPA

Munduko Begiak fundazioak eta Baztango Udalak antolatutako *Inhambaneko begiak* erakusketa ikusgai dago Arizkunenean ekainaren 12ra arte. Erakusketa Elisenda Ponsen argazkiak biltzen ditu, eta Mozambiqueko Inhambane herrian

oftalmologo talde batek egingo dako lana erakusten du, herriarren begi eta itsutasun arazoak konpontzen dituena.

Erakusketa 18:30etik 21:00etara irekiko dute aste-gunez eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara asteburuetan.



ONDIKOL

Bizikletan Elizondoko karriketarik barna

Bizikletaren erabilera sustatzeko, solasaldi eta tailerrak egin zituen Talde Ekosozialak Elizondon maiatzaren 18tik 20ra, Iruñeko Txirringudarien eta Baztandarra Txirringudaria Taldearen laguntzaz. Jardunaldiak borobiltzeko, bizikleta martxa egin zuten karriketarik barna eta batukada izan zuten.

Ernesto Pratek eta Jaione Doraik 'Bestaldean' liburua aurkeztu dute

TTIPI-TTAPA

Ernesto Prat leharoztarrak eta Jaione Doraik *Bestaldean, euskal iheslari politikoen bizipenak* liburua argitaratu dute aurten Txalaparta argitaletxearekin.

30 iheslari edo iheslari ohi elkarrizketatu dituzte, euskal

iheslariak bizi izan duten eta oraindik amaitu ez den errealitatea ezagutarazteko. Izan ere, iheslariaren egoera konpontzeko, «ezinbertzekoa da bizitakoa ezagutzera ematea».

Maiatzaren 20an liburua Elizondoko Amezti elkartearen aurkeztu zuten.

BRIKO BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktuak
Ferreteria · Sukaldeko tresnak
Mozorroak · Papertegia
Kiroleko eta mendiko jantziak
Moda · Oinetakoak
Laneko arropa · Bitxiak
Lurrin-denda
Kosmetika, Elektronika
Telefonoak · Poltsak eta mailetak
Etab.

T. 608 016 052
San Andres, 66 · NARBARTE
(Sarrera Legasatik)

asegi asesorias
Zergalan

- Kontabilitate zerbitzuak
- Zerbitzu fiskalak
- Lan-aholkularitza
- Aholkularitza juridikoa
- Herentzia eta Testamentuak
- Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua
- Datuen babesa
- Mugaz bertze aldeko aitortpenen kudeaketa (langileak eta enpresak)

www.zergalan.es | zergalan@asegi.es
www.asegi.com

Baztanberri plaza, 6 31700 ELIZONDO T. 948 581 300 · F. 948 580 648	Eztegara pasealekua, 22-1 31780 BERA T. 948 631 108	Eliza Kalea, 22 31740 DONEZTEBE T. 948 450 395 · F. 948 451 304	Eltzeta, 20 31770 Lesaka T. 948638077
---	---	---	---

Euskaltzain osoaren sarrera-mintzaldia egin du Rekaldek

Bertzeak bertze, euskarak Nafarroan eta Baztanen bizi duen egoeraz mintzatu da amaiurtarra

TTIPI-TTAPA

2020an Euskaltzaindiak euskaltzain oso izendatu zuen Paskual Rekalde Irigoien hizkuntzalari amaiurtarra, eta Akademiaren barne-arauei segituz, sarrera-mintzaldia egin zuen maiatzaren 21ean bere sorterrian. 12:00etan hasi zen ekitaldi instituzionala Amaiurko plazan.

Baztango Gaitariak eman zioten hasmenta ekitaldiari; gero, Mikel Altzuart *Dutari* bertsolari baztandarrak pare bat bertso bota zituen eta bere ondotik Amaiurren Kantuz abesbatzak *Amaiur zintzo eta leiala* abestia kantatu zuen. Segidan, Joseba Otondo Baztango alkateak eta Ixabel Aleman Amaiurko alkateak ongi-etorria egin zieten bertaratutakoiei, baita Andres Urrutia euskaltzainburuak ere, ekitaldiaren sinbolismoa eta garrantzia nabarmenduz zituenak. Ondotik, *Xalbadorren heriotzean* interpretatu zuen Amaiurren Kantuz abesbatzak eta mintzaldia egin zuen Rekaldek.

Ekitaldiaren akabailan, euskaltzain berriak zin egin zion bere karguari, euskaltzain izateari dagozkion eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela erranez, eta euskaltzain osoaren domina, diploma eta ikurra hartu zituen euskaltzainburuaren eskutik. Azkenik, dantza-saioa egin zuten herriko eskolako haurrek, Patxi Larralde txistulariak zuzendutako taldearen musikaz lagundurik, eta ekitaldira hurbildutakoek zintzurra bustitzeko aukera izan zuten, Baztango Gaitariaren soinua lagun zutela.

«Baztango euskara 'nafartzen' ari da»

Solasaldian, Rekaldek Andres Iñigo izan zuen gogoan, haren lekua hartu baitu akademian, eta 24 urtez Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria izan denak eginiko lan eskerza azpimarratu zuen, «bai onomatikan, bai hiztegian, baita euskararen sustapenean ere». Gero, hiru gai jorratu zituen; euskara batua eta mintzamoldeak; Baztango hitzen ekarpena *Euskaltzaindiaren Hiztegiari*; eta Amaiurko toki-izenak, etxe-izenak, pertsona-izenak...

Euskara batua «indartzen» ari dela adierazi zuen Rekaldek, eta belaunaldi berriak «euskaraz gehiago mintzo direla. Euskara presente da hezkuntzan, hedabideetan eta administrazioan». Baina «hizkera aunitz aldatu dela» ere nabarmendu zuen; «baztandarrak, eskuarki, ez gaude Iparraldera begira: gure euskara ez da egun baztanera-lapurtera, baztanera-nafarrera baizik». Hortaz, ondorioztatu zuen «Baztango euskara *nafartzen* ari dela, eta gero eta *euskara batuagoa* egiten dutela bereziki eskolatik pasatu diren haurrek». Amaiurrek «bizirik eta euskaldun segitzen duela» ere azpimarratu zuen, «bere nortasunaz harro».

Miriam Urkia euskaltzain osoak eman zion erantzuna, eta Rekalderen ibilbide oparoa gogoratu zuen, Euskaltzaindian eginiko lanak nabarmenduz. Ondotik, goi-nafarrerak *Euskaltzaindiaren Hiztegian* duen lekua azaldu zuen Urkiak (ia 600 adiera).



Baztango euskaraz aritu zen Rekalde sarrera-mintzaldian. EUSKALTZAINDIA



Rekalde euskaltzainekin eta erakundeen ordezkariekin. EUSKALTZAINDIA



Otondo Baztango alkatea eta Aleman Amaiurkoa ere bertan izan ziren. ONDIKOL



Paskual Rekalde bere familiarekin ekitaldian. ONDIKOL



495€

**Barbakoa
RÚSTICA SP**

Altuera 214 cm
Sakonera 60 cm
Zabalera 145 cm
Aho zabalera 60 cm
Pisua 550 Kg
Barbakoa parrillarekin



Pergolak

Galdetu prezioak
eta stock-a

899€

**Barbakoa
SPECIAL**

Altuera 190 cm
Sakonera 68 cm
Zabalera 167 cm
Aho zabalera 70 cm
Pisua 880 Kg
Barbakoa parrillarekin



475€

**Barbakoa
FIRST 22 DB**


Altuera 228 cm
Sakonera 58 cm
Zabalera 160 cm
Aho zabalera 68 cm
Pisua 615 Kg
Barbakoa parrillarekin



79€

Parrilla kaxa

Errautsetarako kaxarekin
Sakonera 38 cm
Zabalera 64 cm



69€

Parrilla kaxa

Errautsetarako kaxarekin
Sakonera 40 cm
Zabalera 60 cm



945€

Terrakota labea

Kanpoko harlauza 110x110 cm
Barneko bobeda buztinezkoa 58 cm
Pisua 600 kg
Akabera terrakota edo zuri leuna aukeran
Kearen aurkako atea. Kalitate maximoa
Eskuz egina



Infomazio eta aukera gehiago:

www.almacobaztan.com



AROZTAK

Aroztegiko erresistentziaren I. urteurrena

Urte bat pasatu da baimenik gabe hasitako lanak geldiarazi zituztenetik eta urteurrena oroitzeko, egun osoko besta egin zuten Lekarozen maiatzaren 14an. Haurrendako jarduerak, zikiro jatea, kalejira, kontzertuak eta giro ona izan zituzten herrian.

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatu

Dibortzioak, herentziak,
 alokairuak, alkoholemiak...

T. 948 581 468 | M. 630 354 818
 Santiago, 59 2C ELIZONDO

OTEIZA
 ARKITEKTOAK

Apote Karrika 8 (Maskonea)
 31730 - Irurita (Baztan)

Askatasunaren H. 7 - 7ºE
 20004 - Donostia

665 71 56 96 - 943 42 52 43
 www.oteizaarquitectos.com

oteizaarquitectos



2019an ospatu zituzten azkeneko aldiz Berroetako bestak. ARTXIBOKO IRUDIA

Berroetarrak herriko bestak ospatzeko prest

Haurrendako jokoak, zikiro jatea, dantzaldiak eta bertze hainbat jarduerak egingen dituzte

TTIPI-TTAPA

Bi urteko geldialdiaren ondotik, herriko bestak ospatzeko gogotsu daude berroetarrak. Ekainaren 3tik 6ra ospatuko dituzte aurten bestak, eta egitarau zabala prestatu dute herritar guziendako.

Egitaraua

Ekainak 3 ortziralea, bezpera. 19:30ean altxaferoak izanen dira beste hasmenta emateko. 20:00etan txopo goratzea egingen dute eta ondotik mutil-dantzak dantzatzeko dituzte. 21:00etan baztan-zopak izanen dituzte eta kantu zaharrak kantatzeko dituzte, eta ondotik dantzaldia izanen da Triki-dantzen eskutik. Zopetako txartel guziak saldu dira dagoeneko eta gantorri autobus zerbitzua izanen da gauean.

Ekainak 4 larunbata, haur eta gazte eguna. Puzgarriak izanen dira herrian egun osoan. 14:00etan gazteen bazkaria egingen dute Aizkoan, 17:00etan txokolatada izanen da eta 17:30ean herri kirolak egingen dituzte amasarren kontra, Tukuruku txarangak alaiturik. 19:00etan paella txapelketa

izanen da eta 21:00etan herri afaria. Eguna akitzeko, 00:00etan dantzaldia izanen da Bizpahiru pelau taldearen eskutik. Herri afariko txartelak salgai daude eta edozein berroetarrekin solastatuta esku-ra daitezke.

Ekainak 5 igandea, Mende-koste eguna. 10:00etan erraldoi eta gaiteroak herritik barna ibiliko dira eta 11:00etan meza nagusia eta luntxa izanen da plazan. Ondotik, Txaruta elkartearekin pilota partidak izanen dira. 18:45ean dantzaldia izanen dute Lau Haizetara taldearekin eta 21:00etan zingar jatea egingen dute kantu zaharrekin.

Ekainak 6 astelehena, zikiro eguna. Puzgarriak izanen dira herrian egun osoan. 11:00etan Berroetako XLVIII. Bizikleta Itzulia egingen da eta 12:00etan mus eta partxis txapelketa. 14:00etan zikiro jatea izanen dute Beñatek alaiturik eta 18:00etan herritarren arteko joku ikaragarriak egingen dituzte. 21:30ean zingar jatea eta kantak izanen dituzte eta bestak akitzeko 00:00etan gaitxo ni egingen dute.



Parlamentuko ordezkariak Baztango Udalarekin bildu ziren. NAFARROAKO GOBERNUA

Nafarroako Landa Garapenerako Komisia Erdizen

Proiektuak izanen lituzkeen eraginak azaldu dizkiete Baztango Udaleko ordezkariak Parlamentuko kideei

TTIPI-TTAPA

Nafarroako Landa Garapenerako Komisia Erdiz mendia bisitatu zuen maiatzaren 18an, parlamentuko EH Bildu taldeak eskatuta.

Isabel Olabe, Miguel Bujanda (Navarra Suma), Virginia Magdaleno (PSN), Pablo Azkona (Geroa Bai) eta Adolfo Araiz (EH Bildu) komisioko kideak izan ziren bertan, eta harrera egin zieten Joseba Otondo Baztango alkateak, Florentino Goñi Obra Publikoen zinegotziak, Juan Cruz Iriarte Mendiko zinegotziak eta Aitor Bazterrika eta Andres Zelaieta basozainek.

Bisitaren helburua «meatzaritza ustiapenaren kokalekua, herri-lurren kudeaketa eta eskualdeak Baztanendako duen garrantzia» ezagutzea izan da. Horretarako, Magnaren proiektuak Erdizen hartu nahi dituen ia 100 hektareak ezagutzeko ibilbidea egin zuten.

Otondok adierazi zenez, «lur-eremu guziaz Baztango Udalarena eta erabilera komunalekoa da, beraz, afera Udalaren eskumenekoa da eta herritar guzietan eragiten die, lursailak erabiltzen dituztenei

nei eta erabiltzen ez dituztenei, izanen dituen eragin sozial, ekonomiko eta ingurumen arazoengatik». Horrez gain, enpresak proiektua UGEP gisa tramitatzeko asmoa duela jakinarazi zien, «lekuko eskumenaren gainetik pasatuz».

Iriarte zinegotziak gehitu zuen Erdiz Kontserbazio bereziko eremua dela, eta «parajearen ekosistema naturalen garrantzia» nabarmenduz, «proiektuak larriki kaltetuko lituzkeenak eta kasu batzuetan guztiz suntsitu». Proiektuak hartuko lituzkeen ia 100 hektareetatik, «53 hektarea kalitate handiko bazkalekuak dira eta hamar guztiz desagertuko lirakeen pagadiak». Eskualdeko 75 abeltzainek eta 2.000 azienda inguruk erabiltzen dituzte lurak. Honez gain, Baztango Udalak ohartarazi zenez, «proiektuarekin hektarea aunitz galduko lirakeke, beraz, orain arte irekiak ziren inguruko lur-eremuak hesitu beharko lirakeke, Saioa mendiaren inguruak zehazki. Turismoarendako eta kirola egiteko garrantzi handiko mendia da, eta eragin ekonomiko eta sozialak izanen ditu».



UTZITAKOIA

Zigako eskolako haurrak BKZn

Zigako eskolako neska-mutiek kanpaldia egin zuten joan den astean Nartarteko BKZn. Aurtengo ikasturteak ohikoen itxura hartu du: musikorik gabe dabilta, eguneko irteerak egin dituzte, eskolan bisitak hartu dituzte... «Espero dugu kanpaldiak azken txanpari ekiteko indarra emana izatea!»



95 kirolarik parte hartu dute aurtengo Berroetako Maratoian. MAIALEN IANTZI

Joseba Larralde eta Garazi Artola txapeldun Berroetako Mendi Maratoian

TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 15ean Berroetako V. Mendi Maratoi Erdia jokatu zen. 95 lasterkaririk parte hartu zuten eta Berroeta-Saioa-Berroeta ibilbidea egin behar izan zuten, 21 kilometro luze eta 1.274 metroko desnibela dituen.

Joseba Larralde beratarra (1.54.51) eta Garazi Artola usurbildarra (2.41.59) izan ziren garaileak. Gizonezkoetan, Anizko Unai Iantzi izan zen bigarren (2.07.51) eta Aritz Sardina (2.08.49) hirugarren. Emakumezkoetan, berriz, Maite Zubillagak (2.51.12) eta

Amaia Festak (2.51.33) osatu zuten podiuma. Beteranoetan, Joseba Lasarte beratarra izan zen bizkorrena (2.12.59).

Lasterketa haizetsua

Haizea izan zen lasterketako protagonistetako bat, Berroeta utzi eta Elorregiko kaskora igo zirenetik Larraldera sartu ziren arte. Gero, beroa izan zuten lagun korrikalariak.

Jende andana elkartu zen Saioako kaskoan eta Berroetako herrigunean. Eguna borobiltzeko, lanean aritutako berroetarrek herri bazkaria egin zuten.



Unibertsitateko azken urtea du aurten Olaia Elizalde eta Gradu Amaierako Lana egiten ari da. TTUPI-TTAPA

«Kontsumo ohitura kontzienteak sustatu nahi ditut lanarekin»

OLAIA ELIZALDE GARAIKOETXEA ELIZONDOKO GAZTEA

Energia Berriztagarrien Ingeniaritza gradua ikasten ari da Elizalde, eta Gradu Amaierako Lanarekin ikasitakoa praktikara eramanen du Berroetan

R. OSKARIZ | ELIZONDO

Baztango Udalak ikasketa akaberako lana egiteko dirulaguntza eman dio Olaia Elizalde Garaikoetxeari (Elizondo, 2000), eta autokontsumo partekaturako potentzialitate fotovoltaiakoaren azterketa egingen du Berroetan.

Energia Berriztagarrien Ingeniaritza gradua egiten ari zara EHUn. Zergatik erabaki zenuen hau ikastea?

Aspaldi aukeratu behar izan nuen zer ikasi, baina argi nuen zientzia arloko zerbait ikasi nahi nuela, ingeniaritzaren bat, eta energia berriztagarrietako gradua izan zen gehien erakarri ninduen. Gainera, estatu mailan horrelako inge-

niarritza eskaintzen duen gradu bakarra Eibarren dago. Kontent nago hartutako erabakiarekin eta arras gustura ari naiz.

Zer lantzen duzue graduan?

Lehenbiziko urtean ingeniaritza guzietan ematen dena ikasi genuen, oinarri teorikoa. Gero energia berriztagarriak ikasteko beharrezko oinarriak eman genituen; oinarri elektriko eta mekanikoak, zirkuitu elektrikoak eta horrelako ikasgaiak. Horren ondotik energia berriztagarrietan zentratu ginen; hidraulikoa, eolikoa, geotermia, fotovoltaiakoa, eguzki energia termikoa... Graduan denak ikasten ditugu baina aunitz sakondu

gabe. Gero aukera izaten da gehien gustatzen zaizunaren arabera batean edo bat baino gehiagotan espezializatzeko. Eta horrek ere erakarri ninduen, hasiera batetik zein nahi nuen aukeratu beharrean, denak ikusi nituen eta orain aukera zabala dut.

Baten bat aukeratu duzu?

Ez, oraindik ez. Orain bertzelako gauzak ikasteko gogoia dut, ingeniaritza hau mundu bat da eta aunitz dut ikasteko. Ez dut argi zer gustatzen zaidan gehien, hortaz, gradua akituta lanean hasi nahiko nuke, baditudan aukera erreallak ikusteko. Gero ere izanen dut gehiago ikasteko denbora, nahi izanez gero.

Azkeneko urtea duzu aurten eta Gradu Amaierako Lanarekin ari zara. Zertan datza zure proiektua?

Nire GRALa Baztanen oinarritua dago, Berroetan, eta klasean emandakoarekin eguzki energia fotovoltaiakoan zentratu naiz. Herriarendako autokontsumo partekaturako eguzki-panelak paratuko ditugu. Nire lanean alde batetik diseinu teknikoa egingen dut; kalkuluak, programak... eta bertze aldetik, gaur egun ditugun kontsumo ohiturak aztertuko ditut. Ez dut lan tekniko bat bakarrik egin nahi, kontsumo ohitura kontzienteak ere sustatu nahi ditut, eguneroan egiten dugun kontsumoaz kontzienteak izan gaitzen.

Zergatik Berroetan?

Carlos Garaikoetxeak, Berroetako alkateak, proposatu zidan lana egitea. Berak buruan zuen herrian autokontsumo partekatua egitea edo komunitate energetiko bat sortzea, eta nik GRALa egin behar nuela bazekien. Hortaz, berarekin lan egiteko interesik nuen galde-tu zidan eta baietz erran nion.

Beraz, zure lana teorikoa da baina praktikara ere eramanen duzue...

Alde praktikoarekin hasi gara, instalatzailearekin harremanetan jartzen, aurrekontuak eskatzen... Hori martxan dago. Baina oraingoz alde teorikoan zentratzen ari naiz, diseinua egiten. Proiektuari egingen dioten ekarpenik handiena izanen da kontsumo ohiturak, zenbat urtetan amortizatuko den, paratuko dugun panel kopuruarekin zenbat energia sortuko den, gastu energetikoa... Horretarako, bertzeak bertze, inkesta bat egin diet Berroetako herritarrei, haien ohiturei buruz. Horrez gain, kontuan izan behar dira bertzelako faktoreak, adibidez, herritar aunitzek lurreko sua dute eta ez dute berogailurik erabiltzen, eta argi dago Baztanen neguan edo udan ez dela energia kopuru bera sortuko eguzki-panelek. Iker-

ketarekin lortutako informazio guztia berroetarrei jakinarazi behar diegu.

Errentagarria da Baztanen eguzki-panelak paratzea?

Bai, ez da inoiz gehiago ordaintzen, beti berdin edo gutiago. Gainera, autokontsumo partekatua izanda, hainbertze jendek parte hartzen duena, zuk kontsumitzen ez duzuna bertzeak kontsumituko du, eta denen artean fiteago amortizatuko da eta gehiago aurreztuko da. Egindako kalkulu arabera, hiru urtetan amortizatuko dira gastuak.

Energia hori herritarrek erabilteko izanen da?

Bai, oraingoz etxebizitza guztiek eman dute izena eta haiendako izanen da. Eguzkia badelarik bakarrik kontsumitzen ahalko dute paneletatik, eta eguzkirik ez izatean betiko moduan, saretik. Hala ere, erabiltzen ez den energia sarrera saltzen da, eta hortik ere etekina lor daiteke.

Ez dago energia hori gordetzeko modurik?

Bai, baterien bidez, baina guk ez ditugu paratuko. Nahiko garesti ateratzen dira eta azterketa sakona egin beharko litzateke ez delako etxe bakar bateko instalazioari konektatzea, guztiendako den instalazio bat baizik.

Zein abantaila ekarriko dizkio proiektuak herriari?

Alde batetik, ingurumen alderdia; haien energia nondik sortzen den jakinen dute eta gainera iturri garbi eta berriztagarria izanen dute, kontzientzia sortzeko balio duena. Alderdi ekonomikotik, gastuak amortizatuta, aurrezpena nabaritutako dute.

Lau urtetan teoriarik ikusi duzuna praktikara eramateko aukera izanen duzu orain...

Bai, karreran ikasi dudana praktikan paratzea izanen da; plaka kopurua, non, nola, zer kableatu, zein inbertsore... eta ikasitako hori hemen inguruan aplikatzen ahal dela ikusteak ilusioa egin dit. GRALA ez dela paperean bakarrik

geldituko ikustea izan da gehien motibatu nauena, ekarpen errealekin eginen dudala, zerbaiterako balio duena.

Noizko aurreikusi duzu lana akitzea?

GRALA, alde teorikoa, unibertsitatean nahi dutelarik aurkezten ahal dut, ekainean, uztailean edo irailean, baina lehenbailehen bada, hobe. Alde praktikoa martxan da, baina oraindik aurkezpen ofiziala egin behar dugu herriari datu zehatzak azalduz. Hasiera batean 30 bat etxebizitza izanen dira, baina datu guztiak emanda eta proiektuak zer inplikaturiko duen azalduta izanen dugu zerranda zehatza. Gainera estatuak horrelako instalazio berriztagarriak pa-

«IKASITAKO A
HEMEN APLIKATU
AHAL IZANAK
ILUSIOA EGIN DIT»

ratzeko dirulaguntzak ematen ditu, eta horiek ere aprobetxatu behar dira. Horretarako beharrezkoa da zenbat panel eta zenbat potentzia instalatuko diren jakitea, instalatzaileak dokumentazioa sinatzea eta dena aurkeztea. Gero dirulaguntza emanen diguten edo ez jakin arte esperatu beharko dugu. Hala ere, nik nire lana aurkeztuko dut proposamenarekin, baina instalatzailea, Zigako elektrizista bat, bere proiektua egiten ari da eta instalatzaile bakoitzak bere ingeniaria izaten du. Hortaz, nire ekarpena gehiago ikerketa aldetik izanen da.


Zergatik aurkeztu zinen Baztaneko Udalaren dirulaguntzara?

«NIRE EKARPENA
GEHIAGO IKERKETA
ALDETIK IZANEN
DA»

Egia erran ez nekien lana zeri buruz egin, eta aukeratzeko momentua ailegatu zelarik Carlosek proposamena egin zidan eta ideia ona iruditu zitzaidan. Udan berarendako lanean aritu izan naiz eta bazekien zer ikasten ari naizen. Proiektuarekin hasita, Baztanen egin behar dudana lan bat denez, beka deialdia aprobetxatzea erabaki nuen. Carlosek aipatu zidan dirulaguntzarena, baina lehenagotik ezagutzen nuen eta joan den urtean Lorea Lizarretari egindako elkarrizketa ere leitu nuen. Deialdirako memoria ttiki bat prestatu eta aurkeztu behar izan dut, baina ez da lan handia izan.

Horrelako ekimenak inportanteak dira gazteak bailarari gehiago lotzeko?

Bai, aukera polita da gazteak motibatuzko eta hemen gelditzeko, aunitzetan pentsatzen baitugu lan egiteko kanpora joan beharko dugula. Aukerak hauek aprobetxatu behar dira.



Eguzki-panelen norabidea eta hilabetearen sortuko duten energia kopurua kontuan hartu ditu Elizalde. OLALIA ELIZALDE



Gaztetxoak joan den urteko udalekuetan. ARTXIBOKOA

Udalekuetarako izena emateko epea ireki dute

Zazpi urte artekoentzat Landa haurtzaindegiak antolatu du eta gaztetxoentzat multijarduera campusa prestatu du Mugarkik

ARANTXA ETA IRAIA

Aurtengo udarako adin guztietako haur eta gaztetxoendako udalekuak antolatu dituzte herrian. Batetik, hiru eta zazpi urte bitarteko haurrentzat Landa haurtzaindegiak udalekuak eskainiko ditu. Hauek, bi txandatan emanen dituzte, uztailaren 4tik 15era lehena, eta uztailaren 18tik 29ra bigarrena. Orduetgia 10:00etatik 13:00etara izanen da eta kultur etxean bilduko dira. Izen-ematea ekainaren 17a baino lehen egin beharko da. Aste bateko prezioa 20 eurokoa izanen da, bi astekoa

30 euro, hiru astekoa 40 euro eta lau astekoa 50 euro.

Multijarduera

Bertzetik, joan den urtean bezala, multijarduera campusa antolatu du Mugarkik, zortzi eta hamaika urte arteko eta hamabi eta hamasei urte arteko gaztetxoentzat. Hauek ere bi txandatan emanen dira, uztailaren 18tik 29ra lehena eta abuztuaren 8tik 19ra bigarrena. Orduetgia, kasu honetan 09:00etatik 14:00etara izanen da. Izen ematea *forms.office.com* gunean egin beharko da.

Pentekoste eguna ospatuko dute Dantxarinean

Herriko besten ondotik, ohitura den modura, Pentekoste eguna ospatuko dute ekainaren 6ean Dantxarinea auzoan. Azken urteetan nahiko finkatua dago egitaraua. Heldu den astelehen goizeko hamarretan hasirik, haurrendako jokoak, puzgarriak eta musika, euskal dantzak, herri kirolak, eta bukatzeko txotx sagardoa eta pintxoak izanen dira. Horrez gain, urtero ikusmin handia pizten duen Dantxarineko bentetan erabiltzeko 1.500 euroko txekearen zozketa ere egingen dute.

Bi urteren ondotik Salvatore bestak giro ederrean

Bi urteren ondotik, aurten herriko Salvatore bestak ospatzea posible izan da eta nabaritu da herritarrak besta gosez zirela. Maiatzaren 25ean, asteazken arratsean, piztu zen altxaferoarekin eta ezkil-jotzearekin hasi eta igandeko aizkora apustu, pilota partida eta zozketak arte, aitzineko urteen gisan, herritarrek kontzertuez, bazkarietz, afariezt eta haurrendako jokoez gozatzeko aukera izan zuten. Heldu den urteko besten esperoan geldituko gara orain!



UTZITAKOA

Lavin eta Alcega garaile Rallysprintean

Kontrabandisten Rallysprintean 33 autok parte hartu zuten maiatzaren 21ean. Kantabriako Mariano Lavin eta Yasmina Alcega izan ziren irabazle; bigarren, Julen Mendiberri Jaurena eta Mairu Garisoain Sagaseta baztandarrak, eta hirugarren, Iker Etxeberria eta Aitor Antoñana.

TTIPI-TTAPA
SARE SOZIALETAN

facebook
www.facebook.com/ttapi.ttapa

Etxekoak berriz bueltan

- KARTA
- BRASA
- PINTXO BEREZIAK
- PLATER KONBINATUAK
- OGITARTEKOAK
- ERRAZIOAK

Etxera eramateko aukera

Montxo
JATETXEA • ERRETEGIA
@asadormontxo

Axular, 12 • Antzanborda • URDAZUBI • Tel.: +34 848 85 00 21



Maiatzaren 11n bisitan etorri ziren parlamentariak udal ordezkariekin.



Planoak aztertzen.



Zikiroa erretzen aritzen zen Migel Mari.

Saihesbidea egin ahal izateko finantziazio bila

Maiatzaren 11n Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesioko Batzordea bisitan izan zen, udal ordezkariekin batera

KORO ETA MARIFA

Momentu honetan daukagun arazoetako bat, herritik pasatzen den ibilgailuen kopurua da. Urrian egin zen neurketa baten arabera, aste hondarretan egunean 1.000 ibilgailuk gurutzatzen dute plaza banaz bertze, batzuk Dantxarinea aldetik sartuz eta bertzeak Bentetako bidetik sartuz.

Hori dela eta, aspaldixko da udalak saihesbidean emana duela irtenbidearen konfiantza. Duela hamar bat urte edo, hasiak ziren gai hau lantzen, eta ematen du gaur egun afera aitzineratua dela. Proiektua

onartua da, eta badauka Nafarroako Gobernuaren onepena, baita Parlamentuarena ere.

Parlamentarien bisita

Maiatzaren 11n tokiak ezagutzera etorri zen Parlamentuko Lurralde Kohesioko Batzordea. Isabel Olabe eta Patxi Perez (Navarra Suma), Virginia Magdaleno (PSN), Pablo Azkona (Geroa Bai), Adolfo Araiz (EH-Bildu) eta Marisa de Simon (Talde Mistoa-Ezkerra) izan ziren herria bisitatu zuten parlamentuko batzordeko ordezkariak eta hauek harre-

ra egin zieten Evaristo Mentaberri alkateak eta Juan Miguel Ariztegi zinegotziak, Joseba Otondo Baztango alkateak eta Florentino Goñi, Baztango udaleko Herrilan zinegotziak eta sarbide berriko proiektua lantzen ari diren Maria Urmeneta eta Saioa Rey arkitektoek.

Evaristo Mentaberri alkateak azaldu zuenez, irtenbidea «ez da erraza, Saratik datorren bide nagusia udalarena baita eta, gainera, Baztango Udalarena den zati bat ere badu». Horrek Nafarroako Gobernuaren jarduna mugatzen du eta Zugarramurdiko udala 1,9 milioi euroko aurrekontua duen saihesbidearen obra ordaintzeko laguntza ekonomikoa bilatzera behartua dago.

Saihesbideak NA-4401 errepidea frontoiarekin eta aparkalekuarekin lotuko luke, herrigunetik pasatu beharrik gabe. Gehienbat belaiak hartuko lituzke, Azketako bidea eta Zorribenta erreka inguruko zuhaitzia.

Dolareko Migel Mari Mendiburu zikiro-erretzailea gazterik hil da

KORO ETA MARIFA

Joan den maiatzaren 12an hil zitzaigun Dolareko Migel Mari Mendiburu Indaburu, 61 urte bertzerik ez zituela. Zikiroa erretzen, han eta hemengo ospakizunetan egiten zuen lanagatik aski ezaguna eta estimatua zen Migel Mari, baita egiten zituen bertze hainbat lanagatik ere. Kolpe latza izan zen bai familiarendako, bistan da, baita herriarentzat ere.

Azkeneko lau urteetan, gazte ziren lau herritar galdu ditugu, zoritxarrean: Joxe Jabier, Frantxixko, Maribel eta orain Migel Mari. Ez da gauza xamurra hau, gure herri ttiki hauetan sasoian dagoen pertsona bat galtzeak galera handia suposatzen duelako.

Garai bateko bizimodua erakusteko proiektuan aritu dira jubilotekakoak

Harremanak jubilotekaren bidez, Urdazubi eta Zugarramurdiko adinetako zenbaitzuk esperientzia berezi batean parte hartu zuten maiatzaren 19an. Joseba Urretabizkaia argazkilariak eta Fernando Hualde etnografoak daukaten proiektuan laguntzen aritu

ziren. Goiz osoan argazki saioak egiten aritu ziren herriko hainbat tokitan, baita Alkerdi auzoan ere. Helburua, garai bateko irudiak hartzea zen, eta horretarako lehengo bizimodua eta jantziak erakusten saiatu ziren. Akabaila ona emateko, Karretero jatetxean bazkaldu zuten.



Jubilotekako kideak argazkietarako prestatzen. KORO ETA MARIFA

Sagarnotegi bazkaria prestatu du Olhain ikastolak igandean

Bi urteren ondotik ekainaren 5ean antolatu dute haurren besta eta antzerkia, puzgarriak, kantuak eta bertsoak izanen dituzte

GANEX

Badu bi urte ez dutela egin pandemiarengatik, baina aurren eginen dute Olhain Ikastolaren haurren besta. Egun hori izanen da, bertze urtetan bezala, Mendekoste egunarekin, ereiarioaren 5ean, igande honetan, kiroldegian.

Eguerdi inguruan haurrek eginen dituzte antzerki ttiki batzuk, kantuak eta bertsoak eta 12:30ean kupelen idekitzea eginen dute. Ondotik izanen da Sagarnotegiko bazkaria (bakailoa piperrekin, txuleta, gasna, pastiza, kafea eta ttotta), deneri irekia. Hernaniko Akarregi, Astigarragako Oialume Zar eta Lesakako Lindurren bordako sagarinoa izanen da dastatzeko.

Txartelak 27 eurotan salgai dira helduentzat eta 8 euro haurrentzat, Herriko Etxeko



2019an egin zen azken besta.

edantegian edo erreserba egin daiteke 06 60 91 68 63 edo 06 85 54 88 72 telefono zenbakietar at deituz.

Arratsaldean ere musika

Arratsaldez haurrentzako jokoak eta puzgarriak izanen dira eta musika ezarriko du DJ Bullek. Gauero taldeak animatuko du egun guztia, beraz, etorri ahal duzuen guztiak haur horiek sustengatzera eta egun eder bat pasatzera.



GANEX

Goazen 8.0 kontzertuak arrakasta

Goazen 8.0 kontzertua izigarri ongi pasatu da maiatzaren 22an. 800 bat jende etorri dira aktore eta abeslari horien ikusterat eta aditzerat, denek esku zarta ederrak ukan dituzte bi emanaldietan. Taloeak eta edatekoak ere arrakasta izan dute, denak kontent ziren.



GANEX

Bestetako gazteria Zugarramurdin

Maiatzaren 14an egin dute beren bazkaria Zugarramurdiko Azketa jatetxean. Gazteez aparte, gomiatuak zituzten borondateko jendeak bestetako jokoetaz, pilotaz eta indar jokoez okupatzen direnak. Denera 30 bat baziren, beti bezala jateko onak izan dituzte eta zintzurra ongi busti dute.

1949-50eko kintoeak Pleka trinketean egin dute bazkaria

1949 eta 1950ean sortukoek elgarretaratu dira bazkari baten aitzinean Pleka trinkete jatetxean. 35 bat baziren eta izigarrizko memento ederra pasatu dute euskal kantu eder batzuk emanez. Arratsalde apalean bukatu dute, heldu den urtera arte erranez.



1949 eta 1950ean sortutakoak. GANEX



GANEX

Bigarren mundu gerlako beteranoak

Maiatzaren 8a, beteranoen egun ohoratua izan da. Meza izan zuten eta loreak pausatu zituzten bi hilarrietan. Denera hamabortz bat beterano baziren. Ondotik aperitifak eskaini zuen Herriko etxeak. Kafia ostatu berrirat joan ziren bazkaltzera eta Maiana eta Mikel nagusiek ongi errezibitu zituzten.



Senpereko Gezi taldeak parte hartuko du kantaldian. UTZITAKOA

Elkartasun kantaldia prest larunbat honetan Larrekon

Sourire Abidji elkarteak laguntzeko kantatuko dute Gezi taldeak, Marie eta Camillak, Magali Zubillagak eta Bost Axolak

JL BESSONART

A Mait's Arro'Cha elkarteak Sourire Abidji elkarteak laguntzeko elkartasun kantaldia antolatu du ekainaren 4an, larunbatean 20:30ean, Larreko antzokian. Sekulako programa aurkeztua da, Senpereko Gezi Taldea, Marie eta Camilla, Magali Zubillaga aldudarra baita Bost Axola urruñar emazte kantariak ere oholtzan izanen dira.

Abidjan hiriko (Boli Kostako hiri nagusia) eskola bateri laguntza materiala ekarri nahi dute, parte hartuz urtero egiten den Roses des Sables Tro-



Urruñako Bost Axola taldea.

feoan (emakumeek binaka egiten duten 6.000 kilometroko motor proba Ipar Afrikako desertuan). Publikoari parte hartze librea eskaini zaio, ez huts egin.

Cala Valdésen ballet akademiako ikasleen emanaldia ekainaren 11n

Jennifer eta Dennis Cala Valdésen ballet akademiako ikasleen eskutik ikuskizuna izanen da ekainaren 11n, larunbatean 20:30ean Larreko kultur aretoan. Lau ballet klasiko handiren zatirik ederrak dantzatzeko dituzte. Sartzea 18 euro izanen da, 10

euro hamabi urtez beheiti-koendako.

Bertze aldetik, Ortzadarra elkarteko kideen margolanak eta eskulturak ikusgai izanen dira Larreko erakusgelan ekainaren 13tik 20ra, (10:30etik 12:30era eta 16:00etatik 19:00etara, igandeak ezik).

Amaiurko batailari buruzko mintzaldi arrakastatsua izan dute Inharrian

Azken aldian bi hitzez aipaturiko Inharria baserriko solasaldiak sekulako arrakastatsua izan du, uste baino gehiago jendek parte hartu baitu. Gaiak interes handia sortu du eta inguruetako herrietatik jende asko ekarazi. Dominique Duval hizlariak azaldu du Nafarroa erresumaren historia, bere gorabeherekin, xehetasunetan sartu gabe, ez baita erraz laburki aipatzea. Beti ere onugarri da gure jakitatea argitzea. Egia erran Amaiurko batailari berak leku guti hartu du mintzaldian. Senpereko Kultur eta Ondare elkarteak plazer handiarekin ikusi du holako jendetzaren hurbiltzea, eta pintxo-pote gozo baten inguruan bukatu da ekitaldia.

Herri Urratsen itzulera harrigarria aspaldiko jendetsuena izan da

Harrigarria, miresgarria... azken Herri Urratsen kalifikatzeko hitzak eskas dira. Azken urteetako ediziorik jendetsuena izan da, bi urteko penitentziari bizkar emanez, libertatearen usaina zegoen lakuak erakusten duen antzoki zoragarrian. Betiko animazioak eskainiak ziren. Orogen gaitetik, belaunaldi guzietako jendea euskaraz aritzea baita atseginik handiena, egun hortarik kanpo iraun dezala dinamikak. Hitz emana izan da bosgarren kolegioa laster egingen dutela herriko eremuetan. Eskerrak, xinaurri lana eramaki duten antolatzaileei, haueri juntatuz gure herriko laborari aunitz, beren landak uzten dituztelakotz aparkalekuendako.



'Mattin', Bateleku lehiaketako irabazlea, ikurrinarekin. UR IKARA/ARNAUD LEGUE

Bateleku lehiaketako lehen proba egin zuten maiatzaren 15ean aintziran

Denboraldiko lehen lehiaketa zuten aintziran maiatzaren 15ean, Teink Trofeoaren kari, Ur-Ikara elkarteak antolatutik. 24 hirukoteko arraunlariek, sasoiko lehen proban, parte hartu zuten aintzirak ematen duen leku zoragarrian. Datorren batelekuen lehiaketa iraganen da ekainaren 11n

Sokoako besten kari. Senpereko emaitzetan garaile izan da *Mattin*, aitzinaturik *Bidekoa* eta *Bizia*.

Noizean behin, itsasotik urrunzea atsegin zaie lehiakideei, olaturik ez izanik, aintzirak baldintza onak ematen dituelakoan. Zinez ikusgarri ederra eskaini zuten.



Mendizale guztiek familia argazkia atera zuten. P. IRASTORTZA



Udako giro ederra izan zuten mendi irteeran. P. IRASTORTZA

Ezkurrara egin dute irteera elkarteko mendizaleek

Mendizaleen hurrengo hitzorduan Gorramendi ingurura joanen dira ekainaren 21ean

P. IRASTORTZA

Hilabeteroko hirugarren as-
teartero bezala, maiatzaren
17an egin zuten Arkupeak
elkarteko mendizaleek azken
mendi irteera.

Goizeko bederatzietan Ez-
kurrako Perraleku inguruan
elkartu ziren 49 mendizale,
1.135 metroko Erakurri men-

dira joan-etorria egiteko,
Pello Gomez elkarteko baz-
kide leitzarra bide erakusle
edo gidari zutela.

Udako eguraldi ederra lagun
zutela (30 gradu behean bai-
na 25 gradu eta haize goxoa
eta bista zoragarriekin kas-
koan) hagitx gustura egin
zuten lau orduko txangoa.



49 mendizale elkartu ziren Ezkurrari irteera egiteko. P. IRASTORTZA

Behin mendiko bidea buka-
tuta, Ezkurratik Leitzara egin
zuten, eta Lopenea jatetxean
egin zuten bazkari goxoa la-
gungarri izan zuten egun
bikainari bukaera emateko.

Mendira joateko ohiturarekin
segitzen dute bazkideek, eta
Baztanera, Gorramendi in-
guruetara iragarria dute ekai-
neko hirugarren astearteko
irteera.



ARKUPEAK ELKARTEAK UTZITAKOIA

51 bazkide Benidormen izan dira

Maiatzaren 5etik 15era, elkarteko 51 bazkide Benidormen izan dira oporretan Poseidon Playa Hotelean. Eguraldi ederra lagun, giro ederrean pasatu dituzte 10 egunak, eta hurrengo bidaiarako gogoz itzuli dira bertatik.

Ekainaren 9an Lourdesera bidaiara eginen dute

Bidaiaz bidaiara segitzen dute elkarteko bazkideek, eta hurrengo Lourdesko santutegira izanen dute ekainaren 9an. Autobusean abiatuko dira nor bere herritik (delegatuak jakinaraziko du ordua), eta hara ailegatutakoan 12:00etan meza izanen dute. Ondotik bazkaria izanen dute 13:30ean, eta bazkaria bukatutakoan, 15:30ean arrosario santuaren errezoa, eta 16:30ean gaixoren prozesioa izanen dituzte. 18:20ean aterako dira Lourdestik bueltan etxera itzultzeko.



Ibilbide eta kategoria guztietako bizkorrenak podiumean. FELIX LOIARTE

Joseba Larralde eta Itxaro Zabaleta garaile Goizutrailen

Maiatzaren 21eko zazpigarren edizioiko ibilbide laburrean, berriz, Eki Imaz eta Guratz Azpiroz nagusitu ziren

TTIPI-TTAPA GOIZUETA

Goizutrail mendi lasterketaren zazpigarren edizioa egin zen maiatzaren 21ean. Aurreko urteetan bezala, kirolariek hiru modalitate izan dituzte aukeran: luzea 25,2 kilometrokoa (1.600 m+) eta Mandoegitik pasatuz (1.046 m); motza 10,6 kilometrokoa (615 m+) eta

erreboka egitekoa. Azken honetan kide batek 10 kilometro egiten ditu eta besteak gainerako 15,2ak.

Proba nagusian, irabazleak eskualdekoak izan ziren: Joseba Larralde Altzugarai beratarra gizonetzkoetan (2.12.21) eta Itxaro Zabaleta Telleria leitzarra emakumezkoetan

(3.00.40). Larralde lau minutu eta erdiko aldea atera zion bigarren izan zen Hodei Lujanbio goizuetarrari eta Andoingo Asier Rajadok osatu zuen podiuma. Emakumezkoen ibilbide luzean, Zabaletaren ondotik sailkatu ziren Usurbilgo Rosa Uribe eta Ana Reina lesakarra. Beteranoetan, Joseba Lasarte beratarra izan zen bizkorrena eta Iban Bengoetxea leitzarra bigarren izan zen.

Ibilbide laburrean, gizonetzkoetan Aguraingo Eki Imaz izan zen bizkorrena eta Asteasuko Jon Zubeldiak eta Bera-ko Angeltxo Aranibarrek osatuzuten podiuma. Emakumeen artean ere izan ziren eskualdeko korrikalariak podiumean. Ane Elzaurdia beratarra bigarren izan zen eta Mayi Arriola lesakarra hirugarren, irabazle suertatu zen Atarrabiako Guratz Azpiroren ondotik.

Erreboka egindako lasterketan Olatz Zabala eta Ion Altzuri irundarrak nagusitu ziren, Adur Iantzi eta Aitor Begino igantziarrak bigarren izan ziren eta Xuban Iturrioz eta Jon Murua hernaniarrak hirugarren. Laugarren izan ziren Jonan Arbelaitz eta Peio Telletxea lesakarrak.

VII. GOIZUTRAIL

IBILBIDE LUZEA

1. Joseba Larralde (Bera) **2.12.21**
2. Hodei Lujanbio (Goiz.) **2.16.56**
5. Aimar Otxoteko (Lesaka) **2.28.22**
6. Unai Iantzi (Aniz) **2.35.48**
7. Beñat Saralegi (Lesaka) **2.37.46**
11. Beñat Saralegi (Leitza) **2.41.36**
13. Joseba Lasarte (Bera) **2.43.11**
14. Iban Bengoetxea (Lei.) **2.45.06**
16. Mattin Glez (Lesaka) **2.46.35**
17. J.A. Zabaleta (Leitza) **2.47.03**
20. Iñaki Zabaleta (Leitza) **2.51.26**
1. Itxaro Zabaleta (Leitza) **3.00.40**
3. Ana Reina (Lesaka) **3.17.28**

IBILBIDE MOTZA

3. Angeltxo Aranibar (Bera) **54.47**
12. JM Indakoetxea (Les.) **59.21**
15. Iñigo Arrieta (Sunbilla) **1.02.20**
16. Beñat Mitxelena (Bera) **1.02.31**
2. Ane Elzaurdia (Bera) **1.06.16**
3. Mayi Arriola (Lesaka) **1.07.56**
11. Ane Berasain (Bera) **1.24.21**
12. Paula Artieda (Bera) **1.24.23**
13. Olaia Telletxea (Les.) **1.25.12**

BIKOTEKA

2. Adur Yanci-Aitor Begino (Igantzi) **2.36.00**
4. Jonan Arbelaitz-Peio Telletxea (Lesaka) **2.39.38**
7. I.Gaztelumendi-Xabier Apezetxea (Hondarribia-Goizueta) **2.50.02**
9. Beñat Ordoki-Oier Iantzi (Lesaka) **2.59.55**



UTZITAKOA

Europako Ipar Martxan bikain

Maiatzaren 14an Italiako Grosseto hirian jokatu zen master mailako Europako Ipar Martxa txapelketa. Ttuku Ttuku taldeko Ramontxo Arandia beratarra bigarren eta Elizondoko Jon Medrano hirugarren izan ziren. M35 mailan Europako txapeldun izan zen Medrano eta Arandia txapeldunorde M40n.



UTZITAKOA

Bixente Igarzabal Nafarroako txapeldun

Nafarroako eta Espainiako Half triatloi txapelketa jokatu zen maiatzaren 14an Nafarroan. 1.450 kirolarik parte hartu zuten eta Beti Gazteko Bixente Igarzabal bikain ibili zen eta beteranoen bere kategorian Nafarroako txapeldun eta Espainiako txapelketan hirugarren izan zen lesakarra.



Gizonezkoen pisu arineko podiumean Beti Gazte, Berriozar eta Amaiur. XAGU-LESAKA

4x4 sokatiran bortz txapeletatik lau lortu ditu Beti Gaztek

Maiatzaren 21ean Berriozarren jokaturako azken jardunaldian Amaiur bigarren izan zen kadete mailan

TTIPI-TTAPA

Nafarroako launakako sokatira txapelketako azken jardunaldia jokatu zuten maiatzaren 21ean Berriozarren. Emakumezkoen eta gizonezkoen pisu arinetako (235 eta 300 kilo) bigarren jardunaldia eta 20 urtez behetiko eta kadete mailako hirugarren jardunal-

dia eta finalak jokatu zituzten. Gizonezkoetan Beti Gazteko laukotea suertatu zen txapeldun. Beñardo Iantzi, Unai Gurrutxaga, Eneko Saldias eta Gerardo Telletxea aritu ziren tiran, Karmelo Mitxelena entrenatzaile zutela. Lesakarren gibeletik, Berriozar eta Amaiur A igo ziren podiumera; Txan-

trea B laugarren izan zen, Txantrea A bosgarren eta Amaiur B seigarren.

Emakumezkoen pisu arinean, ordea, ordura arteko tiraldi guztiak irabaziak zituen Beti Gazte bigarren izan zen finalean, Berriozar txapeldunaren gibeletik. Txantrea hirugarren izan zen, Araxes A laugarren, Amaiur bosgarren eta Antsoain eta Araxes B seigarren.

20 urtez behetikoetan ez zen eskualdeko talderik izan eta Berriozar suertatu zen txapeldun, Antsoain A, Antsoain B eta Txantrearen aitzinetik.

Kadete mailan, Amaiur txapeldunorde izan zen, Antsoain A taldearen gibeletik. Ondotik sailkatu ziren Andra Mari A, Berriozar, Andra Mari 1 eta Antsoain B eta Andra Mari 2.

Txapel guztiak

Gauzak honela, Beti Gazte irabazi ditu maila nagusian jokatu diren bortz txapeletatik lau (gizonezkoak 300 eta 320 kilotan, emakumezkoak 255 kilotan eta mistoa 280 kilotan) eta Berriozarrek emakumezkoen 235 kilokoa. 20 urtez behetikoan Berriozar eta kadetetan Antsoain A suertatu dira txapeldun.

Iñaki Ordoki elizondoarra garaile Amurrioko Sarian

Junior mailako txirrindulariei zuzendutako Euskal Herria sarietako bigarren proba jokatu zen maiatzaren 21ean Amurrioko Sari Nagusia hain zuzen. Ohi bezala, Amurrioko inguruko zirkuitu batean bortz itzuli eman behar izan zituzten txirrindulariek, hirugarren mailako Zaroabeko gaina koska nagusia zutela. Lizarte-Ermitagaña taldeko Iñaki Ordoki Sansiñena elizondoarra nagusitu zen. Ihes egindako taldetxotik azken itzulian ihes eginda lortu zuen bere lehen garaipen handia.



Ordoki garaile Amurrioko.



AITOR AROTZENA

Beti Gazteko jubenilak txapeldunorde

Beti Gazteko jubenilek Gipuzkoako ohorezko mailako finala galdu zuten maiatzaren 21ean Beasainen, Bergararen kontra, 0-2. Lesakarren ezin izan zuten denboraldi bikaina finala irabaziz eta euskal ligara igoz borobildu, baina ongietorri beroa jaso zuten herrira bueltatutakoan.



UTZITAKOIA

Madariaga eta Bertiz txapeldunorde

Emakumezkoen Master Cup txapelketan, maiatzaren 22an Orkoien jokaturako gazte mailako pilota goxo txapelketako finalean, Bartzelonako Nafar Etxeko Leire Arribas eta Isabel Garciak 18-3 irabazi zieten Arantzako Kattin Madariagari eta Sunbillako Nahia Bertizi.



Mujika, Iantzi eta Arrieta txapelak, Telletxea eta Petrirenekin. UTZITAKOAK



Finalistak eta jaialdian parte hartu zuten pilotari gaztetxoak. UTZITAKOAK

Malerrekako Erronka txapelketan Mendaur nagusi

Maiatzaren 22an Sunbillako pilotalekuan jokaturako final berdinduan lau tantoko aldea atera zion Ekaitzari

TTIPI-TTAPA SUNBILLA

Ados pilota elkarrekin eta Malerrekako Mankomunitateak, Malerrekako errespetuzko harremanak kanpainaren barrenean, zazpi herritako udalen eta Doneztebeko Santamaria jatetxearen eta Ttipi-Ttapa Fundazioaren laguntzarekin antolatutako Malerrekako

erronka emakumeen pilota txapelketa arrakastatsuen finala maiatzaren 22an jokatu zuten Sunbillako udal pilotalekuan Ekaitza eta Mendaur taldeek. Partida bana irabazi zuten, baina azkenean Mendaur nagusitu zen lau tantoko aldearekin. Lau eta erdiaren barreneko lehian, Ekaitzako

Iera Iturriaga leitzarrak 18-12 irabazi zion min hartutako Osesen ordeztaritu zen Irantzu Iantzi beratarrari. Beraz, Ekaitzakoe 17 tanto egitea aski zuten binakakoan txapela janzteko, baina ez zuten posible izan. Mendaurko Arrietak eta Mujikak 22-12 irabazi zieten Ekaitzako Naroa Etxekolonea eta Ane Mendiburu zubietarrei. Hortaz, txapeldun, Mendaur suertatu zen. Iantzi gustura zegoen «zati handi batean Uxeri dagokion txapelarekin. Partida gogorra jokatu dugu Ierak eta biek, azkenean hamabira ailegatu nahiz eta bikoteka Maitek eta Eneritzek jokatu duten partida bikainari esker lortu dugun txapela». Ekaitzakoak, berriz,

penatuak zeuden, «azken partidaren tentsioa sumatu dugu eta ezin izan dugu», zioten.

Garaikurrak banatzen Jon Telletxea, Malerrekako Mankomunitateko presidentea eta Ixaro Petrirena, Sunbillako zinegotzia izan ziren.

Ados pilota elkarrekin eman nahi izan dizkie Malerrekako Mankomunitateari «txapelketa eder hau antolatzeke aukera emateagatik eta gure pilota eskolako neska txikiei gure atzetik horrelako ilusioarekin ibiltzeagatik». Izan ere, finaleko partidaren aitzinetik, txapelketako jaialdi guztietan bezala, Ados pilota eskolako neska gaztetxoek ere jokatu dituzte beraien partidak Sunbillan.



UTZITAKOAK

Uterga txapeldun, Jabalera txapeldunorde

Joan den urtean bezala, Xanti Uterga doneztebarrak eta Barricartek irabazi dute Iruñerriko II. Erremonte txapelketa. Maiatzaren 13an Atarrabiako Lorenzo Goikoa pilotalekuan jokaturako finalean 35-29 irabazi zieten Aimar Jabalera doneztebarrari eta Ioni.



NAFARROAKO PILOTA FEDERAZIOA

Ariztegi eta Apezetxea txapeldun

22 urtez beheitiko Espainiako Federazioen arteko esku huskako pilota txapelketako finalean, binaka Antton Apezetxea goizuetarra suertatu zen txapeldun Oskozekin, Fernandez eta Lozari (Errioxa) irabazita. Eskuz banakakoan, Oier Ariztegi lekaroztarrak Andaluziako Larari irabazi zion.

EKAINAK 2 - 16

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



EHMENDIERRONKA

LEITZA Euskal Herria Mendi Erronkaren VIII. edizioa

67 kilometroko ibilbidea edo erreleboka.
Leitzako plazatik abiatuta, ekainaren 4an, irteera 08:00etan.

JARDUNALDIAK

LESAKA Beti Gazteren astea

Futbola, mahai jokoak, mendi irteera, bazkaria, dantzak...
Maiatzaren 27tik ekainaren 6ra.

NARBARTE Sagardo eguna

Aterpean, ekainaren 4an,
14:00etan.

DONEZTEBE Erreka elkartearen eguna

Egun osoko egitarauarekin.
Ekainaren 4an.

SARA
Sagarnotegi bazkaria
Kiroldegian, ekainaren 5ean.
Txartelak Herriko Etxeko Edantegian 27 eurotan helduentzako eta 8 eurotan haurrentzako.

AMAIUR/ELIZONDO Amairraldia

Egun osoko egitarauarekin.
Ekainaren 5ean.

URDAZUBI Pentekoste eguna

Goiz osoko egitarauarekin.
Dantxarinean, ekainaren 6an.

LEITZA Atekabeltzeko X. Film Laburren Txapelketa

Gaztetxean, ekainaren 10ean.

XII. Sagardo Eguna

Plazan, ekainaren 11n,
19:00etan.

BERA Dantzari Ttiki eguna

Gure Txokoa dantza taldea.
Ekainaren 11n.

Mugaz gain antzerki jaialdia
Ekainaren 3an DBHn goizez, ekainaren 9an eta 10ean LHn goizez. 18:00etan ate irekiak Kultur Etxean.

IKUSKIZUNAK

ETXALAR
Andre Mari dantza taldea
Ekainaren 4an, 22:00etan.

LESAKA
'La bona Germanor' antzerkia
Harriondoan, ekainaren 4an,
19:00etan. Sarrerak 6 eurotan.

SENPERE
Cala Valdésen ballet akademiako ikasleak
Larrekon, ekainaren 11n,
20:30ean. Sarrerak 18 eurotan helduentzat eta 10 eurotan haurrentzat.

AZOKAK

ELIZONDO
Baztango Artisauak eta Zaporeak
Plazan, ekainaren 4an eta 11n,
10:00etatik 14:00etara.

ETXALAR
XXIX. Altxata gasna feria
Frontoian, ekainaren 5ean,
goizean.

GOIZUETA
Mendialdeko Azoka Ibiltaria
Ekainaren 5ean, 10:30etik
14:00etara.

BERA
Bertako ekoizleen merkatua
Beralandetan, ekainaren 11n,
10:30etik 13:30era.

KIROLAK

BERA
VI. Ibardingo igoera
Ekainaren 4an, 12:00etan errepide mozketa eta 13:30ean lehen irteera.

ETXALAR
Eskolako krosa
Ekainaren 9an, 10:00etan.
Izen-ematea
etxalarkolh6krossa@gmail.com.

AMAIUR
Sokatira Torneoa
Ekainaren 11n, 17:00etan. Afari eta kontzertuetarako txartelak Intzan salgai 30 eurotan.

ARANTZA
Pilota Txapelketa
Ekainaren 11n.

LESAKA
Lesakako Mendi itzulua
Ekainaren 12an.

MUSIKA

SENPERE
Elkartasun kantaldia
Gezi, Marie eta Camilla, Magali Zubillaga eta Bost Axola.
Larrekon, ekainaren 4an,
20:30ean.

BERA
Musika eskolako biolin entzunaldia
Kultur etxean, ekainaren 6an,
18:00etan.

Musika eskolako trikitixa entzunaldia
Kultur etxean, ekainaren 8an,
18:30ean.

LESAKA

Musika eskolaren kontzertua

Jubilatuaren arkupeetan,
ekainaren 10ean.

Musika eskolaren kontzertua

Harriondoan, ekainaren 15ean,
18:00etan.

IKASTAROAK

ETXALAR

'Gure genealogia feministak'

Emagin elkartearekin.
Kultur Etxean, ekainaren 3an,
17:00etan.

IGANTZI

Afrikar dantza saioak

Lorhazi Emakume taldeak
antolatua.
Ekainaren 5ean eta 12an.

BERTSOAK

LESAKA

Bertso eguna

Bortzrietako Bertso Eskolak
antolatua.
Antoiun, ekainaren 5ean,
12:00etan. Arranoko bazkariko
txartelak 618 96 30 11
telefonoan.

LEITZA

Señora sariketako finala

Egun osoko pesta.
Herri Aretoan, ekainaren 4an,
17:00etan.

LITERATURA

LESAKA

**'M *ama *eme *ume'
liburuaren aurkezpena**

Xulufrikan antolatua, Erika
Lagoma eta Estitxu
Fernandezekin.
Udaletxeko pleno aretoan,
ekainaren 5ean, 18:00etan.

NIRE AUKERA

«Euskaldunok mendizaletasun handia izan dugu betitik»

UNAI IANTZI MARITORENA ANIZKO LASTERKARIA



«Anizen bizi den 27 urteko gaztea» da Unai Iantzi Maritorea. Ez da geldirik egoten denetakoa, eta «kirolarekin lotuta dagoen edozein gauza» du zaletasun, «ikustea zein praktikatzea». Bertzeen artean, mendi lasterketetan aritu da azken urteetan, baita marka onak lortu ere.

Lehen urratsak mendian lasterka

20 urterekin egin zuen Iantzi bere lehenbiziko mendi lasterketa, «Oiertzungo Intxixu Trailen». Lehenagotik ere lasterka ibiltzen zen, «eta orduan mendi lasterketak modan jartzen hasi zirenez, animatzea erabaki nuen. Dezente sufritu nuela gogoratzen naiz, eta ez nintzela berriz horrelako zerbaitetan apuntatuko erran nion neure buruari. Ez nuen ikasi».

«KONTENT NAGO NIRE LEHENBIZIKO PODIUMAREKIN»

Mendian lasterka ibiltzea «gure inguruko bazterrak eta inguruneak ezagutzeko kirol ezin aproposagoa» dela dio Iantzi, «gure eskualdean kristoren suertea daukagu alde horretatik». Hala ere, «kirol gogorra» dela dio; «hankako mina, babak, urradurak, barea, erorketak, kalanbreak, hotza, beroa... mila trabei aurre egin behar zaie lasterketa batean eta horrek gezurra badirudi ere, badauka bere xarma».

Maiatzaren 15ean egindako Berroetako V. Mendi Maratoi Erdian bigarren postua lortu zuen Iantzi. «Lasterketako ibilbidea nire entrentzeko ohiko lekua da eta alde horretatik aitzakiarik ez neukan. Haizeak baldintzatu zuen lasterketa, zakar jotzen baitzuen goiko aldean eta neketan ibili ginen lasterkari guz-

«EGUNEROKO ENTRENAMENDUA DA INPORTANTEENA»

tiak. Malda goiti nahiko ongi sentitu nintzen baina beheitik aunitz sufritu nuen». Hala ere «bigarren postuarekin kontent, lortzen dudan lehenbiziko podiuma baita!».

Entrenamenduen garrantzia

Bere lehenbiziko podiuma bada ere, postu onak lortu ditu bertze hainbat lasterketetan; «eguneroko entrenamendua da inportanteena, eguraldi txarra zein ona egin, zapatilak jantzi eta alferkeriak etxean utzita ateratzea».

Entrenamenduak «urtaroaren arabera» egiten ditu, «hiruzpalau aldiz entrenatzen naiz astero. Udazken eta neguan gehienbat korrika eta udaberri zein udan bizikleta uztartuta. Astegunez ordu-bete edo ordu eta erdiko entrenamenduak egiten ditut eta asteburuetan luzexea-goak». Normalean «etxe inguruan» ibiltzen da; «Abar-tan, Urlei, Elorrei, Udi... asteburu batzuetan inguruko leku berriak ezagutzeko aprobe-txatzen dut».

Lasterka ibiltzeaz gain, lokotx biltzean ere aritzen da Iantzi; «bi kirolak bateragarriak dira, nahiz eta modalitate arras desberdinak izan. Biek daukate bere xarma».

Etorkizunera begira

«Bai gure eskualdean baita Euskal Herrian ere» maila «handia» dagoela dio, «mendirako afizio handia izan dugu betitik euskaldunok eta hori lasterketetan islatzen da. Hala ere, Baztanen emakumeen presentzia nahiko tikiak dela erranen nuke. Denborarekin hori aldatuko dela pentsatu nahi dut».

Etorkizunera begira, «orain arte bezala segitzea eta lesiorik ez izatea» du helburu, eta amets bakarra: «Zegama-Aizkorriko dortsala tokatzea ederra litzateke».

MERKATU TTIKIA

ETXEBIZITZAK

SALGAI



SUNBILLA. Pisu berria salgai, gustu handiarekin berritua. Sukalde, egongela eta jangela espazio zabal bakarrean, begiratoki eta balkoia bista ederrekin. 3 logela eta 2 komun oso. 2 aparkaleku lurpeko parkingean eta igogailua. Prezioa negoziatzeko aukera guztiak. ☎699 12 28 15.

LEITZA. 85 m²ko pisua salgai, igogailuarekin. Zaharberritzeko. ☎636 85 05 70.


LEGASA. 104 m²ko apartamentua salgai. 3 logela, kanpoaldera, terrazarekin. Maizter batekin dago salgai, bertze bi urtetarako alokairua duena. 2021ean berritua, oso erosoa eta oso gune lasaian. Prezioa: 107.500 euro. ☎687 63 27 37.

DONEZTEBE. Apartamentua salgai. 2 logela, egongela handia, sukalde eta komunarekin, erdigunean. 2020an margotua eta 26 m²ko ganbara diafanoa du bainugela batekin. Prezioa: 108.000. ☎687 63 27 37.

OIZ. Etxe adosatua salgai. 4 solairu, 275 m, garajea, 2 komun, terraza eta 342 m²ko lorategi-lursaila. Egoera ezin hobean eta oso eguzkitsua. 2010ean eraikia. Prezioa: 350.000 ☎687 63 27 37.

BORTZIRIAK. Borda salgai. Deitu gaez. ☎647 58 81 63.

ERRENTAN EMATEKO



ALMUÑECAR. Granadako kostan, partikular batek lagun bat edo birenzako apartamentua errentan emateko du, bi asterako edo hilabete osorako. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. Uztaileko eta abuztuko bigarren hamabostadietan libre. ☎658 94 37 02.

ELIZONDO. Gela bat errentan emateko, 100 euro + gastuak. Pisua

IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 www.erran.eus

☎ 744 48 43 61

@ info@ttipi.eus

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (erran.eus/tpv/ordainketa)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabean erantzukizunik

xarmanki dago eta gela zabala, eroso eta ongi zaindua. ☎618 40 85 14.

ERRENTAN HARTZEKO

IRUÑEA. Arrosadia auzoan edo unibertsitate inguruan, lau neskek pisua errentan hartu nahi dute datorren ikasturteetik aurrera. ☎617 80 88 48.

LESAKA. 30 urteko neska bat pisu/pisukide bila, errentan hartzeko. ☎685 75 09 39.

ELIZONDO. Pisu edo etxe bila. 50 urteko emakumea, lana duena. ☎630 45 21 89.

GARAJEAK/LOKALAK

ERRENTAN HARTU

ELIZONDO inguruan errentan hartzeko industria-pabiloi bila. Denboraldi luzerako. ☎665 83 14 74.

ERRENTAN EMAN

LESAKA. Eltzeta karrikan garajea errentan emateko. ☎628 03 25 58.

LANA

ESKAINTZAK

IRUN. Jatetxe batean asteburuetan edo astegunetan egun osoan aritzeko zerbitzaria behar dute. ☎650 17 30 31.

BERA. Ibardingo Benta Gorrian zerbitzaria behar dute lanaldi erdian aritzeko, eguerdiko zerbitzuan. Frantses pixka bat dakiena. Bidali curriculumak bentagorria@hotmail.com helbidera edo deitu. ☎618 00 27 31.

IBARDIN. Barrako zerbitzaria behar dute egun osoan lanan aritzeko. Astean bi egun libre. Bidali curriculumak beolaetxea@gmail.com

BASERRIA

BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 4,91
- 1.koa 4,79
- 2.koa 4,67

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,02
- 1.koa 4,88
- 2.koa 4,77

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiikiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 125,00
- Idixkoak 150,00

Aretze nabarrak

- Urruxak: 120,00
- Idixkoak 140,00

ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 4,86/4,96
- Zaldi-behorrak 2,18/2,35

ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 7,10/7,20
- 8-10 kilokoak: 5,80/6,50

ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 63 €

Zerri gizona 1,545 €

Zerramak 0,780€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 13tik 20ra bitarteko prezioak)

helbidera edo deitu. ☎948 63 07 09.

ETXALAR HOTELean gaez lan egiteko atezaina behar dute, astean borts egunez lan egiteko eta bi besta egun. 00:00etatik 08:00etara. Lanaldi osoa, kontratu finkoa, eta berehala hasteko prest. Baldintza onak. Bidali curriculumak info@etxalar.com helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

ETXALAR HOTELean barrako eta jangelako zerbitzaria, hizkuntzak dakizkien harreragilea eta sukaldeko laguntzailea behar dituzte. Bidali curriculumak info@etxalar.com helbidera edo deitu. ☎948 63 50 00.

Muebles Ametsen altzariak muntatzen aritzeko pertsona bat behar dute. ☎948 63 05 37 / igor@mueblesamets.com.

ZUGARRAMURDIko landetxe batean laguntzen aritzeko pertsona bat behar dute uztailean eta abuztuan. Harremanetarako Whatsappez. ☎670 48 45 67.

Lozy's Pharmaceuticals, goxoki farmazeutikoak garatu, fabrikatu eta ontziratzten dituen enpresak, Fabrikazio eta mantentze lanetarako langileak behar ditu. Harremanetan jartzeko idatzi helbide honetara. xabier.aldunate@lozyspharma.com.

SUNBILLA. Ariztagain kanpinean, lanaldi osoan aritzeko esperientzia duen sukaldari euskalduna behar dute. Lan finkoa. ☎948 45 05 40.

Bortzirietako IKA euskaltegiak euskara-irakaslea behar du ordezkapen bat egiteko 2022-23 ikasturte osorako. Izangaiek curriculumak bidali beharko dute ekainaren 23a baino lehen bortziriak@ikaeuskaltegiak.eusera edo euskaltegiko egoitzara bertaratu (Matxinbeltzenea, Arretxea 22, Lesaka).

ESKARIAK

31 urteko Nikaraguako emakumea, erizain titulua duena, eta ikasketa soziosanitarioak dituen adinekoak zaintzeko edo adinekoen egoitzan lan egiteko prest. Borts urteko esperientzia zaintza lanetan, eta disponibilitate zabalak. ☎674 44 82 79. Etxetik administrazio eta finantza lanetan ariko nintzateke, telelanean. ☎664 43 28 25.

Ostalaritzan eta baserriko lanetan esperientziadun mutila lanerako prest. Orduka edo lanaldi osoan. Ordutegietan malgutasuna eta autoa duena. ☎643 79 05 06.

Neska euskalduna eta esperientzia-duna, enpresa ttikien web orri, sare sozial, posizionamendu, estatistika, erreserba, online salmenta eta orokorrean Interneteko gestioetan ariko litzateke. ☎690 26 77 56.

ANIMALIAK

OPARITZEKO



Katakume begi urdin eta xuriak oparitzeko. Oso-osu politak. Dudak Whatsapp bidez. ☎636 18 15 46.



Border collie eta Gorbea artzain zakurren nahasketa den **txakurkumea** oparitzeko. Bi hilabete ditu. Desparasitatu dago. ☎686 73 81 52 / 687 11 14 32.

ELIZONDO. Bi urte eta erdiko artzain zakur alemana oparitzeko. Toki faltagatik eta ateratzeko denbora faltagatik. ☎618 69 88 35.

Katakumeak opari. Etxe bila gabiltza. Lagun berriak egitea gustatzen zaigu, baita jostatzea eta patxadan egotea ere. Zure etxean hartu nahi bagaituzu, deitu! ☎652 75 08 17.

DENETARIK

GALDU-AURKITUAK



LESAKA. Xiaomi markako mugikorra aurkitu dute Zarandia karrikan. ☎ 697 27 60 36.

SALGAI



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Kuhn markako **belarrari buelta emateko tresna** salgai. Egoera onean. ☎630 41 13 94.



Bizikletako kasko integrala salgai. S1X S1X ONE marka, M taila. Berria, estreinatu gabe. 155 eurotan. Kaskoaren funda opari. ☎606 04 25 11.



Bizikletako kasko integrala salgai. GIRO marka, S neurria. GOPRO-rentzako euskarriarekin. Oso egotera onean, gutxi erabilia. 85 eurotan. Kaskoaren funda opari. ☎606 04 25 11.



SORTZEAK

- **Gaby Guedes**, Sarakoa, maiatzaren 2an.
- **Luma Labadie**, Sarakoa, maiatzaren 10ean.

URTEBETETZEAK



Beñat Goñi Errandoneak 9 urte beteko ditu ekainaren 3an. Zorionak eta aunitz urtez familia guziaren partetik.



Beñat Terreros Alzugarai lesakarrak 3 urte beteko ditu ekainaren 11n. Zorionak eta muxuak ataxiren partez.



Narbarteko **June Martin Argainek** maiatzaren 26an 8 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partez, eta bereziki iraiaren partez!



Maritxu Larretxea arantzarrak ekainaren 13an urteak beteko ditu. Aunitz urtez Otsarrako familiaren partez!



Imanol Lukanbio arantzarrak ekainaren 18an urteak beteko ditu. Aunitz urtez familiaren partez! Besta eder batekin ospatu!

ETIKETAK eta PEGATINAK BOBINAN

Diseinua prestatzetik inprimatzeraino, prozesu osoa

KULTURKARI
Diseinu grafikoak | Publikoak

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@ttipi.eus
www.kulturkari.com

HILBERRIAK

- **Migel Mari Mendiburu Indaburu**, Zugarramurdikoa, maiatzaren 12an, 61 urte zituela.
- **Ino Elizaintzin Larregi**, Elizondokoa, maiatzaren 13an, 92 urte zituela.
- **Lazaro Ursuegi Zelaieta**, Elizondokoa, maiatzaren 14an, 81 urte zituela.
- **Milagros Osés Segura**, Berakoa, maiatzaren 15ean, 55 urte zituela.
- **Mª Victoria Pikabea Korta**, Berakoa, maiatzaren 15ean, 87 urte zituela.
- **Modesto Ustariz Telletxea**, Iruritakoa, maiatzaren 15ean, 93 urte zituela.
- **Beatriz Belaunzaran Arraiago**, Aresokoa, maiatzaren 16an, 92 urte zituela.
- **Julian Erasun Larretxea**, Goizuetakoa, maiatzaren 19an, 55 urte zituela.
- **Maribel Minguez Bengoetxea**, Berakoa, maiatzaren 20an, 88 urte zituela.
- **Jose Martin Ursuegi Zelaieta**, Gartzaingoa, maiatzaren 22an, 88 urte zituela.
- **Angeles Bizente Irigoien**, Etxalarkoa, maiatzaren 23an, 88 urte zituela.



OROIGARRIAK





KULTURKARI
Dizainu grafiko | Publikazioak

Info +:
Tel: 948 63 54 58
kulturkari@tppi.eus
www.kulturkari.com

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira

IRACHE

tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

URTEURRENA



**Vicente
ALMANDOZ LARRAIN**

Irunen, 2021eko ekainaren 9an
I. URTEURRENA

Gogoan zaitugu.

ZURE FAMILIA

OROIGARRIA

**Migel Mari
MENDIBURU INDABURU**

Zugarramurdin, 2022ko maiatzaren 12an

*Gure kinto bestetan
begirada goxoko kinto saltsero bat bagenuen,
solas eztikoa eta umore onekoa.
Kantatzea izigarri maite zuen,
eta halaxe despeditu ginuen,
bere gustuko 'Hegoak...' kantatuz.
Zabaldu hegalak, Migel Mari,
eta bidaia ona izan.*



URDAZUBIKO ETA ZUGARRAMURDIKO KINTOAK



**BAZTAN
BIDASOA**
Onaketa Zerbitzua

BAZTAN: ELIZONDOn Santiago kalea, 79
BORTZIRIAK: BERAn San Jose Beilatokian
MALERREKA: DONEZTEBEAn Aparan ind. 1-3
web: funerariabaztanbidasoa.com

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere

24 ORDU | 948 48 95 50
365 EGUN | info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeka



IZARRA
HERRI ZURE ONDOAN
ARRAIA ETXERAN

Gure lurra,
gure jendea,
gure sustraiak



TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 | www.izarratanatorio.com



Iker Salaberria txapelدونorde buruz buruko promozio txapelketan. Saiatu saiatu zen, baina Iker Salaberria goizuetarrak ezin izan zion aurre egin Jon Alberdi azpeitiarrari, maiatzaren 21ean Labriten jokatu zuten promozio mailako buruz buruko pilota txapelketaren finalean. Azpeitiarrak 22-11 irabazi zion goizuetarrari.



'Kantu bat gara' Leitzan. Maiatzaren 22an Leitzako Herri Aretoan bildu zirenak zutik jarri zituen Jon Maiaren *Kantu bat gara* ikuskizunak. Maiarekin batera, besteak beste, Miel M. Elosegi Luze eta Gotzone Sestorain leitzarrek igo ziren oholtza gainera.



Hainbat udalen webguneetan zibererasoa. Animsak kudeatzen dituen eskualdeko hainbat udalen webguneak erabili ezinik gelditu ziren maiatzaren 18an, zibereraso baten ondorioz. Bertzeak bertze, Baztan, Bera, Lesaka, Arantza, Igantzi, Beintza-Labaien, Urroz, Oiz, Donamaria-Gaztelu, Doneztebe, Ituren, Zubieta, Arano, Urdazubi eta Zugarramurdiko udalei eragin zien erasoak, denak Animsako bazkide baitira eta udaletxe horietan posta elektronikoko zerbitzurik gabe ere gelditu ziren. Ez zen egun pare bateko kontua izan. Lerro hauek idazterakoan astebete beranduago funtzionatu gabe segitzen zuten.



Beñat Astiz nagusi Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketan. Maiatzaren 21ean Arantzako Aterpean jokatu zen 36. Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, Nafarroako Bertso Eskolen Topaketaren barrenean. Zazpi bertsolarik hartu zuten parte txapelketan: Antton Ziriza Saragueta (Iruñea), Beñat Astiz Isasi (Barañain), Eki Mateorena Zozaia (Leitza), Larraitz Goikoetxea Zuriarrain (Altsasu), Manex Leone Baraibar (Iruñea), Olatz Bados Ganuza (Olazti) eta Xabier Elizalde Soto (Iruñea). Ainhua Larretxea beratarrek aurkeztu zuen saioa, eta Amaia Telletxea arantzarra, Joseba Beltza eta Julen Zelaieta beratarra epaile lanetan. Astizek irabazi zuen txapela bigarren urtez segidan eta Mateorena leitzarra izan zen txapelدونorde. Biak izanzen dira Nafarroako ordezkari lurretan jokatuko den Euskal Herriko Eskolarteko txapelketan.



Amaiurko sokatira taldea txapelدونorde. Maiatzaren 21ean Berriozarren jokatu zen Nafarroako kadete mailako sokatira txapelketako hirugarren jardunaldia eta finala, eta amaiurtarrak ederki moldatu ziren. 280 kilokoen kategorian, sailkapen nagusian bigarren gelditu ziren, Ansoain A taldearen gibeletik.



Trinitate Eguna ekainaren 12an. Aspaldiko partez, Mendaurko kaskoak itxura hori hartuko du heldu den ekainaren 12an. Aurten gainera, ospakizunetarako murrizketarik gabe...

PLAZAN BAZAN



HAMAIKA IKUSTEKOAK

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamaika dira guztira.

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.
- 6.
- 7.
- 8.
- 9.
- 10.
- 11.



Ilustrazioak: Garbiñe Ubeda (Aiumi)



INTERNETEN ERE BAI !

<http://plazanbazan.eus/>



Kontsultatu soluzioak
[www.PlazanBazan.eus/
kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK



BERRI S.L.
TXIMISTINDAR
 INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK
 tramite guztiak
 GURE KONTU



**3 FUNTZIONAMENDU MODU
 DITUZTEN SISTEMAK DITUGU**



EGUZKIKOAA: Karga %100 eguzki-energiarekin, sareko kontsumorik gabe.



HIBRIDOAA: Karga eguzki-energiarekin lehenesten du, eta, nahikoa ez bada, sareko energia minimoarekin osatzen du. **Karga segurtatzen dugu, deskonexioa saihestuz.**



EGUZKIKOAA/SAREKOOA: Potentzia erabilgarri osoaren hornidura. **Karga abladura maximoa lortzen dugu.**

Ttipi Txartelarekin
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

MUSU-TRUK

-%80 ko DESGRABAZIOA

ERRENTA AITORPENEAN

Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:

TTIPI-TTAPA

Keskuntako bidea, 7 LESAKA

T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61

info@ttipi.eus | erran.eus

www.ttipitxartela.info

806 zenbakiko
irabazleak >



ZOZKETAK

Donostiako Aquariuma - Bi sarrera
Julian Larretxea Agesta | DONEZTEBE

Onddo ta punto - Kamiseta bat
Joxe Telletxea Otxoteko | LESAKA

Ezkeza - Kamiseta bat
Txomin Perotxena Fagoaga | IRURITA

Zugarramurdiko Lezeak - Sarrera bat
Juan Bautista Telletxea Telletxea | LEITZA

BKZ Abentura - Sarrera bat
Ana Larretxea Apezetxea | ARANTZA

Lesakako kiroldegia - Bi sarrera
M^a Angeles Rodriguez Lasarte | EZKURRA

Wow Park - Sarrera bat
M^a Jesus Elizagoien Etxegarai | ITUREN

Mauka - Bi disko
Mikel Argarate Larre | LEKAROZ

DONOSTIAKO AQUARIUMA

www.aquariumss.com



Bi sarrera

BUATXABAL

www.buatxabal.com



Kamiseta bat

BIDASOIL

N-121A errepidea 74. Km. Behobia/Irun



30€ko deskontua

MENDUKILO

www.mendukilo.com



Bi sarrera

IRRISARRI LAND

www.irisariland.com



Sarrera bat

OKILLE TAILERRA

okilletailerra.blogspot.com



Eguzkilore bat

WOW PARK

www.wowpark.fr



Bi sarrera

Wowpark
Votne Parc Adventure



**LI
BU
RU
A**



100 kontu planeta
salbatzeko

TTARTTALO

www.ttarttalo.eus

**LA
GUN
TZAI
LEAK**



www.maukamusik.com



www.barrutia12.eus